

**2022KO MARTIAREN 23KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 23 DE MARZO DE 2022 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	5
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, zeinen bidez aldatu egiten dan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua, inportazioei eta hornidura batzuei lotutako aldi baterako salbuespenei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, eta tributu-arloko neurri jakin batzuk luzatzen diran balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan.”	6
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzordekide andreak hartu dau berbea	8
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea	13
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Mendiko bilaketa- eta erreskate-larrialdietako esku-hartzeak hobetzeko ekintzak.”	14
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	15
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	16
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	18
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	19
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	23

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	24
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	25
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	26
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	27
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “AP-68 autobidearen erabiltzaileek oraindino laguntza barik jarraitzea.”.....	28
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	28
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	30
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea.....	32
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	33
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	35
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	37
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	39
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea.....	40
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	41
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	42
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Zaintzaile informal guztiek atsedean hartzeko daben eskubidea bermatzea.”.....	44
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	44
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea.....	45
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea.....	46

- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	49
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	50
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	50
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	51
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	52
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	52
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Sektore Publikoan berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatzea.”	53
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	56
- Euzko Abertzaleak taldeko Porto Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	58
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	59
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	60
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	62
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	63
- Euzko Abertzaleak taldeko Porto Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	64
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	65
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Eliza katolikoak eta espainiar gobernuak immatrikulatutako ondasunen inguruan egindako akordioa.”	66
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	66

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	68
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	69
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	70
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	72
- EH Bildu taldeko Iardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	74
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	75
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	76
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	77
- Batzarra amaitu da.....	78

2022ko martiaren 23ko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 23 de marzo
de 2022 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Señor Diputado General, señoras y señores diputadas/os, estimadas y estimados junteras/os, y todas las personas que seguís esta Junta General vía streaming, buenos días a todos y bienvenidos.

Antes de comenzar a tratar el orden del día de hoy, decir que en cuanto al derecho a voto, los señores Mediavilla Amarika y Arana Requena han delegado su voto en el señor Lekerikabeaskoa Arrillaga.

Y antes de entrar en el orden del día, también tengo que leer la declaración institucional que han acordado los portavoces con motivo de la guerra de Ucrania. Dice así:

1. Rechazamos con toda firmeza las acciones militares de la Federación Rusa en Ucrania. Infringen gravemente el derecho internacional y atacan injustificadamente la seguridad y la estabilidad de Europa.

2. Exigimos el cese inmediato de la violencia y la retirada total del ejército ruso de Ucrania. Afirmamos nuestro pleno apoyo y respeto a la soberanía e integridad territorial de Ucrania y hacemos un llamamiento a la vuelta a los acuerdos de Mins.

3. Instamos a la Unión Europea a ofrecer el apoyo financiero y humanitario necesario en coordinación con el conjunto de la comunidad internacional a Ucrania y al pueblo ucraniano. Pedimos redoblar los esfuerzos en la respuesta humanitaria de emergencia. Recordamos a Rusia la obligación de respetar el derecho internacional humanitario.

4. Ukrainari eta bere herriari gure alkartasun eta maitasun osoa erakusten deutsegu. Heriotzak gaitzesten ditugu, gure atsekabe sakona helduarazoten dogu biktimakaitik eta herritarren alperreko sufrimentuagaitik. Sentimentu hori gure herrialdean bizi dan ukrainar komunidadera zabaltzen dogu.

5. Europar Batasunari eskatzen deutsagu behar dan laguntasun finantzieroa eta humanitarioa eskaintzeko, nazinoarteko komunitate osoagaz koordinata, Ukrainari eta Ukrainako herriari. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak handitzeko eskatzen dogu. Errusiari gogoratzen deutsagu nazinoarteko zuzenbide humanitarioa errespetau beharra.

6. Pedimos a la Unión Europea que se organice lo antes posible para acoger en las mejores condiciones posibles a los refugiados afectados por este ataque militar.

7. Exigimos firmemente a la Federación Rusa que respete la legalidad internacional, que ceda las armas y que vuelva a las vías diplomáticas.

8. Europar Batasunari eskatzen deutsagu ahalegin ahalik eta gehien egiteko gestino diplomatikoetan beti be deseskalatzera eta bakeari eustera bideratuta.

9. Se solicita la continuidad de la acogida en nuestro país de las personas refugiadas ucranianas en los planes coordinados con las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales.

Esta es la declaración institucional, y ahora sí, entrando en el orden del día, el primer punto dice lo siguiente:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto Foral Normativo (Transposición) ([R.E.11/E/2022/0000262](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: DECRETO FORAL NORMATIVO por el que se modifica la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido en lo que respecta a las exenciones temporales relativas a las importaciones y a determinados suministros, en respuesta a la pandemia de COVI D-19 y par el que se prorrogan determinadas medidas tributarias en el Impuesto sobre el Valor Anadido y en el Impuesto sobre el valor de la producción de la energía eléctrica.

Documento

([R.E.11/E/2022/0000262](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (12A)

Expediente: ([11/A/03/0003166](#))

Principal:

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Dekretu Arauemailea (Transposizinoz) ([11/E/2022/0000262SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, zeinen bidez aldatu egiten dan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua, inportazioei eta hornidura batzuei lotutako aldi baterako salbuespenei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, eta tributu-arloko neurri jakin batzuk luzatzen diran balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000262SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (12A)

Espedientea: ([11/A/03/0003166](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Gracias, buenos días. Danok dakizueenez, Ekonomia Itunak ezartzen dau Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga itundutako zergak dirala, eta unean-unean Estaduan lurralde erkidean ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko dirala.

Joan dan 21. urteko uztailaren 15ean, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean zuzentzarau bat argitaratu zan, covid-19ak sortutako pandemiari erantzuteko inportazinoei eta hornidura jakin batzuei buruzko aldi baterako salbuespenak aldatzen dituana. Zuzentzarau horren transposizinoa egitea beharrezkoa zan estadu kideek 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Zuzentzarau horren helburua da gaur egun Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari emoten jakon salbuespena zabaltzea ondasun-inportazinoei, ondasun-entregai eta pandemia-prestazinoei jagokenez, beti be Europako Erkidegoaren, energia atomikoaren erkidegoaren, Europako Banku Zentralaren, Europako Inbersinoen Bankuaren edo

Europar Batasunak sortutako erakundeen alde egiten badira, erabilera ofizialetarako, ondasunak eta zerbitzuak erosteko, bai Batzordeak bai Europar Batasunaren zuzenbidearen arabera sortutako erakunde batek egin ezkeroko covid-19aren pandemiari erantzuteko. Edozein kasutan, Batzordeak edo salbuespena duen erakundeak ezin izango deusoz inportatutako ondasunak edo erositako ondasun-zerbitzuak hirugarren bati kostu handian emon.

Holan, bermatu egingo da Europar Batasunaren ekimenen testuinguruan erabagitako neurriak ez dirala oztopatuko ondasun edo zerbitzuen erosketara horreek kendu ezin dan Balio Erantsiaren gaineko Zergeagaz zergapetuta geratzen diralako, eta, beraz, erakunde horreek berreskuratu egiten dabezalako.

Azaroaren 2ko 24/21 Errege Lege Dekretuaren 5. liburua, arlo honeetako Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioari buruzkoa da: bonu bermatuak, inbersino kolektiboko erakundeen mugaz haraindiko banaketa, sektore publikoko informazioaren datu irekiak eta berrerabilpena, egile-eskubideen egikarritza eta antzeko eskubideak, lineako transmisio jakin batzuei eta irrati- eta telebista-programen emonaldiei aplikatzekoak, inportazio jakinei eta persona konsumitzaileen hornidurari aldi bateko salbuespenak, eta errepideko garraiorako ibilgailu energetikoki garbiak eta eraginkorrak. Liburu horren bidez, Kontseiluaren uztailaren 2ko 2021/1559 zuzentzarua txertatu da Espainiako zuzenbidean. Zuzentzari horrek aurreko zuzentzari bat aldatzen dau inportazioei eta zenbait hornidurari buruzko aldi baterako salbuespenei jagokena, baita balio erantsiaren gaineko zergan covid-19aren pandemiari erantzuteko be.

Batasuneko aurrekontua covid-19aren aurkako borrokan ahalik eta ondoen erabilteko, Zuzentzarian sartutako salbuespenak atzeraeragineko efektuagaz aplikatu beharko dira 21. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarraldi mugagabeagaz, beti be erosketek pandemiaren aurkako borrokaagaz lotuta badagoz.

Bestalde, abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege Dekretuak, mugikortasun elektrikoaren, autokonsumoa eta energia barriztagarrien hedapena sustatzeko energiaren arloan preminazko neurriak hartzen dituanak, azken faktura elektrikoaren eta gas naturalaren kostuak murrizten laguntzen daben neurri fiskal batzuk sartzen ditu, besteak beste.

Lehenengo eta behin, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etetea 2022ko lehenengo hiruhilekoan luzatuko da. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga 21. urteko hirugarren hiruhilekorako aldi baterako etetea ezarri zan, eta, ondoren, neurri hori 21. urteko bigarren seihileko osora luzatu zan. Elektrizitatearen handizkako prezioei jagokenez, salbuespen hori 22. urteko lehenengo hiruhilekora luzatuko da, eta zerga etenda geratuko da aldi horretan.

Beste alde batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, salbuespen gisa eta aldi baterako, %10eko tasa murriztua aplikatzen jarraituko da 22. urteko apirilaren 30era arte, kontratuertarako faktura elektrikoaren osagai guztiei jagokena, 10 kW-ko potentzia-termino finkoa gauditzen ez badabe fakturazioaren aurreko hilean handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 45 €/MW baino handiagoa danean.

Era berean, data berera arte, hau da, 22ko apirilaren 30era arte, luzatu da %10eko zerga-tasaren aplikazioa bonu sozialaren hartzaile diran elektrizitate-hornikuntzako kontratuen titularren alde egindako horniduretarako, gainera neurri hori indarrean dagoan bitartean gizarte-bazterkeriako arriskuan dagoan kaltebera larrizat edo kalteberatztat jotzen badira, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa edozein dala.

Bestalde, 22. urteko ekainaren 30era arte mantenduko da Europar Batasunetik kanpo eskuratutako eta inportatutako erabili eta botateko maskara kirurgikoen

zerga-tasaren %4 aplikatzea, pandemia luzatzearen ondorioz biztanleek halakoak orokorrean erabili behar dabezala-ta.

Era berean, 2022ko ekainaren 30era arte, %0ko tasa aplikatuko jake covid-19ari aurre egiteko osasun-materialaren barruko entregei eta Batasunaren barruko inportazioei eta erosketei, euron hartzaileak irabazi-asmorik bako erakunde publikoak eta ospitaleak badira.

Azkenik, 22. urterako Estaduko Aurrekontuei buruzko abenduaren 28ko 22/21 Legean hainbat neurri hartzen dira zergen arloan, eta Foru Dekretu arauemaile honetan Balio Erantsiaren gaineko Zergari eragiten deusienak sartu dira. Zehatzago, 2022ko zergaldirako luzatu dira nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide sinplifikatua eta araubide berezia apliketako mugak.

Horregaitik, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluan jasotako baimenaren arabera, Aldundiak foru-arau mailako arau-xedapenak emon ahal izango ditu zergen arloan, foru-dekretu arauemaileak, Foru Dekretuon xedea Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea baino ez bada, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera lurralde horretan, Bizkaian, erregimen komuneko arau sustantibo eta formal bardinak ezarri behar badira. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. A continuación, debemos votar la validación o no del Decreto Foral Normativo.

Por tanto, votos a favor, votos en contra, y abstenciones. El resultado es el siguiente: 48 votos emitidos en total, 38 votos a favor, sin votos en contra y 10 abstenciones. Queda, por tanto, validado.

Y ahora pasamos a la ronda de explicación de voto. A tal efecto, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Talde Popularraren izenean berba egingo dot gure taldearen abstentzinoa azaltzeko. Nire ustez, erraz ulertzekoa da, kontuan hartuta espainiar guztioi elektrizidadearen prezioak, gasaren prezioak eta erregaien prezioak sortu deuskuen krisi larriari urtenbidea emoteko Espainiako Gobernuari ikusten deusagun inprobisazinoa eta ezintasuna.

Prezio horreek, jakina, bete-betean eragiten dabe kontsumo-ondasunetan be, eta, jakina, kostuetan eragiten dabe. Oin dala 33 urte Espainian ezagutu ez dogun inflazinoa eragin daben prezioak. Inflazino hori, danok dakigunez, beste zerga bat da. Gehiago hondino, zerga bidegabeenetako bat da, ikusezina dirudien zerga bat da, herritar guztien ahalmen ekonomikoa murrizten dauena, klase ertainetan, langile klaseetan, familia xumeenetan eragin handiagoa daukana, enpresa txiki eta ertainei eta enpresa handiei eragiten deusiena, guztion erosteko ahalmena murrizten dauena eta gure produktzio-sektorearen lehiakortasuna estutzen dauena.

Eta horren guztiaren aurrean, tamalez, gobernu alperrekoa daukagu, une honetan Europan zehar laguntza eske tournée bat egiten dabilen presidente bategaz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, señora Martínez Fernández, debo pedirle... Mesedez, eskatuko deusut eztabaidako gaira mugatzeko, hau da, Foru Dekretu Arauemailea berresteari buruzkora. Nik badakit zuek guztiok ildo horretako ekimenak aurkeztu dituzuela, eta datorren asteko Kontroleko Osoko Bilkuran eztabaidatuko doguzala. Beraz, bozeramaile guztiei eskatuko deitsuet botoa azaltzeko txanda honetan gure botoaren zentzua azaltzeko. Eskerrik asko Martínez Fernández andrea.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Konforme, baina denporea.

Gu ez gagoz ados neurri horreekaz, foru-dekretu arauemaile horren bidez parekatzeko, ze barrero be elektrizidadeari ezartzen jakon BEZa %10 murrizten jarraitzea dalako. Esan genduan hemen, gure proposamena da %10ean ixtea betiko, luzapen gehiago barik. Gure proposamena da ezohiko egoeretan, oingo moduan, %4ra jaistea. Eta hori hemendik egiten da, etxetik, Europan bueltaka ibli barik; ze emoten dau laguntzak eskatzen gabizala guk etxetik hartu geinkezan neurrietarako, gure inguruan herrialde askok hartu dabezan moduan: Frantzia, Portugal gertu daukaguz, Italia, Suedia, Irlanda, Errumania, Eslovenia, Belgika, Polonia, Holanda edo Grezia, adibide batzuk bakarrik jartzearren.

Hemen, Espainian, gobernu bat daukagu, Sánchez jauna, eta haren kide guztiak, eta zuek guztiok zarie haren kideak, batzuk gobernuan zagozie, beste batzuk gobernukideak zarie, eta beste batzuk gobernu horretako lehentasunezko kideak. Zuek guztiok, lege-dekretuok onartzen zabizienok, aurrekontuak onartu dituzuenok, benetan eraginik ez daukien neurriak onartzen dituzuenok.

Eta ikusten dogu, herritarrok egunero ikusten dogu. Oraindino ez dogu neurririk hartu, eta hori oin dala 10 egun, martiaren 13an, batzar bat egin zala gobernu autonomiko guztiakaz gai hori tratetako. 10 egun, eta hemen, Espainian, ez da ezelango neurririk hartu. 10 egun. Batzuk tarte horretan neurriak hartu dabez. Galiziako Xuntak, adibidez, bonu termiko bat onartu dau. Baina guk honetariko gauzak onartzen ditugu, Foru Dekretu arauemailean gaur datorrenaren modukoak, eta gitxienez 29ra arte itxaron behar dogula esaten deuskue. Baina hemen, bardin esaten jaku prezioei topea ipinteko, zergei topea ipinteko zein diru-laguntzak emoteko. Eta holan doaz egutegiko orriak jausten.

Bitartean, herritarrak gero eta pobregoak gara eta gero eta kezkatuago eta haserreago gagoz, eta gobernu gusturago dagoala emoten dau, edo behintzat diru-kutxa beteago.

Talde Popularrak uste dau oin dala hile batzuk egin behar izango zala zeozer, eta orduan eta orain daukazuen ezintasun handiaren aurrean, ikusten dogu neurriek ez dabela balio. Egin dozuezan aurreikuspen guztiak gainditu egin ditu errealidadeak, prezioak gaur bai eta bihar be bai igon eta igon doaz eta. Errekorrak hausten goaz. Oin dala hile batzuk, etxe honetan galdetu kezka geunkan ia zer gertatuko dan sortze-zergaren etendura amaitzen danean edo BEZaren murrizketa egiten ez danean. Barrero dinot, ez da luzatu behar, %10 hori iraunkorra izan daiten onartu behar da, eta %4 jaitsi orain bizi dogun moduko ezohiko egoeretan. Ba, urte erdi geroago okerrago gagoz. Orduan esan genduan, eta zoritxarrez denporeak errazoia emon deusku. Susperraldi azkarrari buruz hitz egitetik, Vn esaten eben, eta aste batzuetako kontua izango zan inflazio aldi batekoa izatetik, enpresen lanuzteak izatera igaro gara, apalak erdi hutsik izatera, esnea estoldetan isuritzera. Hori da une honetan Bizkaian, Euskadin eta Espainia osoan daukagun egoera.

Jakina, batzuentzat Putinen eta ultraeskuinaren artean dago erantzukizuna.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez andrea. Se acaba el tiempo, y debo repetirle... Parkatu, esan dot denporea amaitu dala. Bai, kontuan hartu dot. Eta barriro eskatzeko izan zan eztabaidako gaira mugatzeko. Eskerrik asko Martínez andrea.

Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Egun on guztioi. Eskerrik asko mahaiburu andrea

Beste batzuetan moduan, nire taldetik Foru Dekretu arauemaile hau babestu dogu, ez bakarrik Ekonomia Itunak jasoten dituan arauak holan ezartzen dabelako, baita gizarte osoarentzat onuragarriak diralako eta, jakina, Bizkaiarentzat be.

Adibidez, 2022ko zergaldian luzatu egiten dira nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide sinplifikatua eta araubide berezia aplikatzeko mugak.

Bigarren, BEZaren salbuespena luzatzen da material sanitarioa erosteko, pandemiari erantzuteko. Gainera, salbuespen hori Europar Batasuneko erakundeetara zabaltzen da; esate baterako, Bizkaian, zehazkiago Bilbon, Osasun eta Lan Segurtasunerako Europako Agentzia dago. Eta maskaren gaineko BEZa be luzatu da, %4an geratu da-ta.

Eta hirugarren eta azkena, Estaduko Gobernuak energiaren prezioen igoeraren aurka hartutako neurriak luzatzen dira, kontsumitzaileen faktura merketuten jarraitzeko helburuagaz. Zehatzago, beste hiruhileko batez luzatuko da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etena, eta apirilera arte luzatuko da BEZ murriztuaren aplikazioa, hau da, faktura elektrikoaren gaineko %10a.

Aspalditik ezartzen doazen neurri horreek guztiak neurri positiboak eta beharrezkoak izan dira covid-19aren aurkako borrokarako, eta, jakina, baita faktura elektrikoa garestitzearen aurkakoak be. Eta neurriok, faktura elektrikora gehiago bideratutakoak, gaur egun inoiz baino zentzu handiagoa hartzen dabe, Ukrainako gerrak ekarri dauen energia-merkatuen ziurgabetasunaren aurrean.

Energiaren kontu horretarako babestu ditugu neurriak, esan dodan moduan. Baina azpimarratu nahi neuke, lehenago egin genduan moduan, nire taldetik gaur be neurri horreek positiboak dirala berretsi nahi dogula, bai. Baina iragankorrek be badira. Eta egin behar dana sistemaren erreforma da, prezioak finkatzeko sistemaren erreforma preminazko neurri gisa, gaur egun hainbeste aitutzen dan sistema marjinalista hori, gasak, hau da, energiarik karuenak, kontsumitzaileen fakturak puzteari eta oligopolio elektrikoaren onurak gizontzeari itxi deien.

Orain daukagun muturreko egoera baten, ikusten dogu Ganbera honetako parlamentu-arkuaren gehiengoak, baita Kongrekoak be, azken urtenbide horren alde egiten dauela. Arantxa Tapia sailburuaren ahotan be entzun dogu. Egia esan, pozik ikusten dogu Euskadiko indar politiko gehienok merkaturak arautzeko ildo bera lantzen edo defendatzen dogula, gasa prezioen finkatze horretatik aterateko.

Oraingoaz, aste honetan Europako Kontseiluan egingo diran batzarren zain egon behar dogu. Bilera horreetan ikusiko dogu Europar Batasunean ez ete dan apur bat gitxienez aldatzen urte askoan energia-merkatu libreaz egiten dauen defentsa zalantzarri hori, eta, batez be, orain, hain prezio altuakaz, hainbeste arazo sortzen dabilena. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vasco, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Buenos días. Mahaiburu andrea, mahaiko kideak, jaun-andreak, batzarkideak, buenos días a todos.

Gaur eztabaidatu eta bozkatzeko, eta Ganbera honek berresteko daukagu Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen dauen Foru Dekretu arauemailea, inportazioei eta hornidura batzuei jagokezan aldi baterako salbuespenetan, covid19aren pandemiari erantzuteko. Horren bitartez luzatu egingo dira zergari buruzko neurri jakin batzuk, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta energia elektrikoa sortzeko balioaren gaineko zergan. Talde Sozialistak aldeko botoa emon deitso.

2021eko uztailaren 15ean, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zan Europar Batasunaren zuzentarauaren aldaketa, covid pandemiari erantzuteko inportazioei eta hornidura jakin batzuei buruzko aldi baterako salbuespenei jagokena, covidaren pandemiaren aurkako borrokan. Lehen esan dodan moduan, Batasuneko aurrekontu hori ahalik eta ondoen erabilteko pandemiari aurre egiteko. Zuzentarauak sartutako salbuespenak atzeraeraginez aplikatu behar dira 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, indarraldi mugagabeagaz, beti be erosketak pandemiaren aurkako borrokari lotzen bajakoz.

Espainiako Gobernuak abenduaren 21ean emondako 29/2021 Errege Dekretuaren bidez, urgentziak hartu ziran energiaren arloan, mugikortasun elektrikoa, autokonsumoa eta energia barriztagarrien hedapenari bultzadea emoteko. Eta, besteak beste, neurri fiskal batzuk sartu ziran, azken faktura elektrikoaren eta gas naturalaren kostuak murrizten laguntzeko, kasurako produkzio elektrikoaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etendura luzatzea; neurri horreek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021eko ordenamentura behar bezala egokituta dagoz.

2022ko apirilaren 30era arte, elektrizidade-fakturaren osagai guztiei jagoken %10eko tasa murriztua aplikatzen jarraituko da 10 kW-ko potentzia-termino finkoa gaintitzen ez daben kontratuetan, beti be handizkako merkatuaren hileko batez besteko megawatt ordukoa prezioa 45 €baino handiagoa izan bada fakturazioaren aurreko hilabetean.

Ganbera honetako mahaiari zor jakon errespetuak eta begiruneak behartu egiten nau behar dan moduan jokatzin eta nire jarrerari eusten, berbaz gure aurretik egon dan Alderdi Popularreko bozeramaileak egindako gogoetak direla-ta.

Zerga-tasa %10 luzatzeak, eta hemen bai esango dot, ez dauka zerikusirik M. Rajoy dalako batek egindako BEZaren %21eko igoereagaz, hondino be bila jabilkolaza, ze antza inork ez dau ezagutzen.

Esan dodanez, gizarte-bonua jasoten daben eta, gainera, kaltebera larriztat jotin diran personen elektrizidade-horniduren titularren alde egindako horniduretarako %10eko zerga-tasaren aplikazioa luzatzea neurri bat da, handizkako merkatuko elektrizidadearen prezioa edozein dala be. Guretzat neurri hori funtsezkoa da une gogor honetan.

Beraz, erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen inportazioetan eta Batasunaren barruko eskuraketetan %4ko zerga-tasari eusten jako, pandemia luzatzearen ondorioz herritarrok orokorrean erabili beharrean gagozala-ta. Eta era berean, 2022ko ekainaren 30era arte, %0ko tasa aplikatuko da covid-19rako osasun-materialaren inportazioen eta Batasunaren barruko erosketen aurreko entregetarako, beti be hartzaileak irabazi-asmo bako erakunde publikoak, ospitaleak eta abar badira. Neurri horren eraginkortasuna egiaztatuta,

indarraldia luzatu egin da, osasun-sistemak pandemiaren kontrolean, aldaera barriak eta guzti, erantzuten jarraitzea bermatzeko.

Azkenik, nekazaritzako, arrantzako eta abeltzaintzako BEZaren araubide sinplifikatua eta araubide berezia aplikatzeko mugak gehitzen dira foru dekretu arauemaile honetan. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Álvarez Castrejón. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andrea: Gracias señora presidenta.
Buenos días

Este es el primer Decreto Foral regulador del año 2022 y esperamos que este camino no se convierta en el habitual, como ha ocurrido en años anteriores. Es el primero del año, sí, pero su contenido no es nuevo.

Se trata de dos impuestos: el Impuesto sobre el Valor Añadido y el Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica. Ambos de competencia estatal. Y volvemos a encontrarnos con nuestra falta de soberanía para decidir sobre todos los impuestos. No podemos tomar decisiones sobre impuestos indirectos. Como hemos denunciado muchas veces, no podemos cambiar nada, solo tenemos que copiar lo que ha decidido el Estado, y esta ha sido la primera razón de nuestra abstención. Nuestra abstención ha sido una forma de reivindicar la competencia para decidir sobre todos los impuestos.

Pero si analizamos su contenido, ¿qué ha decidido el estado? ¿Hay alguna novedad? En la mayoría de los casos las medidas que estaban en vigor se prorrogan, y si en algunos casos ha funcionado bien tiene sentido que se prorrogue, y lo hemos visto, por ejemplo, en el caso del IVA de las mascarillas. Pero muchas veces, aunque se haya visto que no funciona, se mantiene y no se toma ninguna medida. Y eso es lo que sucede con el precio de la electricidad. Lo único que se hace es prorrogar las viejas medidas en este caso, y éste ha sido el segundo motivo de nuestra abstención.

En el caso del IVA, como se ha dicho, el 10% de la electricidad se prolonga hasta el 30 de abril, y en lo que respecta al Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica, la suspensión temporal del Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica se prolonga hasta el primer trimestre de 2022. Otra vez, como he dicho, las medidas antiguas. Inicialmente se tomó la decisión hasta septiembre de 2021, luego hasta finales de año, y ahora otros tres meses, que por cierto, acaba la semana que viene.

Y como decíamos desde el principio, esta medida sí es positiva, pero no suficiente en ningún caso. Insuficiente, como hemos visto, para hacer frente a la subida del precio de la electricidad. Llevamos mucho tiempo y la electricidad sube y sube, y los más necesitados son los que más sufren esta situación. Entonces no podemos conformarnos y decir que no aceptamos esto. Creemos que eso no es suficiente.

Como decíamos el otro día, tenemos que tomar medidas estructurales para abaratar el precio de la electricidad y vamos tarde. Tenemos que poner un límite a los beneficios del oligopolio eléctrico, no se puede dejar en manos de estas empresas que cada vez consigan más beneficios en perjuicio de todos, o de la mayoría. Y por otro lado, hay que dar pasos para crear una empresa pública de electricidad. Hay que impulsar respuestas estructurales al

problema estructural, no medidas de siempre, o medidas que se han aplicado hasta ahora y que no han sido suficientes sin más.

Por tanto, entendemos que la ampliación de tres meses más que se plantea en el artículo segundo no es en ningún caso suficiente para controlar el precio de la electricidad. Creemos que ya es hora de tomar medidas valientes para hacer frente realmente al precio de la electricidad. Y ya es hora de reivindicar toda nuestra soberanía fiscal. Si no podemos decidir aquí, en nuestro país, de todo, en ningún caso podremos hacer frente ni a la escandalosa subida del precio de la electricidad ni a los diferentes efectos de la crisis que ahora vivimos. Y precisamente por eso nos hemos abstenido. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Urkaregi Etxepare. Y tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak señora Pieló Muguruza.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días

Foru Aldundiak otsailaren 8ko 1/2022 Foru Dekretu Arauemailea ekarri dieusku berresteko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru araua aldatzen dalako, inportazioei eta hornidura jakin batzuei jagokezan aldi baterako salbuespenen ganean, covid-19aren pandemiari erantzuteko, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta elektrizidade ekoizpenaren gaineko zergan zenbait zerga-arau luzatzen dituana.

Adierazi beharra dago, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari jarraituz, 23. quarter eta 26. artikuluetan ezartzen dala elektrizidade-ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga itundutako zergak dirala, eta Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko dirala.

Hori dala-ta, Europar Batasunaren 2021/1159 Zuzentarauak, 2021eko uztailaren 13ko Kontseiluarenak, 2006/112 Zuzentaraua aldatzen dauenak, covid-19 pandemiari erantzuteko inportazioen eta hornidura jakin batzuen aldi baterako salbuespenei jagokenez, egokitzapen hori lurralde erkideko araudian dauka abenduaren 21eko 21/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez, energia barriztagarrien eta energiaren hedapenerako preminazko neurriak hartzen dituen energia sustatzeko. Eta, besteak beste, elektrizidadearen eta gas naturalaren azken fakturaren kostuak murrizten lagunduko daben neurri fiskalak sartzen ditu.

Horretara, aztertzen gabilzan Foru Dekretu Arauemaile honek honako neurri honek ditu ardatz. Elektrizidadearen ekoizpenaren balioaren gaineko zergari jagokenez, 2022ko lehenengo hiruhilekora luzatuko da haren aldi baterako etetea, elektrizidade ekoizleek jasaten dabilzan kostu handiagoak kompensatzeko, prezio lehiakorragoak eskaini ahal izateko eta neurri horrek konsumitzaileei mesede egiteko.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioakaz, salbuespen batzuk ezartzen dira, beti be erosketak pandemiaren aurkako borrokagaz lotzen badira. Gainera, 2022ko apirilaren 30era arte, elektrizidadearen fakturaren osagaiei jagoken %10eko tasa murriztua aplikatzen jarraituko da 10 kW-ko potentzia-termino finkoa gainditzen ez daben kontratuetan, baldin eta handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 45 €/MW/h baino handiagoa izan bada fakturazioaren aurreko hilabetean.

Eta %10eko zerga-tasa bera bonu soziala jasoten daben elektrizidade-hornidurako kontratuen titularren alde egindako horniduretarako, beti be gainera, kaltebera

larriaren edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoan kaltebera larriaren izaera aitortuta badaukie, handizkako merkatuko elektrizidadearen prezioa gorabehera.

Beste alde batetik, 2022ko ekainaren 30era arte, erabili eta botateko maskara kirurgikoen Batasunaren barruko erosketa eta inportazioei %4ko zerga-tasa aplikatzen jarraituko da, pandemia luzatzearen ondorioz maskara horreek luzatu egin diralako edo orokorrean erabili behar diralako.

Eta barruko entregei, inportazioei eta barruko osasun-materialaren erosketei %0ko zerga-tasa aplikatzea be bai, covid19ari aurre egiteko, hartzaileak irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoak eta ospitaleak diranean.

Azkenik, 2022rako Estaduko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2001 Legeak hainbat neurri hartzen ditu zergen arloan. Foru Dekretu arauemaile honetan Balio Erantsiaren gaineko Zergari eragiten deusienak sartzten dira. Zehatzago, 2022ko zergaldi osorako luzatzen dira nekazaritzako eta arrantzako araubide sinplifikatuaren eta araubide bereziaren aplikazio-mugak, 250.000 €tan ezarriak.

Foru dekretu arauemaile honek neurri fiskalak jasoten ditu, Bizkaiko lurralde historikoko gure zerga-sistemara nahitaez egokitzeko. Hori dala-ta, Foru Aldundia behartuta dago Foru Dekretu arauemaile hau emotera, eta ahalmena dauka Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikuluan jasotako baimenari jarraituaz.

Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatzeko, Eusko Abertzaleak taldeak Foru Dekretu arauemaile honen aldeko botoa emon dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Pielo Muguruza. Y pasamos al segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000426](#))

Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Asunto: Acciones para mejorar las intervenciones de emergencias por búsqueda y rescate en montaña.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000426](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (50A)

Expediente: ([11/B/20/0003223](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000426SE](#))

Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Gaia: Mendiko bilaketa- eta erreskate-larrialdietako esku-hartzeak hobetzeko ekintzak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000426SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (50A)

Espediente: ([11/B/20/0003223](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa, por tanto tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egun on barriro be.

Aurreko Kontroleko Osoko Bilkuran interpelazino gisa ekarri genduan gaur egun mendian eta landa-inguruetan desagertutako personak erreskatatzeko eta bilatzeko zerbitzuan gertatzen dan gabezia larria, hau da, Larrialdietako Euskal Zerbitzuaren eskuliburuaren arabera M1, M2 eta COBA taktika operatiboak esaten jakenak.

Egoera hori oin dala gitxi agirira atara zan Elkarrekin Podemos-IUk azken 3 urteetan Bizkaian egin diran mendiko erreskateen eta bilaketen akta guztiak aztertzeke egin dogun lanari esker.

Azterketa horri esker, agirian geratu zan konstante bat: Bizkaian mendiko bilaketa edo erreskate operatibo bat aktibatzen den bakotxean, ez dira kontuan hartzen Bizkaiko Foru Aldundiko basozaintzako ia 80 profesionalak. Eta hori holan da operatibo mota, larrialdiaren larritasuna edo operatiboak irauten dauen denporea edozein dala. Hori muturreraino eroaten da hainbat egunetako operatiboetan boluntario-taldeak mobilizatuta, basozainek abisurik be jasoten ez daben bitartean.

Galdera hori da ebatzi behar zana joan dan hilean areto honetan bertan, Kontroleko Osoko Bilkuran, eta ez zan egin. Eta ez zan egin ezin dalako beste barik, logikarik ez ezelako zentzurik ez daukalako. Zelan aitu daiteke Gorbeia mendian desagertutako gazte baten bila 3 egun emotea eta parke natural horretako basozainek parte ez hartzea.

Zelan da posible larogetaka urteko gizonaren bila hiru egun emotea, urpekariak, txakur-unidadeak, 25 boluntarioko taldeak mobiduta aldi berean, eta Bizkaiko Foru Aldundiko basozain bat bera bez, emisorak eta geolokalizatzaileak daukiezanak izanda.

Hori da gure taldeak igarri dauan eta hona ekarri dogun gabezia larria. Halanda be, Osoko Bilkura honetara ekarri aurretik, Administrazino Publikoen sailari berari be jakinarazo geuntsan, horren larritasuna ikusita, nahi gendualako edo gure asmoa zalako lankidetzatik larrialdietako zerbitzuak be hobetu ahal izatea. Baina ez, tamalez ez zan nahi izan. Zuek ezezkoren gobernua zarie, lehenengo ezetz esaten dozue eta gero ondo badator ikusiko dot zer dan.

Eta galdera nagusiari erantzun beharrean, gaur barriro hemen planteatzen doguna, hau da, zergaitik gure profesionalak ez daben erreskateetan parte hartzen, argudio lauso eta azalekoen sorta bat eskaini euskuen. Eta ziur aski gaur barriro entzungo doguz.

“Atrebentzia litzateke teknikarien lana baloratzea”, Administrazino Publikoaren betebeharra izango ez balitz moduan helburuak beteten diran etengabe ebaluatzea (40/2015 Legea).

“Basogintzako zaintzaileei esleitutako zereginak ez dira eurenak bakarrik”. Egia da, hainbesteraino eksklusibotasun bakarra inongo erreskate-operatibotan ez parte hartzea dala.

«Ez dago frogarik edo txostenik esateko basozainek esku hartu ezkeror erantzun-denporak hobetuko liratekeela». Badago txostenik denporak okerrera egingo leukela dinoanik? Edo horren aurretik be, txosten bat behar dogu jakiteko zenbat eta persona gehiagok parte hartu bilaketa operatibo baten, orduan eta lehenago aurkituko dogula persona hori? Nik ezetz uste dot.

Tamalez, eta errespetu osoz dinot, gure taldetik ez dogu denpora galtzen jarraitu nahi alperreki eztabaidetan. Horregaitik, gaur egun zero kostuko hainbat proposamen

dakarguz, desagertutako personen erreskateetan eta bilaketetan dagoan hutsunea konpontzeaz gainera, Bizkaiko herritarren segurtasuna hobetuko leukienez, eta horreek guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoak dira edo haren esku dagoz.

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari helaraztea Bizkaiko basozaintza eskura daukala. Hau da, telefonoa hartu, Erkoreka sailburuari deitu, eta esan Gipuzkoan, Araban eta gainerako autonomia-erkidegoetan moduan, Bizkaiko basozaintza be prestatuta eta hornituta dagoala operatibo horreetan parte hartzeko.

Bigarren, Bizkaia Prest zentroak basozainek parte-hartzea eskaintzea, suhiltzaileakaz egiten dan moduan. Jokabide horren kostua, barriro be 0. Izan be, aurreko Osoko Bilkuran azaldu genduan moduan, nahiko ohikoa da Bizkaia Prest erakundeak Bizkaiko Suhiltzaileen zerbitzuak mobilizatzea, eskatu barik egonda be. Aktetan jasota dago: “suhiltzaileak prest, noiz deituko zain, suhiltzailerik behar da? Suhiltzaileak zain ondino, noiz eskatuko zain”. Gauza bera egitea baino ez da, ez da protokolorik edo araudirik urratu behar.

Hirugarren, basozaintza guztia Bizkaia Prest Larrialdietarako Zentroan integratzea, orain Mendien zerbitzua dagoanmoduan. Hau da, oso profesional gitxi geratuko lirateke sistema horretan sartu barik. Esan genduan moduan, Legearen arabera, basozainak larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzu publikoak dira, eta agintedun agenteak be badira; beraz, parte hartu ahal dabe eta parte hartu behar dabe eskatzen jakenean larrialdietan. Eta, beraz, Bizkaia Preseko azpiegitura operatibo eukita, egokiena izango litzateke larrialdietan parte hartzeko aukera dauken profesional guztiak integratzea, Bizkaia Presten integratzea eta behingoz Zugaztelen call center inoperatibo horregaz ahaztea.

Laugarren, egiaztatu daitela, larrialdiren bat dagoan bakotxean, Bizkaia Prestetik egiaztatu daitela inguruan baso-agenterik badagoan. Hau da, mendian desagertze edo erreskate bat gertatzen danean, denbora faktorea erabakigarria da, zirt edo zartekoa. Eta holako larrialdi bakotxean, ezer baino lehen, unidateak mobilizau aurretik, inguru zehatzean agintedun agenteren bat edo basozainen bat dagoan egiaztatu beharko litzateke. Eta hori Bizkaiko Foru Aldundiak baino ezin dau egin, Bizkaia Prest zentroak une bakotxean profesional horreen kokapena eta geolokalizazioa badakielako edo jakin leikelako, eta hori Bizkaia Prest zentrotik baino ezin da egin.

Bosgarren, taktika operatiboen eskuliburuaren berrikuspena datorrenean, basozainen kidegoek larrialdiotan parte hartzeko egokitasuna helaraztea. Izan be, diputaduak behin eta barriz aipatu ebanez berrikuspen hori, akats hori arzteztuteko une egokia litzatekeela uste dogu.

Eta, azkenengo, eta amaitu egingo dot presidente andrea, Espainiako Gobernuari eskatzea aurrera aterateko baso-agenteen Oinarrizko Legea, basozainen alkarte eta sindikatuen eskaria,. Horrek esparru komun eta argi bat emongo leuskigu baso-talde guztiontzat, eta halan Bizkaia ez litzateke izango bilaketa-operatiboetarako giza baliabideak gitxiegi erabilten dan lurralde bakarra. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Benito Ziluaga. No se han presentado enmiendas. Pasaremos al turno de grupos. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia señor Andrade Aurrecochea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, egun on guztioi.

Elkarrekin Bizkaiak gaur egin dauen proposamenagaz bat gatoz ia hitzez hitz. Ezagunak dira guk aurrekontuetan urtero egindako zuzenketak, larrialdietako eta basozaintzako taldeei baliabide material gehiago emoteko, edo suteak ikertzeko unidade bat sortzeko baliabideak emoteko, basozaintza horrek hainbeste eskatzen dauena.

Ez doguz ulertzen gobernu-taldeak proposamena egin dauenari emondako erantzunak. Ez dogu ulertzen basozaintza moduko lantaldea hain gitxi erabiltea gure lurraldean.

Gure aisialdia landa-eremuetan igaroteko zortea daukagunok, hiriguneetatik urrintxu, lehenengo eskutik dakigu larrialdiren bat sortzen danean, persona batek landan istripu bat euki dauelako, galdu egin dalako, orkatila apurtu dauelako edo beste edozein gorabehera gertatu dalako, lurralde gehienetan lehenengo basozaineko abisetan jakela, edo inguruan bizi diranei, istripua euki dauenak bere geolokalizadorea eta larrialdietarako aplikazioanoa martxan ipinteko zuhurtzia euki ez badau, danok egin beharko geunkena. Jente horrek normalean larrialdietara deitzen dau non dagoan azaltzen dau, zuhaitz bat jausita dagoalako, arpegi forma daukan harri bat dala-ta, erreka urdin bat dagoalako, dana dalakoa.

Holan kokatzen da jentea larrialdietara deitzen dauenean eta larrialdietakoak ingurura heltzen diranean, basozainak edo inguruan bizi diranak dira ondo baino hobeto ezagutzen dabenak zuhaitz erori hori, edo harri hori, kolore urdinekoa edo aurpegi-formakoa.

Beraz, hasierako minutu horreek, istripu baten, mendian arazotan dagozan personak aurkitzeko, hilalabizikoak dira. Ze behin kokatua, basozainek jakinarazoten deusie suhiltzaileei, Ertzaintzari, gure segurtasun-ekipo bikainei, non dagoan zauritutako pertsona eta zelan heldu behar dan bera dagoan tokira. Eurek dakie mapetan edo GPSan agertzen diran bideak ondo dagozan, lopeztuta dagozan, apurtuta dagozan, zuhaitzak jausi diran, pasorik ez badago... Eurek dakie zelan heldu ondoen ingurura, helikopteroa sartu daiteken... Eurek dakie han dagozalako, hori da euren lana.

Eta ondo baino hobeto ezagutzen dabez mendia eta non dagozan. Larrialdietarako unidadeak gero etorriko dira, ze horreek dira, gure ustez, basozainakaz batera erabagiak hartu behar dabezanak. Ez dot ulertzen Bizkaiko Foru Aldundiak zergaitik ez dituan kontuan hartzen.

Beraz, bat gatoz proposamena egin dauenagaz, Elkarrekin Bizkaiakoagaz. Gure ustez, baliabide hori beharrezkoa izan behar da, eta hasieratik erabili behar dau gure Aldundiak, jentea bilatzeko lehenengo oinarri gisa larrialdi-zerbitzuan sartuta.

Era berean, bat gatoz zuek basozaintzako agenteen legea babesteko edo aurrera ateraten jarraitzeko egin dozuen azkenengo proposamenagaz be. Ze egia da aldea dagoala autonomia-erkidego batzuetan basozainek egiten dabenaren eta beste batzuetan egiten dabenaren artean. Lege hori, gainera, bere garaian onartu eban Senaduak, Mariano Rajoyren Gobernuak onartu eban. Gobernutik atera eban zentsura-mozinoak tiraderan itxi eban baso-agenteen lege hori, eta, antza, trantsizino ekologikoko Ministerioak barriro mahai ganean jarri dau. Baina, tira, zuek han gobernuan zagozie, zuek be presinoa egin beharko zeunkie aurrera aterateko. Oinarrizko lege horrek aitutzen dauen funtzinoetako bat da basozaintzan, maila nazionaleko erespideak bateratuz, bere eginkizunetako bat hori izan behar dala, hau da, 112ko larrialdi-protokoloetan aktiboki parte hartzea. Beraz, baso-agenteentzat ona izango litzateke erespideak bateratuko dituan oinarrizko lege bat eukitea.

Beraz, esan dodan moduan, zuen proposamena babestuko dogu, oso egokitizat jotzen dogu eta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Andrade Aurrecochea. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Mozino hau Elkarrekin Podemos IU taldearen interpelaziotik dator, mendiko bilaketa eta erreskaterako esku-hartzeak hobetzeko ekintzen inguruan.

Euskal sozialistok zuekaz bat egiten dogu bizkaitarren eta mendiko ibilaldietan bisitatzeko gaituen gainerako pertsonen segurtasunagaz daukagun arduraren. Horretan ados gagoz.

Baina ez gatoz bat egoeraren azterketan. Euskal sozialistok, lehenengo eta behin, herritarrei jakinarazoz gura deusegu Euskadin larrialdi-sistema ona daukagula 112 telefonoaren bidez, Bizkaia Prest zerbitzuak osotuta Bizkai osorako, eta ondo dabilena.

Hori da garrantzitsua. Ondo dabilen sistema daukagu, alkarregez osatuta, behar bezala koordinatua, ezarritako protokoloak aplikatuz, eta, batez be, teknikarien erespideetan oinarrituta, eurak diralako larrialdiei buruz dakienak.

Bigarren, larrialdietan esku hartzen daben zerbitzuetako profesional guztien lana eskertu gura dogu. Eskerrik asko zuen inplikazioagaitik, dedikazioagaitik, lanetik harago doa eta.

Baina mozinoa irakurrikeran susmo moduko bat sortzen da mendiko bilaketa edo erreskate kasuetan behar bezala jokatzeko ez dalakoan, edo eskura dagozan baliabide guztiak erabilten ez diralakoan. Eta hori ez da holan. Euskal sozialistok mozino honen kontra bozkatuko dogula aurreratzen deuse, jarraian azalduko ditugun hainbat errazoiagaitik.

Lehenengo eta behin, erreskatea eta bilaketa bereiztu behar dira. Lehenengo egingo doguna da larrialdien munduan bakotxa zer dan ikustea da. Erreskate edo M1etik hasita, istripuren bat euki dauen lokalizatutako pertsona bat da. Horma baten zintzilik egotea izan daiteke, edo orkatila bihurritu eta ibili ezinik egotea. Kontua da dagoan egoeratik erreskatatzea eta behar dauen laguntza emon leion baliabide batera eroatea.

Bigarren kasua, bilaketa edo M2, kokatu bako pertsona bat da, desagertuta edo galdua dagoana; ez dakigu bizirik edo hilda dagoan, edo, bizirik egonda, zein egoeratan dagoan. Kasu horretan, aurkitzea da garrantzitsua, eta aurkitu ondoren, erreskate-fasera igaroko ginateke.

Bereizketa hori oso garrantzitsua da; izan be, 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitartean 806 esku-hartze egin dira mendian, eta euroetatik %90 erreskateak izan dira eta %10 bilaketak. Beraz, ikusten danez, bilaketa da arduraren edo arazo gehien ematen dituan larrialdi-egoera, baina zorionez oso gertatzen da, eta oso garrantzitsua da hori nabarmentzea.

Bigarren, behin aurrekoa argituta, erreskatearen eta bilaketaren barruan mota bi dagoz. Modu automatikoa, dei bat larrialdietako telefonora sartzen danean, egoeraren deskribapenaren arabera, X kode bat sortzen da. Kode horren arabera, baliabide batzuk aktibatzen dira. Barru dinot, automatikoa.

Beste aldetik zeharkako modua daukagu, hau da, larrialdietako teknikariak aurrekoaz gainera beste baliabide batzuk mobilizatzeko daukan bigarren aukera, bere

erespidearen arabera eta jardungo dabenakaz koordinauta. Hori egoeraren bilakaeraren arabera gertatzen da, eta hor egongo litzateke basozainen baliabidea. Hau da, baliabideak egon badagoz eta teknikarien eskura dagoz, eurok parte-hartzea beharrezkoa dala eretxi ezkerero.

Hirugarren, garrantzitsua da azpimarratzea basozaintzako lanak, esan dan moduan, ez dirala eurenak bakarrik, beste zerbitzu eta erakunde batzuek be egin lekiezala. Adibidez, sarbideak definitzeko zeregina Ertzaintzak be egiten dau; laguntza logistikoa emoteko zeregina Ertzaintzagaz, Suhiltzaileakaz, Gurutze Gorriagaz, DYAgaz eta Udaltzaingoagaz partekatzen da; laguntza teknikoa emotea suhiltzaileakaz eta Udaltzaingoagaz be partekatzen dabe.

Laugarren, zuen mozinoko puntuak aztertuta, ikusten dogu lehenengo bostak baten laburtu leitekezala. Basozaintzaileak kasu guztietan bai ala bai jardutea gura dozue zuek, eta guretzat hori ez da garrantzitsuena. Guretzat garrantzitsuena da egon dagozala, existitzen dirala, eta larrialdiaren ardura daukien teknikariek eurak parte-hartzea beharrezkotzat jotzen badabe, esku hartuko dabela. Hau da, teknikariek erabagiten dabenean jardutea. Teknikarien lana errespetatzea oso garrantzitsua dala uste dot.

Eta gero, Espainiako Gobernuari basogintzako agenteen oinarrizko legea egiteko lanakaz jarraitzeko eskatzea dala-ta, ez izan zalantzarik Benito jauna, Gobernua horretan dabilena. Inplikaturako alderdi guztiakaz gabiliz lanean, baita autonomia-erkidegoakaz be. Asko luzatu barik, errealidade bat izango da, eta, gero, erkidegoek egokitu egingo dabe.

Bosgarren, komeni da gogoraraztea larrialdi-protokoloak ez dirala aldaezinak, eta etengabe ebaluatzen dirala, hobetzeko eta eguneratzeko. Batzarretan erabagiten bada baliabide gehigarriren bat behar dala funtzionamendua hobetzeko, zuzentzeko ahalegina egingo da.

Beraz, eta amaitzeko, ikusi dogu baliabideak badagozala, eta beharrezkotzat jotzen diranak mobilizatzen dirala egoeraren arabera eta operatibak markatzen dauenean oinarrituta. Baina, batez be, larrialdia gertatu eta gero, behar diran baliabide guztiak mobilizatzen dira ondorioak eta arriskuak ahalik eta gitxienekoak izan daitezkan. Hori da garrantzitsuena guretzat, Alderdi Sozialistarentzat. Gehiago luzatu neinteke, baina uste dot arrazoi nahikoak dirala zure mozinoari ezetz esateko. Baina, batez be, errazoi nahikoak dira bizkaitarrak eta bisitariak lasai egoteko, gure artean mendiaz gozatzeko orduan ezbeharren bat izan ezkerero. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Ortiz Zaballa. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Rahona Garay.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días.

Gai-zerrendaren puntu honetan, interpelaziotik eratorritako mozino bati helduko edo heldu deutsagu. Hemen gogoratu izan dan moduan, interpelaziotik datorren mozinoa. Eta mozino horretan, sakoneko gaia Ganbera honetan ordezkari-tza daukagun alderdi bakotxaren interesen oso gaintetik dago.

Segurtasuna, Bizkaiko personen segurtasuna edo gure lurraldera hurreratzen diran personen segurtasuna darabilgu, zehazki mendian, landa-inguruetan eta urien kanpoaldean bilaketak edo erreskateak egin ezkerero emoten dan erantzunaz.

Bat egiten dogun puntu batetik hasteko, garrantzitsua da gogora ekartea bai talde interpelatzaileak bai Bizkaiko Foru Aldundiak erakutsitako adostasuna, segurtasunaren eta

larrialdien arretaren interes komunaren ganean, eta arlo horretan emoten dan zerbitzu publikoa ahalik eta onena izan daiten. Euskal Herria Bilduk be bat egiten dau gai horretan.

Beste alde batetik, uste dogu funtsezkoa dala zalantzarik txikiena be baztertzea larrialdien kudeaketaz arduratzen diren teknikarien lanaz, bai Eusko Jaurlaritzaren menpeko dan SOS Deiakekoenaz, bai Aldundiko Bizkaia Prest zerbitzuko enenaz, eskura daukiezan baliabideak koordinatzeko eta mobilizatzeko. Kontroleko Osoko Bilkurako interpelazinoa dala-ta gehien azpimarratu zan puntuetako bat da, eta, beraz, gaur be garrantzitsua da.

Baina puntu horrek jasoten dau, gure ustez, alderdien arteko desadostasunaren errazoi nagusia, gai zehatz bategaitik, eskumen-esparruagaitik. Izan be, larrialdiak kudeatzen dabezan teknikariek egiten dabean lanari zehaztasun bat gehitu behar jako: parte hartzen dauen erakunde bakotxak esleituta dituan araudian eta eginkizunetan oinarrituta egiten dauela.

Herrizaingo sailburuaren 2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartu ziran, eta Larrialdietan koordinazinoa egiteko Esku-hartze Zerbitzua sortu zan. Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Prest zentro koordinatzailearen bidez, dituan baliabideak aktibatzen ditu, beti be 112 telefonotik eskatzen bada alde z aurretik, aitatutako taktika operatiboak argi eta garbi ezarritakoaren arabera.

Pertsona horreek, besteak beste, berehalakotasunaren, hurrekotasunaren, baliabideen eskuragarritasunaren, profesionalizazioaren eta espezializazioaren printzipioetan oinarrituta egiten dabenean, orduan aktibatzen da mendien foru-zerbitzua. Ez gara gehiago sartuko esku-hartzearen sekuentzian eta M1, M2 eta Cova taktika operatiboetan, Etxanobe andre diputaduak xehetasunez azaldu eban eta; beraz, argi geratu zan zer egin behar zan legean xedatutakoaren arabera.

Baina garrantzitsua eresten deusagu konponduta geratu ez ziran beste batzuk aitatzeari, kasurako halako jardueretan mendien foru zerbitzu eskasa. Azaldutakoaren arabera, baliteke esleituta daukiezan lanak eskusiboak ez izatea, beste agentzia edo zerbitzu batzuek be badaukiezalako. Taktika operatiboetan alde z aurretik finkatuta eta tasatuta dagozan zereginak dira.

Zehazki, han gogoratu euskuenez, sarbideak definitzeko esku hartzea Ertzaintzagaz partekatzen dabe; laguntza logistikoa Ertzaintzagaz, Suhiltzaileakaz, Gurutze Gorriagaz, DYAgaz eta Udaltzaingoagaz partekatzen dabe; eta laguntza teknikoa suhiltzaileakaz eta Udaltzaingoagaz partekatzen dabe.

Era berean, diputatu andreak be aitortu eban; ezin dogu baieztatu, esan eban hitzez hitz, zerbitzu horretako personek parte hartu ezker larrialdiei erantzuteko denporak hobetuko liratekeenik. Ez dago azterketarik, ez dago hori egiaztatzeko ebidentziarik. Beraz, ezin da ez baieztatu ez ezeztatu.

Alderdi horretan harritzen gaituena da, hain gai garrantzitsua izanda, barriri dinot, holako operazino sensibleetan personen segurtasuna dagoala jokoan, harrigarria da frogaren bat egin ez izana testau ahal izateko.

Helburu nagusia, esan zan, behin larrialdia gertatuta, ondorioak eta arriskuak minimizatzea da. Argi eta garbi itxi gu dogu, gaur be, inok ez dauela zalantzan jartzen larrialdi-zerbitzuaren funtzionamentua, aurreko hizlariak aditzera emon dauen moduan. Ezpada, gaur egun emoten dan zerbitzua hobetzeko ekimenak landu eta aurkeztu behar dira, lege-esparruan ezarritakoaren arabera jarduteko. Izan be, hori zan puntu honetan planteatutako ekimenei jaramonik ez egiteko behin eta barriz errepikatutako erespeidea. Horrek ez dau esan

nahi perfekzinoa lortu danik, ezta gitxiago be, eta Larrialdietarako Zentroaren aktetan adibideak jasota dagoz, gaur be aitatu diranak nahiko orokorrean, adibidez inkoherezia, erreskaterako boluntarioen taldeak deitzen diranean eta profesionalak ez, mendiko erreskate- eta bilaketa-operazioetarako ingurua ondo ezagutzen dabenak.

Etxanobe andreak esan eban moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa dauka eta beti prest dago bere zerbitzuen kalidadea hobetzeko. Elkarrekin Bizkaia mozino honetan planteatzen dituan puntuek hobekuntza horretan lagundu leikiela uste dogu, eta, beraz, Euskal Herria Bilduk aldeko botoa emongo dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Rahona Garay, y tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días.

Señor Benito, no aceptaremos la moción. Como ha dicho usted antes, primero damos el no y luego lo explicamos.

No compartimos lo que plantean en la moción. Después de escuchar a los expertos en este tema, no estamos de acuerdo con la valoración que ustedes hacen de los protocolos de emergencia, y a decir verdad no sé en que se basan para formular esta propuesta.

Proponen seis puntos en la moción, de los seis dos se están haciendo. del tres al cuatro supondría cambiar el protocolo, y no creemos que eso sea algo a hacer aquí, y no lo aceptaremos. Y el sexto punto no tenemos ninguna intención de aprobarlo.

Estos argumentos son suficientes y sobrados para no aprobar la moción, aunque tengo claro que para ustedes no serán suficientes, y también tengo claro que para defender lo suyo van a poner en marcha su ventilador demagógico habitual, y algunos se lo comprarán.

A mí no me gusta personalizar en los temas que aquí tratamos, y trato de analizar las propuestas que traemos a esta cámara desde un punto de vista amplio.

Pero a menudo no es fácil, escuchando lo que oímos, mantener la calma. Y Señor Benito, lo que afirmó en el Pleno anterior sobre este asunto, las palabras y la actitud que empleó para presentar esta moción, yo no las acepto, y no las voy a dejar pasar así como si no pasara nada.

Este es un tema serio, como lo son los demás, muy serio para mí, y usted afirmó aquí que se está poniendo en peligro la integridad y la vida de las personas, lo que me parece una acusación muy grave.

Cuidado Señor Benito, cuidado, que subir aquí y decir cualquier cosa no vale. Respeto a todos los profesionales y voluntarios que trabajan con gran responsabilidad en esta tarea, respeto.

Y tener respeto es decir la verdad y las acusaciones que se lanzan que al menos estén contrastadas.

Sus palabras concretas fueron estas: “Bizkaiko Foru Aldundiari interpelazinoa egiten deusagu, mendiko erreskateko edo bilaketako larrialdietako esku-hartzeetako hutsuneakaitik, Bizkaia Prestek kudeatuta”. “Bizkaia Presten dago Bizkaiko Foru Aldundiari jagokon akatsaren parte bat”.

No son ciertas, elija usted si se trata de una gran mentira o un gran error, en sus manos está; pero en ningún caso son ciertas.

Erreskate- edo bilaketa-larrialdiak Bizkaiko 112 zerbitzuak kudeatzen ditu. Bizkaia Prest erakundeak foru-zerbitzuen bidalketa kudeatzen dau, eta foru-zerbitzuak larrialdietako teknikariaren edo BZren esku jartzen ditu. Bizkaia Prest enpresak eskatzen diranean dituen baliabideak kudeatzen ditu, basozainak barne, basozainak barne.

Beraz, ez larrialdien kudeaketako akatsik, ez larrialdietako akatsik.

Que no le gusta cómo están hechos los protocolos, que no les gustan las tácticas operativas. Eso es otra cosa, no entiendo el motivo y no lo comparto, pero esa es su opinión y punto. Hay que llamar a las cosas por su nombre.

“Bizkaian 2019tik hona holako 800 esku-hartze baino gehiago egin dira, eta horreetako bakar baten be ez da basozainen parte-hartzerik behar izan. Baten bez, barriro dinot”. Elija usted si se trata de una gran mentira o un gran error, repito, elija usted.

En octubre y noviembre de 2021, en los últimos seis meses, los agentes forestales participaron en dos intervenciones a requerimiento de los responsables de emergencias. En los seis últimos meses dos veces. Por lo tanto, no es correcto.

Si miente usted, o si comete error tras error y trae a esta Cámara una moción, no cuente con nosotros.

Baina horreek bakarrik ez ziran izan hemen botatakoak: “BFAko 80 behargin besoa besoaren ganean ixten dira”.

Respeto a los guardas forestales, ellos tienen su trabajo, una gran e importante tarea, y si son llamados a una intervención también estarán allí, Cuando dice que están cruzados de brazos, ¿qué insinúa, que no trabajan? No creo que vaya por ahí.

Aitamen gehiago: “Euskal Herriko lurralde bakarra da, eta estatukoa be esan geinke, basozainek ez dabena mendiko bilaketa- eta erreskate-eragiketetan parte hartzen”.

Se lo he dicho, participan. De nuevo erróneo. Cuando dice Estado no sé de qué estado habla y me da igual además. Como dicen desde el Departamento del Gobierno Vasco, en Gipuzkoa, Álava y Bizkaia el protocolo es igual. Entonces, ¿por qué dice eso?

Y hay más:

Estaduko legeriari egiten deusazu erreferentzia, babes zibileko sistema nazionalaren 17/2015 legeari, nahita edo nahi bari alde batera itxita, zeuk erabagi, jakin beharko zeunke larrialdiak gestionetako arloan Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen dauen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretua aplikatzen dogula. Ez badakizu, neuk dinotsut.

Larrialdiak Kudeatzeko 1/1996 Legea be aitatu dozu, indargabetuta dagoana. Eta ez dituzu aipatu lurralde historikoek basozaintzaren arloan daukiezan eskumen

espezifikoa, 7.9 artikulua. Hor ezartzen da basozaintza lurralde historikoen eskumena dala, eta ez jagoke Estaduko arau hori aplikatzea. Eta zuk, oker, alegaldideak leporatu deuskuzuz.

Para rematar, finalizó su intervención del mes pasado afirmando que el Diputado General en la presentación de Bizkaia Prest había mentido. ¿Quién está mintiendo aquí señor Benito?

Nunca he visto en una intervención de 9 minutos proferir tantas mentiras o lanzar tantos datos incorrectos. No le voy a llamar mentiroso, no caeré en esa mala costumbre que usted tiene. Son datos incorrectos, sus argumentos están plagados de omisiones o usos torticeros, y también de palabras inadecuadas. ¿Y con todo eso, nos pide nuestro voto favorable? Así no se puede aprobar nada, ni este ni ningún otro tema. Si de verdad quiere mejorar algo, si quiere mejorar el servicio, traiga propuestas basadas en una buena intención o basadas en datos correctos. Entonces hablaremos, y ya se verá si aceptamos o no. Hasta entonces, con toda educación, le solicito que retire la moción

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Gauza asko esan dira, lehengo egunean egin neban hitzaldia asko aitatu da.

Lekerikabeaskoa jauna, osorik erreproduzidu zeinke, baieztapen guztiak berresten doguz eta. Eta baieztapenak ez eze, frogak be emon ditut, erregistroan dagozan erreskateen aktak.

Zeuk ikusi zein, esan basozainak ia zenbat operatibotan parte hartu daben, baina mendiko erreskate eta bilaketa operatiboak dinot. Zuk 2021ekoa aitatu dozu. Faltsua, ez eben parte hartu, ez dabe bakar batean be parte hartu. 2022ko urtarrilaren leian baten parte hartu dabe, eta badakizu zergaitik parte hartu eben. Larrialdietako zerbitzuak Urkiolako parkearen erdian aurkitu ebezalako, horregaitik parte hartu eben, ez beste ezergaitik.

Esan dozu neurriren bat honezkero egiten dala, adibidez, bigarren neurria, basozainen parte-hartzea eskaintzea. Barriro be faltsua, faltsua, aktetan baten be ez da jasoten Bizkaia Prestek basozaintzaren erreskatean parte hartzea eskaini dauenik. Oстера, Bizkaiko Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuen, suhiltzaileena, ia operatibo guztietan.

3. neurriak, basozaintza Bizkaia Prest integratzeak, protokoloak aldatzea eskatzen dauela esan dozu. Hori be ez da egia, eta aldaketaren bat behar badau, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldaketa bat da, eta oso aldaketa txikia da benetan, Mendien Zerbitzua Bizkaia Presten barruan parte hartzen dauelako honezkero, eta emaitza onakaz ganera esan geinke. Beraz, 15 bat profesional geratuko dira integratzeko. Nire ustez, neurri horrek emon leiken emaitza onerako, ez dot uste protokoloa aldatzea aparteko neurria danik, neurri hori hartzeagaitik Foru Gobernua geldituazazoko dauena.

Bai, gai serioa da. Gai serioa da, esan dodan moduan zuek hona etorri eta esateko zereginak ez direla esklusiboak, teknikarien lana ez dala baloratzen. Beitu, Administrazioaren betebeharra da. Zuk badakizu zer dan administrazio publiko bat, legezko betebeharra daukala une bakoitzean hartzen dituan neurriak ebaluatzen. Eta jakina, teknikariek egiten daben lana ebaluatu behar dau, hobetzeko, hobetzeko. Ze hori da mozino horren kontua, laguntza-zerbitzuak hobetzea. Ezin deustazu mozinoa kentzeko eskatu, mozioa erretiratzeko eskatzen badeustazu, defentsiban jarri zaralako da, eta hori egiten dozue beti, defentsiban jarri,

ezetz esan, ostondu, zerbitzua hobetzea dakarren proposamen bat onartu edo horri buruz berba egin beharrean.

Ez endredau gaiari buelta emoteko argudioakaz. Gaia oso argia da, eta galdetu neban, behin baino gehiagotan galdetu dot, eta barriro galdetuko dot argi eta garbi Ganbera honetan, eta herritarrei be bai. Mendian galtzen bazarrie, zer gustatuko litxakizue profesional batek erreskatatzea, edo ingurua ezagutzen dabenek profesionalak bilatzea, bai ala ez. Zuek, Alderdi Popularreko bozeramaileak esan dauen moduan, mendian istripuren bat badaukazue, zer dozue nahiago, egiaztatzea larrialdi zerbitzuren bat gertu dagoan, edo ordu erdi itxaron behar izatea, ordubete, baten bat Jainkoak daki nondik heldu arte? Hori da kontua, izan gaitezake serioak. Gai serioa bada eta benetan arriskuan jartzen bada uneren baten larrialdi-zerbitzu bat behar dabenek personeren osasuna, jarri gaitezake serio eta konpondu daigun arazoa.

Euki doguz, barriro esango dot, hiru egunetan boluntarioak, 25 boluntarioko taldeak, Gorbeian mendizale baten bila, eta ingurua ezagutzen dabenek profesionalak, Gorbeia Parke Naturalean behar egiten dabenek, besoak kurutzatuta. Zerbitzu ona dala esan zeinke. Baina ez da. Eta serioak izan behar dogu, akatsen bat badago ikusi, zuzendu eta beste zerbaitekin ekin gero. Ez tematu ezezkoan, zeuenari eusten, ostonduten, ukatzen eta gordeten, ze horregaz hemen gai honetaz eztabaidatzen gabiliz, beste zerbaitekin ibili beharrean, zerbitzu hobea batez.

Larrialdiak gaizki dabilzako susmoa zabaltzen nabilela esan deustazue. Ez da susmoa, errealitatea baino, argi eta garbi dinot. Eta zuk, barriro esango deustut, aktak daukazuz hori holan dala egiaztatzeko.

Zereginak beste profesional batzuk partekatzen dabez? Bai, baina ez dabe bat be beteten, hori da kontua, daukiezan zeregin guztietatik bat bera be ez dabela garatzen. Eta legea aitatu dodala, Larrialdiak Kudeatzeko Legaren 34. artikulua baliabideen mobilizazioa aitatu dau. Eta 2. puntuan honako hau dino: mobilizazioa berehalakotasunaren printzipioetara egokituko da, eta printzipio hori ez dira beteteni; toki-hurrekotasunera be ez da beteten, ez dalako egiaztatzen inor dagoan; profesionalizaziora, beteten ez dana, boluntarioei deitzen jakelako profesionali baino lehenago; eta esku-hartzaileen espezializaziora, hori be ez dana egiten, larrialdia gertatu dan ingurua ezagutzen dabenek personei deitzen ez jakelako. Orduan serioak izan gaitezake, eta arazoren bat dagoanean, eten daigun.

Dana dala, uste dot diputaduak behin baino gehiagotan aipatu ebala taktika operatiboen berrikustearena. Nik behintzat espero dot beste batzuetan moduan gertatzea, txarto jokatzen dala jakin, eta protokoloen berrikuspen hori heltzen danean horren arabera jokatzea. Baina, era berean, espero dot laster berrikustea, ordura arte larrialdietako erreskateetako arriskua zure kontura doa-ta.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Ni behintzat ez nator bat eztabaidaren tonuagaz. Ez nator bat azkenengo baieztapenakaz beroaldian, larrialdi-zerbitzua txarto kudeatzen dala esateagaz ez nator bat.

Hobetu egin daiteke, bai, eta horretarako babestu dogu proposamena. Ezin da esan txarto dabilenik, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako larrialdi-zerbitzuek, eta orokorrean Estatu osoko larrialdi-zerbitzuek nahiko ondo eta oso ondo funtzionatzen dabelako, eta Ertzaintzaren erreskate-unidadeak ondoen baloratutakoen artean dagoz, gure

suhiltzaileen moduan. Beraz, txarto funtzionatzen dabela esatea, Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak esan dauen moduan, okerra dala uste dot. Ezin da hori esan, jendeak ezin dau informazino hori hartu.

Gaurko helburua, nire ustez, proposamena hobetzea zan. Eta ulertzen dot Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariaren haserrea, interpelazinoagaitik beharbada. Baina, era berean, gaur emon dozun erantzuna, diputatuak emon ezker, behabada mozino hori ez egotea ekarriko eban, edo gitxienez mozioa aztertzeke darabilgun tonu beroa.

Nik gauza bera esango dot, gure larrialdi-zerbitzuak onak dira, baina hobetu egin daitezke. Proposamena egin dauenak egin dauen txostena zabala da, eta, larrialdi guztiak aztertuta, eta zuk esan arren kasu batzuetan ez dala esku hartu, esku hartu egin da. Proposamena egin dauenak larrialdietako esku-hartze guztiak aztertu ditu, eta argi ikusten da, azaldu dauenez, ez jakola abisurik emoten gure basozaintzari.

Nik, esan dodan moduan, nire esperientziagaitik, uste dot basozaintzari deitu behar jakola bilaketa bat dagoan guztietan, batez be, eta erreskate bat. Eta basozaintza ez dago erreskatatzeko, ez jendea fisikoki erreskatatzeko, baina bai erreskate lekuetara heltzeko, beharrezkoa bada basozaintza. Ertzaintza bidezidor baten ertzeraino heldu daiteke, baina ez daki menditik doan estarta ondo dagoan ala ez. Hori basozain batek daki, mendian dabilen ertzain batek badaki, baina basozainek baino gitxiago. Beraz, garrantzitsua da eurek parte hartzea, eta bilaketetan nor hobea eurak edo inguruan bizi diranak baino, persona bat orkatila bihurtuta itxunduta, edo galduta egon daitekeen lekuetan bilatzeko.

Nik uste dot gaur Osoko Bilkurara ekarri dan proposamena zerbitzua hobetzeko zala, eta uste dot Aldundiak halan egingo dauela, zerbitzua hobetuko dauela. Nik uste dot basozaintzailean zuzenago, berehalakoago, jentearen bilaketetan eta erreskateetan sartzea, erreskatearen lehenengo faseetan, garrantzitsua dala. Eta horregaitik babestu egingo dogu mozinoa. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Andrade Aurrecoche. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascon, señor Ortiz Zaballa.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias de nuevo. Baretu daigun apur bat eztabaida, larrialdia bertan eukiko dogu-ta ezpabere.

Euskal Sozialistentzat personak dira garrantzitsuena, eta argi eta garbi itxi gura dogu larrialdi-sistemak ez dauela baliabiderik erabili barik ixten erreskatea edo bilaketa egiteko. Ez da baliabide bakar bat be ixten, eta ez dakar bape mesederik hemen esan dana esateak. Eskertzen ditut Andrade jaunaren hitzak, zuzen dagoala uste dot eta.

Bigarren, azpimarratu behar da larrialdi-sistema ona daukagula, etengabe hobetzen doana eta etengabe ebaluatzen dana. Hori oso garrantzitsua da. Sistema horreek ez dira mugiezinak, etengabe aldatu eta ebaluatu behar dira. Bai, Benito jauna, etengabe ebaluatzen dira, baina horrek ez dau esan gura zuk dinozuna egin behar ez danik. Ze gaur tribuna honetara igon zara, eta nik ez dakit Benito jaunak berba egin dauen edo teknikari batek. Egia esan, teknikari bihurtu zara. Ni ez naz teknikaria, ni ez naz teknikaria, baina teknikariakaz berba egin dot. Baina ez dot larrialdi-zerbitzuek txarto funtzionatzen dabelako susmoa sortu nahi. Erabateko falazia da. Larrialdi-zerbitzuek oso ondo funtzionatzen dabe, baina batzuetan emaitza ez da gura dana, baina oso ondo funtzionatzen dabe.

Eta, hirugarren, basozaintza benetan jarduten dauela, beste batzuetan esan dan moduan, jardutea jagokonean. Hau da, larrialdi horren ardurea daukien teknikariek erabagizen dabenean jardun egin behar dabela; jardun behar badabe jardun egiten dabe, eta jardun behar ez badabe, ez dabe jarduten. Batzuetan persona gehiago eegoteak ez dakar emaitza hobea izatea, ez dago korrelaziorik, persona zehatzak izan behar dira, zer egin behar daben dakienak, eta ez gehiago. Kasu horretan, baliteke emaitza ez izatea espero zana.

Eta, beraz, nik uste dot herritarrei esan behar jakena dsla larrialdi-sistema ona daukagula. Dana doa hortik, larrialdi-sistema ona daukagu, eta aztertzen gabilzan gaian, gure mendiez lasai gozau daitekeela uste dot, baina kontuz. Baina hori itxi gura dogu argi. Horregaitik, ezezko emongo deusagu zuek hemen aurkeztu deuskuzuen mozinoari. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Rahona Garay.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Gracias de nuevo. Egia da apur bat harrigarria dala zenbait hitzaldiren tonua. Nire taldearen lehenengo txandako esku-hartzearen lehenengo puntuetako baten esan dogu interes alderdikoiak puntuaren eztabaidatik kanpo dagozala, hain zuzen be sakonean dagoan gaiagaitik, Bizkaiko edo Bizkaia bisitatzen daben personen segurtasuna, mendiko erreskateko larrialdi-egoeretan. Egia esan, azkenean emoten dau gai nagusi hori alde batera geratu dala, eta azkenean erretorika nagusitu da. Erretorika horrek egin dau, nire ustez, Lekerikabeaskoa jaunak neurritz kanpo eta erabat defentsan jardun izana, fokua talde proposatzailearen interpelazioaren erretorikan edo berba zehaztetan jarritz, edo mozinoaren punturen baten, horrelako egoeretan jarduteko protokoloen funtzionamentuaren akatsen edo hutsuneen gaian. Baina ez benetako puntu garrantzitsuetan, hau da, protokoloa hobetu daitekeen ala ez. Eta uste dot azkenean Ganbera honetako ordezkari guztioi jagokula gai guztietan proaktiboak izaten ahalegintzea, ahal dan neurrian hobetzeko, eta gehiago kasu askotan personen bizitza jokoan dagoanean.

Gainera, ez dogu bape zalantzarik euki proposamen honek ez ebalu aurrera egingo; izan ere, Kontroleko Osoko Bilkuran diputaduaren erespidea, interpelazioa zala-ta, argia izan zan. Kontua da gaur desadostasun pixka bat egon dala diputadu andreaken ustez gaiaren inguruko ekimenak ez onartzeko emon ebazan arrazoiak dirala-ta, hau da, ezarritako lege-esparrua. Foru gobernuko taldeen ordezkariak planteau dabe, funtsean esan dabe sistemak primeran funtzionatzen dauela eta, beraz, nok daki etorkizunean aldaketaren bat egin daitekeen, baina ez gaur egun. Eta horrek talka egiten dau Benito jaunak mahai gainean jarri dituan erreferentzietakoren bategaz. Eta barrero esango dogu, Talde Sozialistaren ordezkariak bere hitzaldian esan barri dau: gehiago ez du zertan hobea izan. Nik uste dot inok ez dauela esan gehiago hobea izan behar dauenik, baina ez da koherentea erreskate-operazio baten boluntario-talde bat egotea, kualifikatutako eta prestatutako beste talde tekniko bat eragiketa bererako aktibo ez dagoanean. Hori inkoherentzia bat da, edozein lekutatik begiratzen dala, nahiz eta legez jokatu, hori inork ez dau zalantzan jarri.

Gainera, nik uste dot diputatu andreak Kontrol Osoko Bilkura horretan esandakoa indartuko leukela. Han azpimarratu eban Bizkaiko Foru Aldundia prest dagoala zerbitzuen kalidadea hobetzeko. Eta, agian, egokia izango zan balorazio bat egitea, esan eban, protokoloa aldatu ahal izateaz gainera, behin taktika operatiboak eginten diranean. Eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak be emon leike erespideren bat behingo baten hobetu daitekezan gaiei buruz, eta ez etorkizunean.

Eta hitzaldiaren hasieran esan dogunez, guk uste dogu egiten dan proposamena guztiz koherentea dala, proaktiboa dala, personen segurtasunaren mesederako eta une honetan lantzen gabilzan zerbitzu sensiblearen mesedetan dala. Eta horregaitik berresten dogu proposamena egin dauen taldearen aldeko botoa. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Rahona Garay. Tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Gracias señor presidenta. Aquí no hay interés partidista ni retórica que valga, señor Rahona. Lo que no voy a aceptar es decir cualquier cosa. Como ya he dicho, no vale decir cualquier cosa, las afirmaciones que se hagan deben ser precisas, y más en una cuestión como esta, porque estamos cuestionando el sistema.

Hicimos una visita a Bizkaia Prest, todos estuvimos invitados allí, y los protocolos están definidos. Si se analiza un poco lo que aquí se cuestiona, cuál es el trabajo técnico de los responsables, y ¿por qué? En los protocolos de Coba, M1, M2 hemos dicho que se aplican automáticamente bomberos, Ertzaintza, Osakidetza y EZ o dicho responsable. ¿Por qué? Porque los que salen están en activo 24 horas al día 365 días al año. Y luego ese responsable decide utilizar todos los demás recursos en diferido. Y en esos recursos se incluyen los guardas forestales. Entonces, ¿a qué viene este debate? ¿Qué queremos, meter automáticamente la guardia forestal? No tiene sentido, no se puede hacer así. Otros voluntarios aparte de los guardas forestales. Diferencias entre voluntarios. Cruz Roja y DYA son voluntarios. ¿Cuestionamos el trabajo de los voluntarios? No creo que nadie ponga en duda el trabajo de los voluntarios. ¿Dudamos del trabajo de los guardas? No dudamos de la labor de los guardas forestales. Pero ponen en duda la labor de los responsables, porque lo que he dicho, a él le corresponde decir cuando llega al lugar que llega: necesito guardas forestales, envíen guardas forestales, el protocolo está en marcha. Entonces, ¿a qué viene este debate? Uno.

Y dos. Yo vengo de un entorno rural y habré participado en todas las búsquedas o rescates que ha habido allí durante los últimos 25 años porque me correspondía por mi responsabilidad en el Ayuntamiento o por lo que sea. Algunos acabaron bien, otros lamentablemente no, incluso perdí a un amigo.

¿Qué es lo importante en ese caso? Coordinación adecuada por parte de los responsables y trabajo de los voluntarios. Que yo diga aquí, es mucho decir, ¿conoce alguien los terrenos mejor que el guarda forestal? Sí, cualquier baserritarra, vecino de la zona, que transita a diario por esos caminos, conoce mejor el terreno. Entonces ¿por qué ponemos el foco en los guardas forestales señor Benito, por qué? ¿Por qué ponemos el foco sólo en los guardas forestales?

Lo importante no es quién, lo importante es un buen mando y coordinación, y la participación lo más amplia posible o el mayor número de personas en este sentido. Y yo aplaudo el trabajo de los voluntarios, la DYA, la Cruz Roja, las asociaciones caninas, todas las asociaciones que realizan trabajos subacuáticos, esas también, todas ellas aportan mucho y no plantean un acceso automático, pero todas hacen bien su trabajo. Lo que he dicho entonces, no cuestionemos ni pongamos en duda el sistema. Y respetemos el protocolo tal y como está establecido no desde la valoración política, sino desde la valoración técnica. Y las mejoras, las que quieren implantar o las que tienen más interés han de implantarse, los profesionales están en ello. Y a nosotros, a los demás, nos corresponde tratar de adaptarnos a sus demandas con todos los servicios disponibles.

En el caso de Bildu me ha sorprendido otra cosa, señor Rahona. Nadie ha mencionado aquí la soberanía de la gestión de los guardas forestales. Lean lo que se dice en el punto 6. En el punto anterior hacemos una reivindicación de la soberanía en las cuestiones fiscales, y en este caso en que la competencia es nuestra, en el punto sexto, dirigimos la petición al Estado. Creo que es una contradicción. Y señor Aurrecoechea del PP, ya lo ha dicho en otros plenos, más recursos para los guardas, pero eso no se discute en este pleno, no tenemos ninguna duda sobre los recursos. Ellos dicen que tienen recursos, que todo está bien pero que hay que implementarlo en las tareas de emergencia.

Por lo tanto, lo dicho. La próxima vez que salga también, no voy a permitir que se diga cualquier cosa. Y es importante lo que se dice, lo que expresamos y transmitimos al ciudadano. Y la moción es importante, pero eso también lo tendremos siempre en cuenta. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. Y terminado el debate, debemos someter a votación la moción. Votos a favor de moción, votos en contra, abstenciones.

El resultado es el siguiente: en total se han emitido 48 votos, de los que han sido a favor 16, en contra 32, y no ha habido abstenciones. Por lo tanto no se aprueba la moción.

El tercer punto del orden del día es:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000434](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: Mantenimiento de la ausencia de ayudas a los usuarios de la AP-68.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0000434](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (51A)

Expediente: ([11/B/20/0003227](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000434SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: AP-68 autobidearen erabiltzaileek oraindino laguntza barik jarraitzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000434SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (51A)

Espedientea: ([11/B/20/0003227](#))

Por lo tanto, tiene la palabra el señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Gaur, otsailak 23, asteazkena, goizeko 10:30ean, bizkaitarrek AP-68ko bidesaria osorik ordaintzen jarraitzen dabe. Hori dala-ta, otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran gauzatutako interpelazioaren ondorio dan mozinoa eztabaidara ekarri nahi dogu. Zer neurri hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diran eta AP-68ko bidesaria erabilten daben personek AP-68ko azpiegituraren laguntza barik jarraitzea eragiten dauen politika zuzentzeko?

Zer erantzun hartu genduan otsaileko Osoko Bilkuran? Errespetatua dala, batzorde tekniko bat dala, aldebakartasunaren kultura dala, hitzarmena dala, emakida dala, emakidaduna dala, eta zelan ez, errua Alderdi Popularrarena zala dinoen komodina.

Baina egia da, gaur eta atzo, bihar eta gaur, eta beti bardin, bizkaitarrok AP-68ko bidesariaren zenbateko osoa ordaintzen jarraitzen dogula, ezelako hobaririk eta diru-laguntzarik gabe.

Zuek zarie AP-68 autobidea igaroten dan lurralde bateko gobernu bakarra, herritarrei bidesaria osorik ordainduarazoten deusazuen. AP-68 autobidea Bizkaitik, Arabatik, Errioxatik eta Aragoitik igaroten da. Araban, Errioxan eta Aragoi bidesarietarako hobariak dagoz. Herritarrek beren bidesaria osorik ordaintzen daben administrazio bakarra Bizkaiko Foru Aldundia da, bizkaitarrentzat diskriminazio eta desparekotasun egoerak mantenduz.

Aurreko Osoko Bilkuran esan neutsuen moduan, erabiltzaile bizkaitar bat doan ibil daiteke Errioxatik igaroten dan AP-68ko tarte transferitu bako batetik, baina Bizkaiko zatian ez. Pradales jaunak iragan Osoko Bilkuran esan eban hobaririk ez egotearen errua Alderdi Popularrarena dala, eta oster, Alderdi Popularreko gobernuak izan dira, hain zuzen be, AP-68ko bidesarirako hobariak lehenengo lortu ebezanak.

Errioxako Alderdi Popularreko Gobernuko alderdiak eta Espainiako Alderdi Popularreko Gobernuak, 1999ko apirilean, hobariak ezarri ebezan Errioxako bidesarietarako, eta gaur arte mantendu dira. Alderdi Popularraren Gobernuak izan zan 2001. urtean Araban bidesari sozial bat ezarri ebana AP-68 autobidearen erabiltzaileentzat, hori be mantendu izan dana.

Alderdi Popularra izan zan zuekaz aurrekontu-akordio batera heldu zana, autobide horren erabiltzaileei 900.000 €ko diru-laguntza emoteko. Aurrekontu-akordio horretatik ez zenduen diru-laguntza hori bete, Gobernu zentralaren oposizioaren atxakian, esan zenduenez. Baina aurreko Osoko Bilkuran esan neutsuen moduan Gobernu zentrala ez da bape beharrezkoa, borondate-kontua da, zuen aldebakarreko borondatea.

Eta hobaririk eza zuzitzen jarraitzeko, gaur uste dot kontzesinoa luzatzea gure errua dala dinoan erretolikara joko dozuela barriro. Zuek zeuek amaituko dozue A8 autobidearen 2003ko kontzesinoa, adostu zan moduan autobideko bidesaria kendu beharrean, sasi-kontzesionario bihurtzea erabagi zenduen, gaur egun arte dirua batzen jarraitzeko.

Hobaririk ez ezartzeko, joan dan hilean zuek konplexutasun tekniko eta juridiko handiko oztopoak deitzen dozuezanetan ezkutatu zinen, azterketa konplexuen zain. Beste administrazio batzuetan, barriz, esan deusuedanez, transferentzia eta kudeaketa euki barik, bidesariaren hobariari estaldura juridikoa eta teknikoa emotea lortu dabe. Hobari hori ez dau ezarri nahi izan Aldundi honek, eta Foru Dekretu soil bat baino ez dau behar.

Izan be, geure buruari galdetzen deusagu: AP-68 autobidea igaroten dan lurraldeetako gobernu guztiek salbuespenak edo hobariak lortu badabez, eta hori eragozten dauen bakarra Bizkaiko Aldundia bada, ez da gatxa ondorioa ateratea borondate politikorik eza dagoala, edo Foru Aldundiaren gaitasun eza.

Eta zer gertatu da azkenengo hiletik, interpelatu geuntsuenetik? Ba gauza oso larri bi: hobari-hitzarmen baten orde, administrazio arteko hitzarmen bat ekarri deuskuzue Ganbera honetara, edo ekarriko deuskuzue, Autonomia Erkidegotik igaroten dan AP-68 autobidearen tartearen gaineko eskumenak arautu eta koordinatzeko administrazio arteko hitzarmena. Ganbera honetan hainbeste bider berba egindako hitzarmena, denporan hain atzeratua, hobariak ezartzeko gorengoa izango zala emoten ebana, baina ez dau hobaririk

jasoten, ez dau ordainleketan hobariak ezarteko aukerarik emoten. Izan be, non geratzen dira hitzarmen horretan? Inon bez.

Zer gehiago atera da hilabete honetan, onartu dogunetik, interpelazino honetaz berba egin genduanetik gaur arte? Bizkaiko errepideetan, autobideetan, bidesari barriak ipini dozuezala jakinarazi dozuela. Beraz, hobaririk ez emoteaz ganera, bidesaria ipiniko deustie gure errepideetan dabilzan kamioilariei. Eta hori oso larria da, hobarien ganean berbaz ibili, eta esan dodan moduan, hobaririk emon ez, eta bidesaria jarriko dabe. Egoera halangoa izanda, garraiolariak greban dagozala. Hiru sindikatuko ordezkari batek garraioaren kostua neurritz kanpo igon jakela aitatu eba, gasolioa aitatu eban, eta zalantza barik euskal lurraldeetan bidesariak ipinteaz berba egiten eban, ze Gipuzkoan honezkero ipini dabez, eta kendu egin behar zirala esaten eban. Ez, zuek kobrau egiten dozue, eta bidesari gehiago jarri nahi dituzue.

Orduan, bidesari hau ezartzen dozuenean eta garraiolariari Rontegi igarotearren edo Kanpazar edo Urduña igotearren 6 € ordainarazoten deustezuenean, zer esango deustezue. Oraingoaren ganean, greba gitxi izango da ordaindu beharko dabela jakiten dabenean gertatuko danagaz; esan deustuet, 6 € Rontegi igarotearren edo Barazar igotearren, orain doan diranak.

Espainiako Gobernuari gasolioaren prezioa jaisteko berehala neurriak hartu daizala eskatzen deustazue, baina ezkerreko eskuagaz, esan dodan moduan eta komunikabideek dinoenaren arabera, urrian bidesari bat ipini gura dozue. Onartezina iruditzen jat.

Ez gatoz bat zuek planteatzen dozuen zuzenketeagaz, bidesariari eusteko tematuta jarraitzen dozue-ta. Zuen zuzenketa ostondtu egin gura dozue, gastuen muga-sistema bat ezartzearen bideragarritasuna aztertze atxakian, orain bideragarritasun-azterketa bat egin gura dozue. Ez dogu ulertzen, guk sei hilabete emoten deustueguz. Gure ustez gaur zuzentzeko aukera daukazue, zuzentzeko hobaria ezarriz, hori dalako hobetuteko modu bakarra; eta gure ekimena onartzeko, sei hilabeteko epean AP-68 autobidearen erabiltzaileentzako bidesari-gastuetarako diru-laguntzak ezarri daitezcan, AP-8 autobidearen, Metropoliko saihebidetaren eta Artxandako tunelen erabiltzaileen kopuru bardinakaz, eta diru-laguntza berberakaz. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Andrade Aurrecochea. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Gracias señora presidenta. Egun on batzarkideak. Egun on, baita sare sozialen bidez gure jarraitzen gaituzuen guztioi be. Eskerrik asko, baita be, Osoko Bilkura hau egitea eta jendartean zabaltzea posible egiten dozuen profesional guztioi.

Mozino hau proposatu da, Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu deioen sei hilabeteko epean azpiegitura horreek erabilteko lurraldeko gainerako azpiegituretako parametro berberak sartzeko: AP-8 autobidea, Metropolien Hegoaldeko Saihebidetia eta Artxandako tunelak.

Lehenengo eta behin, adierazi gura dot txostengileak akats bat egin dauela, azpiegituretako diputatua esan gurako eban, eta ez garraio-diputatua, proposamenean jartzen dauen moduan. Dana dla, lehenengo eta behin, Talde Sozialistaren jarrera azalduko dot, hau da, foru-titulartasuneko eta -kudeaketako azpiegitura guztiak gastu-mugaren sisteman edo tarifa lauan sartzea. Izan be, zeozelan azpiegitura horreen erabiltearen menpe dagozan erabiltzaile guztiak formula horregaz diru-laguntza handia jasoko dabe sarritan erabili ezkeru.

Halanda be, Alderdi Popularreko proposamengileak egin dauen kontakizunean alderdi batzuk ahaztu ditu, oso garrantzitsuak diranak bere ekimena egiteko, ezagutzeko eta behar bezala justifikatzeko. Ahaztu dau bere alderdiak, Alderdi Popularrak, luzatu ebala enpresa pribatuaren emakida-epea, hau da, ustiapen-aldia 2016ra arte. 15 urte. 2011n amaitzen zan emakidak zituenak baino urte gehiago, eta egia bada be titulartasuna transferitu dala, 2026ra arte ez dira bizkaitarren esku geratuko titulartasuna eta kudeaketa.

Beraz, hemen eta orain daukazu gaitasun politikoak ezin dau estali zure alderdiak erakutsi ebana, eta egin eikeana AP-68 honen 15 urteko emakida epea ez luzatzeko beste tramite barik. Beraz, horixe da egia.

Sozialistok daukagun benetako gaitasuna eta borondate politikoa da kudeatzaile pribaduei emakidak emoteko epeak ez luzatzea, eta euron publikotasuna ezartzea. Hau da, Pedro Sanchezen gobernuak azkenengo urteotan egin dauena eta erakutsi dauena. Eta horrek erakusten dau sozialisten benetako errealidade politikoa.

AP7, AP2 eta C32 eta C33 errepideen zenbait tarteren adibidea jarriko dot. Beraz, abestiak inoan moduan, ez da gauza bera.

AP-68 autobidean gertatzen dana behin baino gehiagotan azaldu dogu Ganbera honetan. Ixten badeustazu, aurreko mozinoan erabilitako adibide bera erabiliko dot. Ondasun bat heredatu dogu, imajinatu pisu bat, kasu honetan AP-68ko azpiegitura, baina maizter bat dauka, maizter bat dauka AVASA izeneko esleipendun baten barruan, eta etxebizitza horretan biziten jarraitzeko kontzesinoa dauka; hau da, beste 15 urtez gai hori ustiatzen jarraitzeko. Hau da, titulartasuna gurea da, baina kudeatzailea 2026ra artekoa da.

Beraz, hobarien, diru-laguntzen edo gaur eguneko emakidadunaren kudeaketan esku-hartzeko egindako edozein sistema guztion artean ordaindu behar da, AP-68 autobidea erabili edo ez. Eta hori be azaldu behar da, demagogia apur bat erabilten dala pentsau ez daigun. Gainerako egiturak bezala bihurtu eitekean, gaur eguneko emakidadunari kudeaketa 2026ra arte luzatu ez baleutso.

Izan be, kudeaketa-epea ezarrita, Alderdi Popularraren Gobernuaren graziaz ordaindu egin behar jako, beste 15 urtez luzatu eutsalako kudeaketa-epea. Honezker 2022ko aurrekontuetatik 8,5 milioi euro bideratzen dira bidesari-azpiegituren erabiltzaileak konpentsatzeko bizkaitarrek erabilten dabena gaitik.

Kontuan izan behar da konpentsazio horretan erabilten ditugun baliabide guztiak beste ekintza batzuetatik kendu behar dirala: egoitzetatik, errepideen hobekuntzetatik, inbersinoetatik. Lehen esan dodan moduan, doan ezingo da izan 2026ra arte.

Beraz, beste lurralde batzukaz konparatzekotan ikuspegi horretatik egin behar da; beraz, erabiltzaileei diruz laguntzen jaken guztia emakidadunari ordaindu behar jako herritar guztien artean, azpiegitura hori erabili edo ez. Eta holan justifikatuago geratuko litzateke zure mozinoa, bestela demagogia-sundea dario: PPK gobernatzan dauenean enpresa pribaduari emakida zabaltzen deutso, eta gobernuan barik oposizioan dagoanean, dana doan da, diruz lagunduta. Tira, badakigu.

Edozelan be gehiago zehaztuz zure mozinoan planteatzen dozuna, ze zuk onartzen dozu gure lurraldean dagoeneko ezarrita dagoan gastu-mugaren formula osatu behar dala, esango deutsut zure ekimenari zuzenketa bat egitea proposatzen deutsugula, oinarrian zure asmoa jasoten dauena. Eta, bestalde, gobernuari eusten deutsagun taldeok aspalditik defendatzen doguna da AP-68 autobiderako. Horrek esan gura dau, behin Batzorde Teknikoaren lanak amaituta, Titularidadea eskualdatzeko Errege Dekretuan aurreikusia, bai segurtasun juridikoarena, bai iruzurra saihesteko datuak babesteko legea errespetatzearena, sistema

informatikoen bateragarritasunarena eta beharrezkoa dan inbersinoarena, Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu deioela, enpresa kontzesionarioagaz batera, azpiegitura hori gure lurraldeko diru-laguntza sisteman sartzeko. Eta, beraz, zuzenketa hori onartu eta Ganbera honetan onartu beharko zeunke. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Jerónimo Morena. A continuación tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Edesa Gómez.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

AP-68 autobide garrantzitsua da Bizkaiarentzat, eta, gaur egun, Diputazio hau titularra izateak eta etorkizunean kudeatzailea izan ahal izateak, lurraldeko gaitasun handiko sarearen kudeaketa globala ekarriko dau, eta, beraz, erabiltzaileei zerbitzu integrala eta eraginkorragoa emotea ahalbidetuko dau.

Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundia autobidearen titularra baino ez da, ez dau kudeatzen, baina konpromiso eta borondate argia dauka: AP-68aren erabiltzaileek lurraldearen titulartasun eta kudeaketa propioako bidesariak erabilten dabezan gainerako personeren aukera berberak eukitea.

Andrade jaunak aurkeztu deuskun mozinoan, xedapenaren zatian, sei hilabeteko epea ezartzen da AP-68 autobidearen erabiltzaileek A-8aren, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen eta Artxandako tunelen erabiltzaileen zenbateko bereko diru-laguntzak hartu daiezan.

Eztabaida hau lehenago be euki dogu, Andrade jauna, eta zuk badakizu gauzak ondo egiteko ez dala posible zure proposamenean aurkeztu dozuna. Gainera, ez gatzoz bat justifikazinoan azaldu dituzun balorazinoakaz, borondate politikorik ez dagoala esaten danean, besteak beste, ez dalako egia. Egia da, Andrade jauna, zure alderdiak Bizkaiko AP-68aren gaian inkoherentziaz betetako ibilbidea egin dauela, eta zure alderdiak, Alderdi Popularrak, jarri ditu oztopo gehien AP-68ko baldintzak Bizkaiko gainerako bidesariakaz parekatzeko.

Aldundia, ostera, urratsak egiten doa, eta Aldundia 2020ko otsailean Batzar Nagusiek ezarri eutsien ibilbide-orri horretan lanean dabil. Azkenengo kontroleko Osoko Bilkuran, Imanol Pradales azpiegituren diputaduak Batzorde Teknikoaren lanaren amaiera iragarri eban, administrazioen arteko funtzionamentu-araubidea arautzeko sortu zan batzordearena. Batzorde horretan adostu da administrazio publikoen arteko eskumenak arautzen eta koordinatzen dituen hitzarmenaren testua. Hitzarmen hori Batzar Nagusietan dago honezkero.

Pauso garrantzitsua zan hori ibilbide-orri horretan, administrazioen artean funtzionamendu-araubidea ezartzea, holan hurrengo urratsa egiteko, hau da, AP-68 autobidea gastu-mugaren sisteman integratzeari ekiteko. Gogoratzeko, ze garrantzitsua iruditzen jat zein testuingurutan gagozan argi eukitea.

2020ko urtarrilaren leian, Bizkaiak autobidetik gure lurraldeari jagokozan 22 km-en titulartasuna jaso eban. Titulartasuna, baina ez kudeaketa. Hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau kudeatzen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu bidesariak batzen. Eta hortxe dago alde nagusia, bidesarien diru-laguntzak daukiezan gainerako bideakaz.

Halanda be, hori ez da eragozpena Diputazio hau behar egin daian bide hori erabilten daben personek diru-laguntzak jaso daiezan, Bizkaiko bidesariak erabilten dabezan gainerako personen moduan.

Imanol Pradales diputaduak argi itxi eban Foru Aldundiaren borondatea: AP-68 autobidea gastu-mugaren sisteman sartzea. Baina, Andrade jauna, ezin dogu epea eskatzen dauen mozinoa babestu. Horretan lanean gabilz, eta oraindino hainbat arazo konpondu behar dira. Izan be, AP-68 autobidearen erabiltzaileek gastuaren muga-sistema baliatu ahal izateko (sistema hori ezarrita dago Bizkaiko autobideetan), AP-68 autobideak ez dauen azpiegitura bat ipini behar da. Hau da, gainerako ordainbideek daukien ekipamentua behar da, hala nola matrikulak irakurteko kamerak, bidaiei buruzko datuak aldatzeko sistemen beharrezko interkonexinoak eta zerbitzua emateko sistemen neurriak. Eta horrek proiektuak egitea eta inbersinoak egitea dakar.

Teknikoki oso gai konplexua da, hori holan da, eta, gainera, emakidadunak ekipamentu-inbersinoak egin behar ditu. Horregaitik, ezinezkoa da epe bat ixtea, ez dagoalako Foru Aldundiaren esku bakarrik.

Gure taldeak berretsi egiten dau otsailaren 20an ganbera honetan lortu genduan akordioa. Akordio horretan, foru-aldundien titulartasuneko eta kudeaketako bidesari pean dagozan bide-azpiegitura guztiak gastu-mugaren sisteman sartu nahi dira, eta AP-68 autobidearen kasuan, enpresa emakidadunagaz aztertu nahi da diru-laguntzak ezartzea, sistema hori baztertu barik.

Agindu hori da Ganbera honetan onartu zana, mandatu hori da Diputazio honek jarraitzen dauena, eta agindu hori berresten dogu. Eta zure taldearen mozinoari aurkeztu deusagun zuzenketak ibilbide-orri hori jarraitzen dau, AP-68 autobidea gastuaren muga-sisteman integratzeko helburua lortzeko bide egoki bakartzat daukagun bide-orria. Gure proposamena da, proposamen bideragarria eta errealista da, eta espero daigun, nahizta ezetz uste dodan, zuzenketa onartzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Edesa Gómez. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buenos días, gracias señora presidenta.

Lehenengo eta behin, garrantzitsua iruditzen jat, arazo bat daukagu mahai gainean oraintxe bertan, proposamena egin dauen taldeak ekarri dauena. Eta ondo legoke gaur egun apur bat kokatzea, eta egin diran gauzei, iraganean zelan jokatu dan aurpegiatzeari ixtea. Denok dakigu nork egin dauen zer, eta noiz egin dauen. Eta benetan mahai gainean ditugun arazoei urtenbidea emotea izango dogu helburu, adierazi dodan moduan.

2019ko apirilaren 30ean, 71/2019 dekretuak AP-68 autobidearen administrazioaz bestelako egoera erakusten deusku, Euskal Autonomia Erkidegoko Transferentzien Batzorde Mistoak AP-68 autobidearen titulartasunari buruzko akordioa onartu eban eta.

Eskumenen eskualdaketa hori 2020ko urtarrilaren lean gauzatu zan. Honezkero urte bi baino gehiago joan dira. Horren ondorioz, herritarrek beren gain hartu beharreko erantzukizunen eta kargen banaketan nagusi izan beharko leuken ekitatean

oinarrituta, bide horretatik ibili ohi diran Bizkaiko lurraldeko erabiltzaile askok eskatzen dabe Arabako gure bizilagunen tarifa-baldintza berberak izatea.

Talde politiko batzuek eskaera horreen barri hartu eta erakundeetara bideratu ditugu. Orduan, gobernuari eusten deusien alderdien, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren itxura aurkitzen dogu, bidegabekeria nabarmen horri urtenbidea emoteko.

Ekimenon ibilbidea erreparatzeak ez dauka zentzurik, Ganbera honetako akta eta bilkura-egunkariak guztion eskura dagoz eta. Baina laburpen gisa esan geinke, gure ustez behintzat, Bizkaiko Foru Aldundiko gobernu-taldeak ez dauela inoiz benetako borondaterik euki Bizkaiko erabiltzaileei konponbide azkarra eta bidezkoa emoteko. Eta hori egin dau, ez bakarrik oposizinoko taldeen proposamenak bata bestearen atzetik baztertuz, ezpada ezer egin barik geratuta, bidegabekeria hori betikotuz.

Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista atzeratzen joan dira gatazka konpontzeko aurrerapausoak planteatu diran aldi guztietan, batzordeetan zein osoko bilkuretan. Eta 2022ra heldu gara, gaur egunera. Transferentziatik 2 urte baino gehiago igaro ondoren, 71/2019 Dekretutik ia 3 urte, Bizkaiko Foru Aldundiko gobernuak ez dau ezertxo be egin lurralde historikoen arteko desbardintasun hori gelditzeko. Gogoratu legegintza-egoera beraren aurrean dagozala, eta zailtasun tekniko eta legal berberak daukiezala Arabako eta Bizkaiko mugaren alde batean eta bestean. Egoera hori Arabatik konpondu dabe, baina ez Bizkaitik.

Arabako diru-laguntzen sistema bera ezartzea geldiarazteko emon diran azalpenek uste dogu zuek bakarrik sinesten dituzuela, eta agian zuen parrokiak, baina erabiltzaileok eta oposizinoko taldeok ez gaitue asebetetzen, konparazino-bidegabekeria horri urtenbidea emoteko behar ez dan itxaronaldia luzatu besterik ez dabelako egiten.

Talde Bereziaren proposamena argia eta zehatza da, eta gure taldeak babestu egingo dauela aurreratzen deusuet. Talde Bereziaren eta Elkarrekin Bizkaia taldearen bidesariei buruzko politika ez da bardina, eta mozino eratorriari zuzenketa egin geinkion, azpimarratu edo zehaztu beharreko berezitasun batzuen bitartez. Baina ez dogu koma bat bera be ukutu gura izan, eztabaidak, mozino eratorri horren beraren bozketaren balizko ebazpenak, mozinoan ez eragiteko.

Gobernua ez dagoanean, Alderdi Popularrak zerbitzuak doakoak izatearen alde egiten dau, eta gure ustez politika egokia, parkatu. Guk askotan esan dogu, gure ustez bidesarien politika egoki batek, lurraldearen errealidadeagaz bat datorrenak, lagundu leikela Bizkaiko erabiltzaile gehiagok erabili dagien garraio publikoa. Garraio publikoa, gainera, azkenengo aldian, zoritxarez, zerbitzuan okerrera egin ebana eta autobusen ibilbideen tarifak nabarmen igo ebazana.

Eta Talde Bereziak proposatzen dauen gaira itzuliz, zer aurkitzen dogu gaur mahai gainean? Aurreratu dogun moduan, babestu egingo dogun proposamena. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak sei hilabeteko epean tarifan injustiziar urtenbidea emoteko eskatzen dauena.

Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak osoko zuzenketa ekarri dabe eztabaida honetara, beste behin be atxakia eukiteko, atzera bota ezkerro, jatorrizko ekimenaren aurka bozkatzeko argudio bat izateko. Bizkaiko Foru Aldundiaren, EAJren eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren benetako asmoa oin dala urte batzuetatik bizi dogun bidegabekeriari urtenbidea emotea balitz, oin dala urte 2 egingo eben bertan esaten dabena. Gehiago ganera, gatazkaren konponbidea hori dala uste badozue, ez egon Ganberaren onerretxiaren zain, zuen esku dago, egin bihar bertan. Eskatu azterketa hori AP-68 autobidea

gastu-mugaren sisteman sartzeari buruz. Zerk eragozten deusue? Neuk erantzungo deusuet, borondate politikorik ezak.

Osoko zuzenketa hau tranpantojo bat da, benetan ez dana emoten dau. Borondatea saltzen deuskun, bain hori ez da egon eta ez da egongo, eta ziur asko saio honetatik aterako gara ekimenak aipatzen dauen herritarren eskaerari bape erantzunik emon barik. Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren zuzenketa, etxeko ohiko araua dan lez, alperrekoa da.

Beste alde batetik, danok dakigu azkenengo asteetan izandako gertakarien ostean, AP-68 autobidetik sarri-sarri dabilzan erabiltzaile guztien egoera larriagoa egiten daben faktore asko dagozala. Horreetako bat erregaiaren prezioa da, maximo historikoetan dagoana, eta bide horren erabiltzaileek ordaindu beharreko kostua gehiegizkoa izatea eragiten dauena.

Neurribako igoera hori arindu ahal izateko modu bat, zalantza barik, bidesariaren kostua jaitea izango litzateke, gaur eztabaidagai dogunaren moduko proposamen baten bidez. Pradales jaunak Ganberari aurreko Osoko Bilkuran adierazi eutsanez, bide hori Bizkaiko Foru Aldundiaren tarifa-sisteman txertatzeko izapideak egiten hasita egozan, eta urratsak zehatz, zuzen eta behar besteko bermeagaz emon behar ebazan alderdi guztientzat. Gainera, gobernuari eusten deusien taldeek errepikatu egin dabe gaur hori.

Ulertu gura dogu Arabako Foru Aldundiak, bideotatik dabilzan arabarrei laguntzak ezarri deutsezanak, berme horreek jaso dabezala. Oraindik ez dogu ulertzen zergaitik balio dauen Arabarako eta ez Bizkairako, ez guk ez Bizkaiko erabiltzaileek ez dabe ulertzen.

Diputaku jaunak aitatu dauz, eta zuzenketan jasota dago, laguntza horreek ezartzeko arazo teknikoak. Beste behin be, Bizkaiko Aldundiak bakarrik daukazan arazoak, antza, eta ez Arabakoak.

Argudio asko dagoz bat ez datozenak zuen justifikazioakaz. Argi daukaguna da eragozpen horreek guztiak, sen on eta borondate politiko apur bategaz, konponduta geratuko liratekeela. Euzko Alderdi Jeltzaleko eta Euskadiko Alderdi Sozialistako jaun-andreok, zuen esku dago bidegabekeria honeri amaiera emotea edo gitxienez 2026ra arte iraunarazotea. Sin nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Lobato Pascual. Tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días.

Una vez más, el tema de los peajes ha llegado a esta cámara: hoy debatiremos de nuevo sobre el peaje de la AP-68. Creo, como tantas otras veces, que estamos en una situación *déjà vu* con este tema, y que el debate que se suscita hoy y su resolución se está demorando, al menos, 5 años.

Voy a hacer una breve cronología:

2017ko urtarrilean, Zigor Isuskiza Arana EH Bilduko batzarkideak, hemen gaur mahaiari dagoanak, Arauz Besteko proposamen bat aurkeztu eban, eta bertan eskatu eban 2017an, SuperSurren, Artxandako Tuneletan eta A-8an hileko 30 euroko gastu-muga jarri ostean, hobari horreek AP-68 errepeidean be eskaintzea.

Proposamena atzera bota zan EAJ eta PSEren kontrako botoakaz eta PPren abstentzinoagaz.

Geroago, 2019ko abenduan, EH Bilduk barriro erregistrau eban Arauz Besteko proposamen bat, nik neuk defendatu nebana, eta behin urtarrilean Bizkaiko tartearen titulartasuna eta eskumena lortuta hau esaten ebana: Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu deusie ahalik eta lasterren bideratu daiala AP-68 autobidean Bizkaiko erabiltzaileentzat, Supersur, AP-8 eta Artxandako tuneletarako ezarritako gastu-mugariaren hobaria. Gaur eskatzen dan ia gauza bera.

Zuek, gobernuari eusten deusazuen taldeek, zuzenketa egin beharrean, orain egin dozuen moduan, kontraprogramau egin zenduen urte bereko urtarrilean, Ekain Rico batzarkidearen, honezkero gugaz ez dagoana, eta Irene Edesaren Arauz Besteko beste proposamen bategaz. Proposamen horrek hau esaten eban: enpresa emakidadunagaz aztertzea diru-laguntzak ezartzea, gastuaren muga-sistema baztertu barik. Azterketa horretan, besteak beste, honeek jaso beharko dira: egindako bidaiei buruzko informazino-prozedura, iruzurra eragozteko behar diran mekanismoak eta, behar izan ezker, alderdien artean adostutako sistema ezartzeko behar dan inbersinoa.

Ezagun dozue ezta? Orain zuzenketa gisa proposatu dozuen ia gauza bera da, urte bi geroago. Urte biotan, BFAk ez dakigu urratsik egin dauen, baina ez dau erakutsi. 17 hilabete daroazue ganbera honetan onartutako proposamen bati buruz ezer planteau barik. Ezer bez.

Eta 2021ean, 2022an, Talde Bereziak, Alderdi Popularrak, interpelazinetik eratorritako mozino bana aurkeztu dau AP-68ko erabiltzaileei laguntzarik ez emotearen inguruan.

Eta horrerri guztiari Aiaraldea eta Hego Uribe eskualdeetako udaletan onartu diran ekimenak gehitu behar jakez. Gogora ekarri gura dot, halaber, eskualdean bizi diran eta gai honek eragiten deusen personek Batzar Nagusiotako herritarrakazko eskaeren eta hartu-emonen Batzordean egin eben agerraldia.

Han pasado 5 años desde la primera propuesta de EH Bildu y la situación es la misma. Han pasado casi 3 años desde que la DFB es titular del tramo vizcaino de la AP-68 y la situación es la misma. Porque tenemos muy claro que a día de hoy no hay bonificaciones, pero se espera que lleguen a corto plazo.

Izan be, zuen zuzenketa aurrekoaren kopia bat da, eta ez da ezta "gura baina ezin" bat, "ahal dot baina ez dot gura" baten aurrean gagoz. Hori da erakusten dozuena, ahal dozue baina ez dozue gura. Eta orain ez bada Rementeria jaunari edo Pradales jaunari, une honetan ez dagoana gure artean, diru-laguntzen botoiari lehenbailehen sakatzeko eta AP-68an aktibatzeo eskatzeko unea, noiz izango da? Noiz itxiko deusazue atxakiak jartzeari? Noiz gauzatuko dira zuen adierazpenak?

Edesa andrea, gauzak ondo egiteko, zuk esan dozun moduan, bost, lau, hiru, bi urte behar dira, zenbat denpora behar da gauzak ondo egiteko? Gehiegizkoa egiten jaku.

Como decía antes, desde EH Bildu llevamos años reclamando que la Diputación establezca un sistema de bonificaciones en el peaje de la AP-68 en el tramo vizcaíno. Al tratarse la AP-68 de una vía de peaje y ser la única alternativa a la BI-625 entre Orduña y Bilbao en Bizkaia, los habitantes de Bizkaia y en especial de Hego Uribe tienen que pagar mucho dinero.

EH Bilduk urteotan guztietan, 2017tik, defendatu dauen argudio nagusia da AP-68 autobidea erabiltzen dabenean Bizkaiko lurralde historikoko edukiera handiko bideen gainerako erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak berberak izatea. Itxi alderdien arteko borrorak alde batera eta ekin deiogun lanari: PPri leporatu emakida urteak luzatu izana, EAJk bidesari gehiago jarri nahi dituala, PSOEek arazoak dituala autobideko maizterrakaz. Gure ustez, autobide horrek berak, Arabatik igarotzean, bidesarien hobari-sistema bat badauka, une honetan %60ko deskontua dauka hilean 15 bidaiatik aurrera, eta antzeko neurri bat hartu badaiteke Bizkaian, zergaitik ez da egiten? Ez dogu ulertzen. Arabak be ez dau AP-68 autobidea kudeatzen, Bizkaiko egoera bera da, baina deskontuak eskaintzen ditu erabiltzarren.

Gainera, hobariak edo hemen aitatu dan tarifa lauak, uste dogu persona asko animauko leukezala autobidea erabiltera uri zati asko zeharkatzen dituan BI-625 errepidearen ordez. Autobidea gehiago erabiltzeko trafikoa arindu egingo leuke BI-625 errepidean, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Arrankudiaga eta Arakaldo udalerrietan.

Berbetatik ekintzetara igaroteko unea dala uste dogu, eta, beraz, ez dabe balio asmo hutsek, ez dau balio promesak luzatzeak; konpromisoak behar ditugu. Pozgarria da Talde Bereziaren proposamenak, zuek ezetz esan deusazuenak, 6 hilabeteko epea eukitea, muga bat jartzeko, hori aurrera eramateko helburu bat jartzeko be.

Argi daukagu, era berean, beharrezkoa izango dala enpresa emakidadunagaz batera alderdi tekniko batzuk aztertzea, duda barik. Zalantzak daukaguz arazo teknikoak edo arazo ekonomikoak diran, ze emoten deust hortik doala gehiago, eta zuek arazoak daukazuezala egin nahi dituzuen gauza horreek guztiak finantzatzeko.

Por todo ello, y con esto acabo, les adelanto que apoyaremos la propuesta del Grupo Mixto-PP, y pedimos a PNV y PSE que retiren la enmienda, ya que la propuesta está fuera de lugar y es totalmente extemporánea. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Méndez Urigoitia. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Lehenengo eta behin, mozinoaren alde egingo dabenean alderdiei gure esker ona adierazi, nik uste dot bizkaitarrek merezi dabela. Eskerrik asko Elkarrekin Podemosi eta EH Bilduri proposamena babesteagatik. Honezkero kontau da, nik aurreko interpelazioan kontau neban, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko kideek kontau dabe gaur, AP 68ko hobariak gertatutakoari buruzko kontakizun historikoa. Eta, beraz, esan dodan moduan, gehiegitxo deritzot, ez dalako Alderdi Popularrak esaten dauen gauza bat.

Behin eta barriro errepikatzen dan gauza bakarra da Eusko Alderdi Jeltzaleak eta eurakaz gobernua osatzen dauen Alderdi Sozialistak AP-68ko errepidearen erabiltzaileentzako hobari hori ezartzeko borondate politikorik ez daukiela. Zuek badakizuenez, aurrekoan esan neutsuen, bizkaitarrak bidesarrietan urtean 2.530 € ordaindu behar izatera zigortzen ditu. Araban, barriz, bidesari hori bera diruz lagunduta daukie, eta 1012 € ordaintzen dabe. Guk, ostera, arabarrek baino 1518 € gehiago ordaintzen doguz autobide bera erabiltzarren, eurek hobariak daukiezalako.

Ze arazoa ez da emakida bat egotea edo ez egotea. Egon dago, hemen esan dan moduan, autobide horren emakida dago Errioxako zatian, Aragoiko zatian, Arabako zatian, eta guztietan daukiea hobariak. Erabiltzaileek, era batera edo bestera, guztiek daukiez hobariak.

Arazoa ez da emakidaduna egotea, hori ez da arazoa, badakizue. Hobariak ezarri daitezke emakidadunagaz.

Eta arazoa ez da be, hemen egin gura dan moduan, nik nire aurreko agerraldean esan dot, Alderdi Popularrak kontzesinoa zabaldu izana, hori izan da gatx guztien jatorria. Ez dauka zerikusirik kontzesinoa galtzeagaz, edo kontzesinoa erabilteari ixteagaz; izan be, AP-8 autobidea, Donostiara daroana, gurea da, eta zuek bidesariak mantendu dozuez. Eta bidesariak mantentzen dituzue, hobariak dagoz, baina bidesariak mantentzen dituzue.

Hemen aitatu danez, 2026an emakida hartzen dogunean, Alderdi Sozialistak esan dau, 2026an doan izango dala, ez dakit. Emakida berreskuratzen dogunean dana doan izango da antza. Hori ez da gaur hemen planteau dana, baina ondo iruditzen jat esan izana eta aktan jasotea. Baina arazoa ez da kontzesinoa, esan dodan moduan, arazoa borondate politikoa da, emakidadunak gauza bera kobrauko dauelako. Guk bizkaitarrei lagundu behar deutsegu diruz, ez emakidadunari. Emakidadunak bardin kobrauko dau. Guk Bizkaiko erabiltzaileei emoten deutsegu diru-laguntza, bizkaitarrei emoten deutsegu diru-laguntza, ez kobrauko dauen emakidadunari. Eurakaz akordio bat, edo guk bizkaitarrakaz akordioa, dirua itzultzeko. Emakidaduna ez dogu ezertarako behar.

Eusko Alderdi Jeltzaleari gauza bi komentauko deusaguz, hemen aitatu diranak. Hasieran, oin dala urte batzuk, dana berrikustera bialduten zan, sine die atzeratu dan administrazio arteko hitzarmen batera. Hilabete honetan heldu da, interpelaziotik gaur arte joan dan tartean. Administrazioen arteko hitzarmen bat, Juntetxe honetan eztabaidatuko dana, baina hor ez da ezer aitutzen bidesariei eta hobariei buruz. Denporea galdu da. Hor ez da ezer esaten, hor doala baino ez, eta administrazioen arteko gauza teknikoak baino ez dira esaten, berba egingo dogu.

Baina horrek ez dauka zerikusirik hobariakaz edo ekipamentu falteagaz. Lehen esan deusuedan moduan, autobia hau autobide sistema bategaz parekatu behar da. Baina, jakina, zuek aurreko hilabetetik oraingora 50 milioi euro gastau dozuez Txorierrin, Barazarren, Kanpazarren eta Urduñan kobratzeko sistema bat ezartzeko. Autobide honetan hobariak emoteko sistema ipini beharrean, 50 milioi euro gastau dira bidesari gehiago jartzeko. Hau da, lehentasunak dira, zuen lehentasuna da garraioari bidesariak ipintea, daukien egoera eukita, Arabara doazen Bizkaiko erabiltzaileei hobariak ezarri beharrean. Lehentasunak dira, ez da ezer gertatzen, esan, bizkaitarrek jakin daiela, jakin daiela zuen lehentasuna Rontegi zeharkatzeko bidesariak ipintea dala, hobariak jarri beharrean.

Guk beste erespide bat daukagu. Eta proposatzailereren batek esan dauen moduan, zuen zuzenketa ezin da onartu, betikoa baino ez dalako, behin baino gehiagotan ekarri da zuzenketa hori bera. Orduan onargarria zan, guk sei hilabeteko epea jarri dogu, nik uste dot nahikoa dala, ze bideragarritasun-azterketa, baina zelan ez da bideragarria izango. Jakina, dirua da, bidesariak diruz laguntzeak dirua balio dau. Bideragarria da edo ez, dirua kostatzen da jakina, eta baliabide publikoetatik atera behar da. Hori argi dago, baina ez da bideragarria dan edo ez dan, baliabideak jartzea baino. Baliabideak jarri gura badozuez, Alderdi Popularrak 900.000 € jarri zituan 2015ean baliabideetarako zuzenketa baten. Ez zan gauzatu, dirua da, bideragarria da. Ze bideragarritasun-azterketa, zer aztertu behar da, bideragarria da. Baliabide teknikoak; ba Rontegiko arkuetan 50 milioi gastau beharrean, autobideetan erabili, eta holan herritarrei hobariak emongo deutseguz. Beste barik, eskerrik asko proposamena babesten dozuenoi.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Andrade Aurrecoechea. En el turno de respuesta tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vasco, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Gracias, buenos días de nuevo. Badakit zeregin gatxa daukadana, eretxi publikoaren ikuspegitik, demagogiaren ikuspegitik nahiko erraza dalako herritarrek ulertzea 'doan', diru-laguntza. Hori erraza da, baina ez da benetakoa. Hemen baten batek tranpantojoa aitatu dau. Izan be, AP-8aren zati bat diruz laguntzeko modukoa egiten dogu, eta badirudi emakidadunak ez dauela gainerako zatia kobrauko; tranpantojoa da. Hau da, egia erdi bat, ahaztu egiten jakolako proposatzaileari esatea, besteak beste, sei hilabeteko epe hori asko iruditzen bajako, ez dauela azaldu bere garaian zer iruditu jakon kudeatzaileari, azpiegitura ustiatzen dauen enpresari, beste 15 urte luzatzea. Sei hilabete edo urtebete, egia da denpora asko daroagula AP-68 autobidea tarifa lauaren sisteman sartzeko aukerari bueltak emoten, baina urte batzuk asko badira, 15 urte zer da orduan?

Horren harira, Méndez Urigoitia jaunak esan dau maizterraz eta berba egin dodala. Jakina, hor jaun bat dago, eta bera da instalazino horren ustiapenaren jabea, eta aldea ordaindu behar jako. Ze oso ondo geratzen da, bihar titularra izan leiteke "PPk doakotasuna eskatu dau". Ez, kasu honetan bi tonu jaitsi dira. Aurrekoan, zure kide batek, uste dot Amaya izan zala, doakotasuna eskatu eban. Orain, sistema hori tarifa laua esaten deusagunean sartzea da kontua. Baina esatea ahazten jatzuna da zerbitzua ustiatzen dauen enpresari bai ala bai ordaindu behar jakola, handik pasetan danak. Eta bada era bat, orain egiten dena, hau da, pasatzen den bakotzak ordaintzen dau.

Bada beste modu bat be: denon artean ordaintzea, eta badago beste modu bat, Aldundi honek, talde hau proposatzen dauena, hau da, asko erabilten dabenen zatiarentzat, beste erremediorik ez daukienentzat, beste bide batzuk erabilteko arazo asko dituenentzat, zati bat diruz lagunduta egotea. Eta nik uste dot hori dala azaldu behar dana, eta holan ez litzateke inolako tranpantojorik egongo. Izan be, herritarrei azaldu behar jakela esan behar da. Herritarrei azaldu behar jake autobide horretatik igaroten danari diruz laguntzeko erabilten dan dirua beste baliabide batzuetatik atera behar dala, eta kendu egin behar dala adinekoen arretatik, enplegutik, Aldundiak eskaintzen dituan beste jarduera batzuetatik. Beraz, 2022rako aurrekontuak egin diranean, dana guztiz doa izateko ados be ados jartzen badira be, talde proposatzaileetako bakar bateri be ez jako entzun eta ikusi zuzenketarik, eta ez deusiet entzun ez ikusi, diru hori nondik edo handik aterako dogula, diru hori AP-68 autobidea erabilten dabenean erabiltzaileen zati bat diruz laguntzeko izan daiten.

Uste dot Aldundia lanean dabilela. Ez da kontu bat, erretolika bat, erretolika bat esatera gatoz. Lobato Pascual jauna, ez da erretolika bat, errealidadea da, historia bat egin behar da, zergaitik gagozan hemen. Izan be, kudeaketa luzatu izan ez balitz, 2011tik bizkaitarren esku egongo litzateke azpiegitura hori, eta zer egiten dogun erabagiko geunke, autobide bat doan erabat edo tarifa lauagaz.

Barriro dinot, eta ez da asperrekoa, gure Gobernuko presidente Pedro Sánchez jaunaren emakidak amaitu diranean zelan jokatu dan, horrek erakusten dau doakotasunera jo dala. Hori gauzatu egin dan eredu bat da, beste eredu batzuk be egon daitekez, Foru Aldundian egiten gabilzanaren modukoak. Eta, beraz, borondate politikorik eza ez, kudeaketaren errealidadea eta, nahi badozue, baliabide publikoak erabilteko orduan zuhurtasuna edo zentzuna. Ze doakoa oso ondo saltzen da, eta bihar agertuko da "Oposizinoak AP 68aren doakotasuna eskatu dau", eta PPko eta EAJko jaunek baliabide horreetan gastau nahi ez dabenean zekenak badira, lehentasunak ezarri behar dira, eta kasu honetan ulertu da lehentasuna formula hori ezartzea dala, eta berriro dinot, guretzat tarifa laua edo kudeaketako gastu-muga dala.

Beste alde batetik, PPri ez deusat esango, baina bai EH Bilduri eta Podemosi. Doakotasunaren ikuspuntutik eta ingurumenaren ikuspegitik, zuen jarrera azalduko dozue. Egia da hori txarto saltzen dala, baina egia da luze gabe ekin egin beharko deusagula benetan. Eta zuek, ingurumenari buruz hitz egiten dogunean, garraio publikoa lehenesten dozue eta garraio pribatua eta errepidekoa saihesten dozue, eta gero, finantzaketan, badirudi ahaztu egiten jatzuezala inguruabar horreek. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Jerónimo Moreno. Tiene la palabra la representante del grupo Euzko, señora Edesa Gómez.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Gracias señora presidenta. Talde guztiei entzun eta ostean, argi geratzen da danok helburu bera daukagula, hau da, AP-68 autobidea gastu-mugaren sisteman sartzea. Hori da oraingoz uste dodana danok bat gatozala, eta garrantzitsua da.

Gero, nire ustez, oposizino talde guztiek egin dabezan kritika bi dagoz, baina ona litzateke beste administrazio batzukaz konparatzea, beste toki batzukaz, kasurako Arabagaz, Errioxagaz edo Aragoigaz. Eta, gero, beste bat izango litzateke sistema hori ezartzeko denpora edo atzerapena.

Andrade jauna, hitzarmenak administrazioen arteko eskumen-araubidea arautzen dau, eta horregaitik ez dira zenbatekoak aitatu. Lehenengo urratsa izango litzateke, gero sisteman integratzeari ekiteko bigarren urrats bat emoteko.

Argi geratu behar da Aldundia Batzar Nagusien agindupean dabilela beharren, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren asmoa dala AP-68 autobidea gastu-mugaren sisteman sartzea.

Argi geratu behar da, era berean, autobide horrek, AP-68ak, ez dauela Foru Aldundiaren titulartasuneko eta kudeaketako autobideetan ezarritako ekipamenturik, eta ekipamendu hori beharrezkoa dala diru-laguntzak kudeatzeko eta iruzurra eragozteko. Hori oso garrantzitsua da kontuan hartzea, zertaz gabilzan konturatu gaitez.

Berba egin dozuenean, beste administrazio batzuen ereduak jarri dituzue mahai gainean. Nire taldeak ez dau beste administrazio batzuen sistema zalantzan jarriko eta ez dau baloratuko. Gurea, Bizkaikoa, gastu-mugarena, egokiena dala uste dugu, eta sistema gisa inplementazio batzuk egin behar ditu nahitaez.

Badira beste sistema batzuk, desbardinak dira, eta uste dogu mugatuagoak dirala. Eta AP-68 autobidean inplementatu ahal izateko, nahitaez ezarri beharreko hainbat gai behar dira, batez be iruzurra eragozteko eta Bizkaiko sistemagaz parekatzeko.

Talde guztiek egin dituzuen beste kritiketako bat sistema ezartzeko atzerapena da. Alde batetik, egia da batzorde teknikoko barrenak pandemiak eraginda dagozana, eta horrek atzerapena ekarri dau. Gainera, teknikoki oso konplexua dan lana da, AP-68 autobidea hornitzea. Baina, gainera, ez bakarrik horrelako sistema bat ezartzeak eskatzen dauen guztiaigatik, ezpada Foru Aldundiaren esku bakarrik ez dagoalako, enpresa emakidadunagaz adostu behar da ekipamendua ezartzeko eta emoten dan pauso bakoitzean alkarregaz joateko.

Errazagoa litzatekela kudeaketa Aldundiaren esku balego? Jakina, baina zure alderdiak, Andrade jauna, ez eban gura izan halan izaterik, eta badakit ez jatzula gustetan gogoratzea, baina oso garrantzitsua da, zuek izan zinielako alde bakarrez erabagi zenduenak emakida 2026ra arte luzatzea. Eta Diputazio honek ez dauenez alde bakarrez jokutzen, emakidadunagaz adostu behar dau emoten dan pauso bakoitza.

Zure alderdia izan da, Andrade jauna, gai honetan oztopoak jarri dituana. Aldundiak gaintu ditu, eta urratsak emon dauz AP-68ko erabiltzaileek lurraldeko gainerako ordainpeko errepideetako gainerako erabiltzaileen aukerak izan daiezan.

Amaitzeko, azpiegitura-sailak egiten dauen lanari balioa emon gura deusat, Batzar Nagusiek ezarri deusien bide-orriari jarraituz. Aldundiaren konpromiso bat dago, nahiz

eta zalantzan jarri, konpromiso oso argia dago, eta hori beteteko bidetik lantzen gabiliz. Eta horregaitik, gure taldetik zuzenketa hau aurkeztu dogu, bide-orri horri jarraitzea helburu daukana. Ibilbide-orri egokia da, eta AP-68 autobidea gastu-mugaren sisteman txertatzeko egin daitekeen bakarra da. Eta Andrade jaunak zuzenketa onartzen ez badau, ezingo dogu babestu ibilbide-orri hori errespetatzen ez dauen mozino bat. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Edesa Gómez. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Bagatoz barriro be, marmotaren eguna dala esan lei, gaitzespenen eguna, zuk hau egin zenduan eta nik hau eta eesateko eguna. Esan deutsuedan moduan, emonkorra izango litzateke eztabaida zeozertarako balio izatea eta gitxienez Bizkaiko herritarrentzat mesedegarri diran proposamenak eta jarduerak adostea, ze horretarako gagoz hemen eta horretarako bozkatu gaitu gure herritarrek.

Gauza asko esan dira, eta kezkatzen nau gaur egun, 2022an, 20 urte baino gehiagoko atzerapenagaz egoteak Arabako herritarren aldean. Arabak 2001. urtetik daukaz indarrean holako diru-laguntzak. 20 urte baino gehiagoko atzerapena daroagu gure auzokoakaz. Bizkaiko Foru Aldundiak 20 urte daroaz ezer egin barik. 20 urteko tarifa-diskriminazioa da, eta egunen baten bizkaitarrei azaldu beharko deutsezue. Eta hau da gobernua, Eusko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak lehen adierazi dauen moduan, kakoak zabaldu, “ez, baina guk badaukagu asmoa...”. Bitartean, 15.000 bizkaitar jagiten dira goizero Araban lan egin ahal izateko, Bizkaian lan egiten daberen arabarrek baino 1.500 € inguru gehiago ordainduz urtean. Hori ganean daukagun egoereagaz.

Gauza asko. Gobernuari eusten deutsien alderdiek, esan dan moduan, nire bigarren hitzaldirako idatzita euki dot, gaur proposatu dabena orain dala ia urte 2 proposatu eben, urte 2 baino gehiago. Horregaitik esan dot lehen Gobernu hau dala “ez, baina guk badaukagu asmoa...” esatekoa. Eta gero egin, benetan ez da ezer egiten.

Horrek kezkatu egiten gaitu, ze Edesa andreak esan dauen moduan, esan lei bat gatozala erespideakaz, desbardintasun hori murrizteko zoezer egin behar dogula-ta. Baina ez dogu pausorik emoten.

2019an, EH Bilduko bozeramaileak adierazi dauenez, zuek egindako proposamen bera egin zan. Gaur egun, urte bi geroago, egoera berean gagoz. Zer suposatzen dau horrek? Inork ez deutsuela sinesten, Ganbera honen sinesgarritasuna galdu dozuela, eta hori politikoki oso arriskutsua da nire ustez.

Horregaitik, proposamena egin dauen taldearen erespideagaz bat gatoz; izan be, mozino eratorrian sei hileko epea emoten dau proposamen hori argitara emoteko. Ganbaran hartu behar diran eta Bizkaiko herritarren egunerokoan eragina euki behar daberen ekintzak zehazten hasi behar dogu, jakina.

Jeronimo Moreno jauna, jakina, zerbitzu publikoaren emakida daukan enpresari ordaindu egin behar jako. Jakina, hori benetako egoera da eta inor ez dabil ezertan hori holan izan ez daiten. Hori jakina da. Eta diru publikotik aterako dala be bai. Eta modu asko dagoz diru publikotik aterateko.

Bata da demagogia egiten ibiltea eta, gure ustez guztiz ezinbestekoak diran ekintza eta partidetatik aurrekontua kentzea, Bizkaiko bizilagunen egunerokoan eraginik euki ez daian. Eta beste bat da, Talde Bereziko bozeramaileak esan dauen moduan, horretara bideratu

leitekezan partidetara joatea, adibidez, kamioilarien bidesarietarako arkuen partidara, ze hori atzeratu egin daiteke beharbada, eta horren orde bestea honerik lehentasuna emon, jakina. Ez daukagu Gizarte Ekintza Sailaren laguntzetatik atera behar, zuk esan dozun moduan.

Baina Bizkaiak egin behar dauen hori bera egiten hasita dago Ababa eta beste autonomia-erkidego asko. Beraz, ez daigun demagogiarik egin.

Pedro Sanchezek bidesari horreen doakotasuna aitatu dauela esan dozu. Zuk dinozunagaz kontraesanean dago hori. Are gehiago, guk bidesarien doakotasuna nahi dogula dinozu. Nire talde politikoak behintzat ez dau halakorik inoiz eskatu. Eta ez gaur, beste esku-hartzeetan bez. Akta honen egunkarian nire lehenengo hitzaldia entzutera konbidatzen zaitut. Guk gura doguna da bidesari-politika bat egotea, lehen esan dodan moduan, lurraldearen errealidadeagaz koherentea, garraio publikoa erabiltera konbidatuko dauena. Ez dogu doakotasunik nahi, eta halan esango dogu gero be. Azpimarratzekoa dala uste dot. Garraio publikoaren aldeko apustua egiten dogu, eta uste dogu bidesarien politikak lan-ildo horregaz joan behar dauela. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Lobato Pascual, y para finalizar el debate, tiene la palabra el representante del grupo EH Bildu, el señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo señora presidenta, y buenos días.

Badiirudi ahaztu egiten jakula 2020ko urtarriletik Ganbera honen agindu bat dagoala beteteko. Eta 2020ko urtarrileko eztabaida horretan, nire taldea, EH Bildu, ez zan itxi gobernuari eusten deusien taldeen beste aukera batzutarako, AP-68an bidesarian hobekuntzak edo beharpenak jartzeko. Eta horregaitik abstenidu egin ginan zuek aurkeztu zenduen PNN haren bozketan, uste gendualako azken helburua izan behar zala lurralde osoan bidesari guztiak homogeneizatzea, eta ez bide bakoitzerako konponbide puntualak bilatzea.

Eta nik Claver Zurdo andrearen deklarazioa be ekarri dot. Egia da zuen taldeko, Euzko Abertzaleak taldeko, batzarkidea zala, gaur egun ez badago be, eta berak esan eban: "Idea bi, titulartasuna eta kudeaketa. Foru Aldundiak bere garaian ezarritako gastu-muga aplikatzea. Eta Mendez jauna, ulertzen dot ni nazela, guk hitza hartzen deusugu eta laguntzeko prest gat, berbaz jarraitzeko, baina jakinda beharrezkoa dala alternatibak aztertzea eta jakitea kontrol-mekanismo eta -baliabide batzuk jarri behar ditugula zorrotz jokatzeke". Ba, ez dozue lankidetzaz handirik egin EH Bildugaz, nigaz behintzat. Ez deuskuzue ezelango informaziorik emon urte bian, ez deuskuzue proposamenik egin urte bian. Eta barrero dinot, Bizkaiko autobien eta autobideen finantzaketaren diseinuan laguntzeko prest gagozala. Baina AP-68aren kasuan zero. Urte bian tautik ez deuskuzue esan.

Baina, gainera, urte bi igaro dira eta ez dogu bape aurreratu; esan dogun moduan, bardin jarraitzen dogu. Zuek gauza bera proposatu dozue, 2020ko urtarrileko eztabaidan egin genduanaren kopia bat. Eta ezin dogu onartu diskriminazio-egoera horrek denporan irautea. Erabakiak hartzeko ordua dala uste dogu, baina ez bakarrik Claver Zurdo andreak. Pradales jaunak, eta esan dot ez dagoala hemen, EH Bilduk galdegindako eztabaida baten esan eban Ganbera honetan, hemen gagoz (zabaldu komatxoak Lekerikabeaskoa jauna), hemen gagoz arrautza eta foru kontu baten aurrean, lehenengo titulartasuna eta kudeaketa, eta hortik aurrera tarifen sistema integrala aplikatzea, bide batez esanda, Batzar Nagusiek 2017ko maiatzean onartu eban sistema bat dana.

Honezkero ez dira urte 2, 5 dira Pradales jaunak esan ebanetik. Baina bildur gara Ganbera honi AP-68 autobidea hobari-sisteman entregatzeko enkargua gero eta gehiago atzeratzen doala.

Eta kudeaketari itxaroten badeutsagu, Claver andreak bere garaian esan eban moduan, eta Pradales jaunak be bere garaian esan eban moduan, ba segurutik 2026ra helduko gara, eta ez dau bape meriturik eukiko horri buruz ezelako neurririk egiteak.

Jeronimo jauna, galderak egin deuskuzuz. Edesa andreak be esan dau: uste dot talde guztiak oinarri batetik abiatzen garala eta gastuaren muga, tarifa laua edo diru-laguntzak jarri nahi ditugula bide horretan. Zalantza daukat alderdi sozialistak halan gura ete dauen, zuk planteau dozun moduan, personarik negatiboena izan da bide horretan eskualdatzea diruz laguntzeari buruz.

Beraz, zalantza daukat gobernu-taldeak gero bi aldeetan onartzen dozuen ala ez, ze argi dago AP-68an, Artxandako tuneletan eta Supersurren diru-laguntzak badagozala. Eta eskatzen gabilzana gauza bera da bide honetarako, egin daigun, ez daigun diskriminatu. Badago gastu-muga, horretarako baliabideak bideratzen ditugu, ez da gauza barria, ez gabilz gurpila asmatzen.

Gero galdera bi egin deuskuzuz. Ia zer deritxagun doakotasunari? Doakotasuna zeuk atera dozu, beste inork ez dau aitatu doakotasuna, zeuk baino. Zeuk bota dozu galdera, gainerakoek erantzuteko, guk ezer esan barik, eta nik uste dot taldeek erantzun dabela.

Eta, gero, egin dozun bigarren galderea da ia zelan ikusten dogun ingurumenaren gaia. Gogorarazten deusut zuek zariela ordainpeko autobide kilometroak eta kilometroak eregiten jarraitzen dozuenak, eta gu ahalegintzen gara konpontzen zuek eskualde horretan sortu dituzuen kudeaketa eta finantzaketa akatsak. Hori da zuek hartu behar dozuen erantzuna.

Baina jarraitu, jarraitu konponbide perfektuaren zain, nahizta horrek neurriak beteteko epeak atzeratu besterik ez dauen egiten. Neurriok, zalantza barik, lagungarri izan leitekez Hego Uribeko eta Aiaraldeko biztanleentzat, mugikortasun-baldintzak hobetu daiezan, baita Bizkaiko gainerako biztanleenak be. Eta, halanda be, zuek uko egiten deusazue, ezin dozue printze urdin baten zain egon, hori mito bat baino ez da, Barricadak 80ko hamarkadan kantetan ebana, printze urdinik ez dagoala, printze urdinik ez dagoala. Eta abesti horren leloari jarraituz, EH Bildun nahi dogu biharko eguna bardina ez izatea, bihar desbardina izatea, ahalik eta azkarren urtenbide bat bilatzea, nahizta hori ez izan hasiera baten urtenbide perfektua, jarri gaitzezan lanean, jarri zaitezen lanean, bat egin daizuela ekimenagaz, eta gai izan gaitzezan Talde Mistoak planteau deusuezan 6 hileetan arazo horri urtenbidea emoteko, eta hobetu daigun Bizkaiko mugikortasuna AP-68 autobidean zehar.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y terminado el debate, sometemos a votación la moción.

¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto el resultado es el siguiente. Se han emitido 48 votos en total, de los que han sido a favor 16, en contra 32, y no ha habido abstenciones. Por lo tanto no se aprueba la moción.

Pasando al cuarto punto del orden del día, trataremos una moción presentada por la señora Eneritz De Madariaga Martín:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000435](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Garantizar el derecho al respiro de todas las personas cuidadoras informales.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000435](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (52A)

Expediente: ([11/B/20/0003228](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000435SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Zaintzaile informal guztiek atsedean hartzeko daben eskubidea bermatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000435SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (52A)

Espedientea: ([11/B/20/0003228](#))

Por lo tanto, participará en primer lugar el grupo proponente. Tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Joan den otsailaren 23an Kontroleko Osoko Bilkuran adierazi genduan, zaintzaile informalek atsedean hartzeko daukien eskubidea, nahiz eta estatuko, autonomia-erkidegoko eta lurraldeko hainbat xedapenetan jasota dagoan, eskubide hori ez da behar bezala bermatzen, eta, gainera, Osoko Bilkura honetan aurreratu dogunez, funtsezko faktore bk eragiten dabe hori. Lehenengoa da atsedean hartzeko eskubidea arautzen daben dekretuak kontraesanean dagozala alkarren artean, eta, gainera, muga batzuk ezartzen dabezala, helburu bakartzat atsedean hartzeko eskubidea mugatzea dabenak. Bigarrena da Bizkaian ez daukagula eskubide hori gauzatzeko behar besteko plaza. Gaur eztabaidarako eta ondoren bozkatzeko ekarri dogun mozino eratorriaren helburua da, hain zuzen be, faktore bi horreek konpontzeko neurriak sartzea, bai dekretuetan jasotako kontraesanak, baldintza murriztaileenak kenduz, bai plaza eskasiari erantzutea be.

Azken baten, ekimen honegaz proposatzen gabizana da zaintzaile informalek atsedean hartzeko daukien eskubidea bermatzea. Eta hori lortzeko, lehenengo eta behin proposatzen dogu urtean 30 egun naturalera luzatzea atsedenaldira. Horretarako, Aldundiak aldi baterako egonaldiak eskaini beharko ditu sareko egoitza-guneetan, menpekotasuna daukien pertsonen behar dabezaen zainketen berezitasunetara egokituta. Dekretu bik arautzen dabeza dira aldi baterako egonaldiak: 124/2021 Foru Dekretua, zaintzaileen atsedeanari lotutako prestazino ekonomikoa arautzen dauena; eta 84/2014 Dekretua, menpekotasuna daukien personentzako egoitzetan aldi baterako egonaldiak egitea arautzen dauena. Dekretu bietan aitatzten da zaintzaile nagusiaren atsedenerako eskubidea egoitza-zentroetako aldi baterako egonaldien bidez emongo dala, baina lehenengoak ezartzen dau atsedenaldira jarraiko 15 egunekoa izango dala, eta, gainera, 15 egun baino gitxiagoko atsedenaldira eskatu ezker, gainerakoak ezin izango dirala erabili. Bigarren dekretuak ezartzen dau egonaldiaren gitxieneko iraupena egun natural bikoa izango dala, eta gehienez 30 egunekoa izan leitekela. Eta dekretu arautzaileen arteko inkoherentzia horren ondorioz planteau dogu 30 eguneko atsedenaldira orokorrean ezarri beharra, jarraikoak izan zein ez.

Gure mozinoaren bigarren puntuak Aldundiari eskatzen deutso sareko zerbitzuen egoeraren diagnostikoa egin daiala, eta diagnostiko hori Batzar Nagusietan aurkeztu

daiala. Interbentzinoaren hasieran esan dogunez, atsedean hartzeko eskubidea ez bermatzeko errazoietakoa bat baliabide erabilgarrien faltegaz lotuta dago. Aurreko Osoko Bilkuran esan geuntsuenez, familien atsedean-eskaeren %50 baino gehiago ukatu egiten dira, eta ukapen horreen 3/4 plazen eta eskaeraren arteko desorekaren ondorioz gertatu ziran, zainketa-premibaren motaren eta atsedean-eskaera egiten dan dataren arabera. Gaur egun, eguneko eta egoitzako arreta-sareko plaza-kopurua ez da nahikoa egungo atsedean-eskaerari erantzuteko, eta, beraz, beharrezko ikusten dogu egoeraren azterketa egitea, zerbitzu barriak hedatzeko beharra igarteko eta zerbitzuon garapena eta inplementazioa egutegira ekarteko, eskariari erantzuteko eta menpekotasuna daukan persona bakoitzak bereziki behar dituan zaintza- eta laguntza-preminetara egokitutako eguneko egoitza-arretako zerbitzua emoteko.

Hirugarrena eta azkena, proposatzen dogu familia-inguruneko zaintzaren prestazino ekonomikoa bateragarria izatea egoitza-zentroetako aldi baterako egonaldiakaz, hau da, prestazino hori ez etetea. Zentzu horretan, uste dogu urrats hori behar-beharrezkoa dala zaintzaileek etxeko ingurunean egiten dabena lantzat onartzeko, eta, gure ustez, erakunde publikoetatik, etxean zaintzea sustatzen dabene politiken aldeko apustua egiten jarraitzen bada, bultzada hori zainketen erantzukizun publiko sozial eta instituzionalean oinarritu behar da; bestela, zainketen feminizazioa betikotzeko arriskua daukagu, eta, gainera, prekariedadean, eta zaintzaren baldintza profesionalizatupei eragin handia eginaz.

Hori da gure jatorrizko proposamena, eta Gobernuari eusten deutsien alderdiek osoko zuzenketa egin dabe. Halanda be, gero akordio bat lortu dogu, gaur eztabaidatzen gabilzana. Eta hor jasoten dira gure taldeak hasieran egindako eskaera biak. Alde batetik, atsedendia 30 egun naturalera arte luzatzea, eta kasu horretan, urtebetean aldi bi; eta bigarren, atsedean hartzeko eskuragarri dagozan zerbitzuen azterketa egitea jasoten da, zaintzaren berezitasunak kontuan hartuta, gaur egun eskuragarri dagoan eskaintza zabaltzeko neurriak aurkeztu daitezkan, eta eskaintza hori Batzar Nagusietan be aurkezteko. Baina, horrezaz gainera, hirugarren puntu bat jasoten dau, eta horri be garrantzia emon gura deusagu; izan be, Aldundiak konpromisoa hartzen dau aldaketok 2023ko aurrekontuan sartzeko, eta, beraz, epe zehatz bat ezartzen da hobekuntzak sartu ahal izateko.

Halanda be, adierazi nahi dogu akordio bat egin ahal izateko, proposamenetik kanpo geratu dala familia-inguruneko zaintzarako prestazino ekonomikoa eta atsedenerako aldi baterako egonaldiak bateragarri egitea proposatzeko puntua. Gure ustez, eskaera garrantzitsua da, eta lehenago edo geroago erakunde publikoek erantzun egin beharko deusie, eta gure taldeak horri buruz lan egiten jarraituko dau. Halanda be, eta akordio honegaz zaintzaileek arnasa hartzeko daukien eskubidearen bermeak nabarmen hobetzen dirala onartzen dogunez, aldi baterako alde batera itxi dogu eskari hori, eta, horregaitik, ez dogu onartuko Euskal Herria Bilduk egin deuskun zuzenketa-proposamena, hain zuzen be gai hori aitatzen eban eta. Azkenen kanpoan geratu da, nire ustez zaintzaile informalentzat aurrerapausoak eta hobekuntzak dakarzan akordio batera heldu ahal izateko.

Nire aldetik besterik ez, gainerako taldeek egingo dabezan ohar eta gogoeten zain geratuko naz. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora De Madariaga Martín. A continuación tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias señora presidenta, y buenos días.

Hainbat bider eztabaidatu dogu zelan aurre egin zainketen krisia dalakoari, eskubide, baliabide eta sistemaren gabeziei buruzko ereduaren beharrezko bilakaerari buruz, gaur egungo eredu berrikusteari buruz, eredu erantzunkide eta personalizatuago bihurtzeko. Nire Taldetik beti defendatu izan dogu gizarte-zerbitzuen garapenean eta hobekuntzan aurrera egiteko beharra, baita zaindua izateko eskubidea bermatzeko be, baina baita zaintzaileen eskubidea bermatzeko be, eta zaintzaile informalen preminei eta eskubideei buruz eztabaidatu dogu gaur, barriro be.

Aurrekoetan, zainketen balio etiko eta soziala, funtsezko izaera eta balioa emotea aldarrikatu dogu. Era berean, erakundeek neurriak hartu behar dabezala defendatu dogu, zaintza emakumeagaz lotzeak sortzen dituan desbardintasunei aurre egiteko. Eta akordioak eta adostasunak lortu ditugu. Arlo publikotik demokrazia zaintzaile erantzunkidea eregiteko, zaintzak gizartean daukan garrantzia aitortu eta ikusarazteko. Genero-ikuspegidun zainketen antolaketa aurrera egiteko, datuak lortzeko eta errealidade eta behar desbardinaren irudi errealagoa izateko. Azken baten, menpeko personeren eta eurak jagoten dabezan personeren eskubideak bermatuko dabezan politikak sustatzeko. Eta gaur egun, persona horreek atsedenerako, errekupezinorako eta aisialdirako denporea eukiteko daukien eskubidea bermatzea darabilgu, edo zaintza-lanek dakarren gainkarga fisiko eta emozionala arintzeko denpora eukitea. Indarrean dagozan araudiek jasoten daben eskubidea da, eta erantzukizun publikotik beteten jarraitu behar da.

Eta gaur aurrera egiten jarraitu gura dogu, eta horretarako Euzko Abertzaleak taldeagaz, zuzenketa bat aurkeztu deusagu Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako mozinoari. Zuzenketa hori Eneritzek azaldu dau jada, eta Foru Aldundiari eskatzen deusagu aurrera egin daiala zaintzaile nagusien atsedena sustatzen, egoitzetan aldi baterako bi egonaldi egiteko aukereagaz, gehienez be 30 egun naturalekoak urtean. Horrezaz ganera, jagokozan aldatetak bideratu daizala, Bizkaiko Foru Dekretu Arautzailean, gaur eguneko Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen markoan aztertzeo, laguntza premina daukien personeren zaintzaileen erespideak kontuan hartuta, berezitasunak kontuan hartuta. Eta Batzar Nagusiotan eskaintza handitzeko neurriak aurkeztu daizala, eta aurreko puntuetan esandako Bizkaiko lurralde historikoaren 2023ko aurrekontuen proposamenean jasoteko.

Uste dogulako indarrean dagoan arau-esparruan jasotako eskubideak garatzen jarraitu behar dala; dagozan baliabideak neurtu eta ebaluatu behar ditugulako, halan bajagoko, eurok berbideratzeko eta hobetzeko; eta ez dagoalako politika eraginkorrik, beharrezkoak eta egokiak iruditu arren, aurrekontu-zuzkidura nahikorik gabe; eta gure helburua izan behar dalako menpeko personak etxean biziteko daukan eskubidea bermatzea, halan nahi izan ezkeru, eta, aldi berean, zaintzen dauen personak bere bizi-proiektuagaz orekatzeko daukan eskubidea bermatzea. Badakigu horretan danok ados gagozana, ñabardurakaz seguru, baina adosteko gai guztion onerako.

Nada más y gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Campo Prieto. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Urkaregi Etxepare andrea.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días.

En el pasado Pleno de Control, en respuesta a la Interpelación presentada por Elkarrekin Bizkaia, el Diputado de Acción Social, Sergio Murillo Corzo, aportó el siguiente dato:

En el segundo semestre de 2021, la Diputación Foral de Bizkaia concedió una estancia temporal en una residencia para personas mayores a 212 personas en situación de dependencia que recibían cuidados en sus domicilios.

Y añadió, 10 veces más que las aprobadas en el primer semestre del mismo año.

Escuchando tal afirmación, parece que ese servicio de respiro va bien.

EH Bildu considera que no es así. Y para comprobarlo examinemos la ejecución presupuestaria.

En 2020, el presupuesto destinado al respiro de las personas cuidadoras informales de personas que reciben la Prestación Económica para el cuidado en el entorno familiar era de 2,86 millones de € y se ejecutaron alrededor de 88 miles de € (3%).

En 2020 hubo pandemia, sí, pero ocurrió algo más para que se materializaran tan pocas peticiones.

De hecho, se introdujo una modificación en el Decreto para facilitar y agilizar la gestión.

En 2021, como se gastó poco, se redujo el presupuesto a menos de la mitad, 1,1 millones de € y se gastaron 250.440 € (23%).

Se amplió, sí, pero, ¿cuántas personas tienen posibilidades de disfrutar de ese respiro?

Las personas perceptoras de la Prestación Económica para el cuidado en el entorno familiar. ¿Y cuántas son?

A 31 de diciembre de 2020, 21.500 personas. Esas son las personas que tenían la oportunidad de disfrutar de ese respiro en 2021.

Y en 2021, $221 + 22 = 243$ personas se acogieron al servicio de respiro, según el dato facilitado por el Diputado.

Es decir, entre quienes tienen derecho al respiro, sólo el 1,13% ha disfrutado del derecho al respiro.

Datu horiek kontuan hartuta, EH Bilduren ustez, atsedeen zerbitzu hori hartzeko baldintzen inguruko hausnarketa sakona egin behar da. Hori esaten dogu atsedenerako zerbitzu hori erabili leikien %1,13k bakarrik erabilten dabelako. Ehuneko oso txikia, eta atsedenerako zerbitzu horretara heltzeko baldintzen ganean gogoeta egitera eroan behar gaituena.

Para hacer efectivo un derecho no basta con que se encuentre recogido en un Decreto Foral, tenemos que analizar bien las condiciones de acceso.

Y eso es lo que exige este tipo de respiro, estudiar bien las condiciones de acceso, porque el derecho está recogido en el Estatuto de las Personas Cuidadoras Informales, pero en la práctica es muy poca la gente que ejerce ese derecho.

Gaurko mozinoan osagai batzuk badagoz, baina, EH Bilduren ustez, osagai horreek ez dabe agortzen atsedeen mota horren ganean behar dan gogoeta.

Gaurko gaia danetz, erdibideko mozinoaren edukira eta EH Bilduk aurkeztutako zuzenketara mugatuko naz.

En el primer punto de la moción se plantea que la duración del respiro sea de 30 días, disfrutados de forma consecutiva o parcialmente. Creemos que debe ser así. No tiene sentido tener sólo 15 días. ¿Por qué 15 y no 30? Y menos si en caso de no coger los 15 días de manera consecutiva, perder la oportunidad de recuperarlos.

La transaccional propone disfrutar en dos plazos, en dos veces, hasta 30 días. Así se recoge en la proposición, No sé cuántas personas habrán utilizado el respiro acogiéndose a esa modificación, pero es lógico, porque si no estamos planteando dos tipos diferentes de respiros, los respiros de primera y de segunda, y no tiene lógica.

En el segundo punto se plantea la elaboración de un estudio que incorpore un diagnóstico de situación de servicios de atención diurna y residencial existentes. El objetivo sería detectar las necesidades de estos servicios en función de sus diferentes características y definir un cronograma de desarrollo de los mismos que permita garantizar el derecho al respiro y a la elección del centro. En el último trimestre de este año se iba a presentar el estudio en las Juntas Generales.

En cierto modo está recogido en el segundo punto de la transaccional, aunque no hay plazo, pero lo cierto es que hay un compromiso para incluir las modificaciones en los presupuestos. Ya veremos qué cambios se plantean.

Y en el tercer punto, hemos presentado la enmienda. Estamos de acuerdo con la idea de hacer realmente compatible el respiro con la prestación económica de cuidado en el entorno familiar. En realidad, son compatibles, pero se suspende la prestación económica. La moción plantea pedir a la Diputación Foral de Bizkaia que las haga compatibles. Bueno, entendemos que la petición es no suspender la prestación económica.

Pero en eso tenemos un obstáculo legal. La normativa actual obliga a la Diputación Foral de Bizkaia a suspender la prestación económica. En concreto, el Decreto 185/2015, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en su ficha 3.2.1 correspondiente a la prestación económica para cuidados en el entorno familiar y de apoyo a las personas cuidadoras no profesionales (PECEF), establece que: “cuando se compatibilice con una estancia temporal en un servicio de carácter residencial, la prestación económica quedará temporalmente en suspensión hasta que finalice la estancia en los términos regulados por cada Diputación Foral”.

Por eso, lo que pedíamos en nuestra enmienda era que las Juntas Generales solicitaran al Gobierno Vasco la modificación de dicho decreto. Porque realmente pensamos que la modificación de este Decreto debe ser compatible en todo sentido. Es decir, no debe suspenderse la prestación económica. Creemos que no es una cuestión de dinero, el dinero sería bastante poco. Es cuestión de filosofía, y si realmente queremos aceptar el trabajo, o el cuidado que se hace, también deberíamos asumir que el descanso sería en forma de vacaciones, y las vacaciones al menos en el ámbito laboral están retribuidas. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, el señor López De la Fuente.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Gracias señora presidenta. Debaticamos la moción derivada de interpelación presentado por el grupo. Elkarrekin Bizkaia, sobre las medidas para garantizar el derecho de descanso de todos los cuidadores informales.

Proposamena justifikatzeko, proposamena egin dauen taldeak esan dau aurrerapen handia egin dala etxeko ingurunean egiten dan zainketa lantzat hartzeko. Hausnarketa horregaz bat gatoz eta bidezkoa iruditzen jaku aitortzea. Era berean, bidezkoa da esatea Aldundiak atsedenerako zerbitzua emoten jarraitu behar dauela, eta zerbitzu horrek zaintzaileen kolektiboan daukan eragina hobetu behar dauela. Era berean, profesionalak ez diran zaintzaileak aitortzeagaz bat gatoz; izan be, posible egiten dabe erakundeek emondako laguntzakaz baliatuta, menpekotasun-egoeran dagozan milaka personak euren etxean biziten jarraitu ahal izatea eta beren bizitza-proiektua aurrera eroan ahal izatea.

Bizkaia iraupen luzeko zainketen trantsizinoan sartuta dago, baina hori ez da gaur hasiko dan trantsizinoa; izan be, 2018an, Bizkaiak lehenengo pausoa egin eban Zaintzaileen Estatutua onartu zanean. Horren bidez, zaintzaileak funtsezko piezatzat hartzen ziran zainketen ekosisteman, eta eskubide batzuk aitortzen jakezan, besteak beste, atsedenera. 15 eguneko atsedenerako eskubidea, gero unibertsal bihurtu dana, guztientzako plaza-muga barik, eta 15 eguneko atsedenerako eskubidea daukie danek. Horrek kontraesanean jartzen dau zure baieztapena, hau da, ezin dala atsedeen hartzeko eskubidea berme guztiakaz bete.

Gizarte Ekintzako diputaduak, Murillo jaunak, esandako moduan, otsailaren 23ko Kontroleko Osoko Bilkuran zaintzaileei erantzuteko mekanismoak dagoz, baina hobetu behar badira, edo eskainitako zerbitzuetan lurralde-oreka handiagoa lortu behar bada, Aldundiak horretan lan egingo dau, eta gure Taldetik ez daukagu zalantzarik holan egingo dala. Euskal Sozialistak, Elkarrekin Bizkaia, Euzko Abertzaleak batzarkide-taldeak akordio batera heldu gara bitarteko zuzenketa baten bitartez, zaintzaileentzako atsedeen-zerbitzuetan aurrera egiteko. Nire lankideek aitatu daben moduan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu zaintzaile nagusien atsedeneran alde aurrera egiten jarraitzeko, urtean 30 egun naturaleko aldi baterako egoitza-zerbitzu biren bidez, horretarako Foru Dekretu Arautzailean jagokozan aldaketak eginez.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen egungo esparruan, laguntza-premiak daukiezan personoen zaintzaileen atsedenerako alternatibak aztertu daiezala, zaintzaren espezifikotasuna kontuan hartuta, Batzar Nagusietan dagoan eskaintza zabaltzeko behar diran neurriak planteatuz.

Eta, azkenik, Batzar Nagusiek aurkeztutako 2023ko Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren proposamenen bidez lehen aitaturako erantzunak bideratzeko.

Bere garaian, gure Taldetik esan geuntsun Aldundia, une hartako argazki finkotik aldentuta, iraupen luzeko zainketen trantsizinoa bultzatzen ebilela, menpetasun-egoeran dagozan personoen nahiz zaintzaileen bizi-kalidatea, igarritakoa zein objektiboa, hobetzeko helburuagaz. Horrek esan gura dau zaintzaileen bizi-proiektua kontuan hartu eta babestu behar dala. Sistema badabil, eta oso ondo dabil. Estaduko eta Europako erreferentzia gara pertsonen arretan, baina ez gara konformatzen. Aldundiak badaki hobetzen jarraitzeko eskatu behar deusagula, zaugarritasun-egoeran dagozan personei, menpekotasun-egoeran dagozanei edo zaintzaileei erantzun barriak eta hobeak emoten jarraitzeko. Aldundiak badaki eskatzen jakola, eta guk badakigu egunero lan egiten dozuela horretan, egunero hobetzen ahaleginduz, baita funtzionau dauena be, kasurako atsedenerako zerbitzuak.

A la Diputación no le corresponde sustituir a los cuidadores, sino ayudarles y servirles de soporte para seguir desarrollando su proyecto de vida como cuidador y apoyar el proyecto de vida de cualquiera de las personas en situación de dependencia. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor López De La Fuente. A continuación tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Nik uste dot danok bat etorri geinteketzala hori ezinbesteko eskubidea dala esatean, zaintzaile guztien atsedean hartzeko eskubidea. Danok dakigu zainketa informalak bizi-egoera estresagarri gisa be jasota dagozala, eta badakigu osasun emozionalari, osasun fisikoari eta osasun mentalari eragiten deustielara, ez dakigulako zenbat denporan eragiten dauen, eta, askotan, karga fisiko handia be eukiten dabela. Beraz, eskubidea hor dagoala ukazina da, eta nik uste dot, hemen hobetzen jarraitu behar dala esan arren, ze egia da urteetan zehar pausoak emon dirala, baina egia da, era berean, uste dogula asko dagoala egiteko, eta, hain zuzen be, ez dagoala beti behar bezala bermatuta.

Gure ustez, danok ezagutzen ditugu zerbitzu hori emon ez deustien edo emon ez deutsegun personak, hainbat errazoigaitik, eta, beraz, ahalegin egin beharko dogu, gure ustez, baldintzak malgutzen askotan, eta askotan plaza gehiago eskaintzen. Jakina, proposamenaren lehenengo zatiaz ados gagoz, hirugarrenagaz ikusiko dogu 2023ko ekitaldirako aurrekontuak heltzen diranean azaro hasieran. Eta bigarren paragrafoari jagokonez, uste dogu hile batzuk ditugula aurretik, baina ez asko, ze aurrekontuak azaroan aurkeztu behar badira, horrek guztiak uztaillaren 31 baino lehen eginda egon behar dau. Beraz, gustatuko litxakigu konpromiso bat egotea bai jagokon Foru Departamentutik bai talde guztien aldetik. Gure aldetik arazorik ez. Azterketa zehatza egin ahal izateko Gizarte Ekitzako Batzordetik, edo Batzar Nagusietan modu informalean, ikusteko zehatz zelan malgotu baldintzok, eta zelan eskaini plaza horreek, danon artean aitortu dogun eskubide hori benetako bihurtu ahal izateko. Aurkeztutako zuzenketaren aldeko botoa emongo dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias, señora presidenta.

Eskertu egin gura dot taldeen aldetik mozinoa hartzen doan babesa. Agirian geratu da, nire ustez, gutako bakotzak zainketen erantzukizun publikoaz zer ulertzen dogun apur bat sakontzen dogunean, desberdintasunak sortzen hasten dirala. Alvarez de la Fuente jaunak esan dau bizi-proiektuak bermatu behar dirala, menpeko personen eta zaintzaileen bizi-proiektuak bermatu behar dirala. Eta esaldi horretan dino Aldundiari ez jagoko hori ordezkatzeara, babesa emotea baino, Horren azpian ostenduten da, nik uste dot askotan entzungo zenduela hori gure Taldeari esaten; ba menpekotasuna daukien personentzako zerbitzuen eskaera handia atxakiatzat hartuta, erakunde publikoei be oso ondo jatorke, atxakia moduan, zaintza horreek familia-ingurunean bultzatzea, ze hori da orain antolatuta dagoana, esku-lan merkea da, gero eta hobeto prestatua. Ze ganera, emakumeok ondo prestatuta egotea eskatzen dogu euren lana ondo egin daien.

Orduan desadostasun batzuk dagoz batzuek eta besteek ulertzen dogunaren inguruan, espazio informaleko zainketen esparrua zer izan behar dan. Baina, tira, horrezaz aparte, gaur nabarmendu gura dot Urkaregi andreak esaten eban moduan, oraindik asko falta dala aurrera egiteko, eta orain arte komentautakoarent erakusgarritzat guztiz bat nator beragaz, eta gure Taldeak, gainera, horretan lan egiten jarraituko dau, familia-inguruneko zaintzarako

prestazino ekonomikoari buruz be berba egin dogu. Baina nik uste dot akordio horrek aurrerapen asko dakarzala, eta, aurrerapen horren artean gainera: tratu-bereizkeria kenduko dau; orain arte sartzeko egozan aldeak kendu; atsedenerako eskubidea beteteko egunak bikoiztu egingo dira; baliabideen azterketa egingo dogu behingoz, eskaintzara zelan egokitzen diran jakiteko eta holan pentsau ahal izateko ia zerbitzu eta baliabide barririk gehitu daitekezan, menpekotasuna daukien persona bakotxaren zaintza berezeietarako egokiak izan daitezkan, banakako erantzuna emoteko, nire ustez Aldundiak hori bai gura dauelako; eta ganera, epe bat jarri da, Martínez andreak esan dau ia holan dan. Nik be horren alde egiten dot, eta uste dot aldaketa horreek guztiak 2023ko aurrekontuetan sartzeko konpromiso horrek, gitxienez bidean jartzen gaitu, edo hasiera ona da leku horretara bideratzeko.

Guk lanean jarraituko dogu zaintzaile informal horreen eskubideak zabaltzeko, zainketen errekonozimendu praktiko bat egon daiten. Ez naz nekatuko esaten, lan modura, ze horixe dira. Eta lan hori aitortzan eta erantzukizunean oinarrituta egon daitela, eta gizarteak, arlo publikoak eta erakundeek zaintzaren ardura hori hartu dagiela. Eta, batez be, kontuan izan behar dogu, politika barriak hedatzera goazenean, etxeko eremuan, baina baita eremu profesionalean be, zainketen feminizazioa eta prekarizazioa ahalik eta gehien eragotzi behar dogula; izan be, zentzu baten hartu daitekezan neurri batzuk bestean dagozan aldeak handitu lekiez.

Nire aldetik bakarrik eskertu mozinoaren alde egitea eta Murillo jaunari zabal jokatu izana adostasun honetara heltzeko. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora De Madariaga Martín. Tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias de nuevo.

Ia, guk be ezbardin en arteko akordioari balioa emon gura deusagu. Ezinbestekoa da guztiok alkarregaz lan egitea, batu ahal izateko. Alkarlanetik bakarrik egin ahal izango jake aurre erronka barriei, eta dagoeneko agenda politikoan dagoan zaintza-eredu barri horretara igaroteak dakarren erronkaren aurrean, interesak komunak izan behar dira, beste interes mota batzuen gainetik.

Aurrera egin behar dogu, eta zaindua izateko eskubidea bermatuko daben neurriak bultzatzen jarraitu behar dogu, zaintzaileen ongizatea eta eskubideak bermatzeagaz batera, gaur egun ondino gehienak emakumeak dira-ta. Eta gaur beste urrats bat emon dogu beharrei babesa eta estaldura emoteko. Pauso txikia dala pentsau daiteke, baina beste pauso bat da, eta pausoz pauso, aldaketa gehiago lortuko ditugu.

Talde Sozialistan uste dogu konponbideen bidetik aurrera egiten jarraitu behar dogula, baina fokoa jarritz beti emakumeak garala gehienbat gure denporea eta bizitza zaintzaren zerbitzura jarri dogunak, eta jartzen jarraitzen dogunak. Gure betebeharra da familia-ingurunean zaintzak onartzen eta errazten dabezan politika publikoak bultzatzen jarraitzea, bai, baina zaintzak eta bizitza-proiektu personalak bateragarri egiteko aukera emon daian, ez daigun aldatu lehengo moduan geratzeko, edo okerrago. Eta egia da laguntza ekonomikoak beharrezkoak dirala, baina gure ustez hausnarketa zerbitzu gehiago eta diru-laguntza gitxiago dituan eredu baterantza bideratu behar dala, prestazinoak zaintzaileari lotu ezker, kulturalki ezartzen jakun rol horretan betikotzeko arriskua daukagulako. Nada más, gracias..

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Campo Prieto. A continuación tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días de nuevo.

Como antes ha dicho Eneritz, la enmienda no ha sido aceptada porque no se ha incluido este punto en la transaccional. Como he dicho anteriormente, entendemos que la prestación económica no debe suspenderse, al menos si entendemos el cuidado como trabajo, y en este sentido entendemos el descanso como vacaciones. Pero como digo, y así se recogía en nuestra enmienda, para ello es el Gobierno Vasco el que tiene que modificar el decreto de cartera de servicios sociales. Sin embargo, y aunque no aceptemos la enmienda nosotros vamos a votar a favor de la transaccional, vamos a votar a favor porque entendemos que se da un paso en cuanto al derecho al descanso que tienen los cuidadores no profesionales, y es verdad, son pequeños, pero son pasos.

Pero tenemos claras dos cosas. Por un lado, que vamos a tener que analizar continuamente el impacto que van a tener los cambios que vamos a aprobar hoy, yo no tengo claro que aunque se amplíen vaya a haber más solicitudes o no. Creo que es un paso hacerlo en la misma situación, pero creo que tendremos que analizar el impacto. Que también tendremos que analizar en los próximos presupuestos, o en general qué tipo de recursos se plantean de cara a la prestación del servicio de descanso, porque yo creo que también ahí tenemos que acertar bien lo que hace falta para que una persona que está cuidada en casa se vaya realmente a otro sitio. Yo creo que ahí hay que hacer una reflexión y decir que nosotros tampoco tenemos la solución, pero creo que tenemos que buscarla entre todos, o pensar si es lo más adecuado en un momento el traslado de casa a la residencia sin más, o podemos ofrecer otro tipo de servicios.

Y por eso, tenemos otro segundo elemento para avanzar, y es que, como he dicho antes, entendemos que lo que se acepta en la transaccional no agota la reflexión profunda que hay que hacer sobre el servicio de descanso. Entonces, tenemos que seguir reflexionando, al menos ese es el planteamiento que hace EH Bildu. Ahora hemos dado un paso, tenemos que evaluar el paso, pero además teniendo en cuenta en general cuál es el desarrollo del servicio de descanso tendremos que hacer una reflexión más profunda.

Seguiremos debatiendo sobre ello, pero hoy hemos dado un paso, o al menos ese es el objetivo de todos. Hemos dado el paso de mejorar el servicio de descanso de los cuidadores no informales. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, el señor López De la Fuente.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Gracias otra vez, señora presidenta.

Laguntzea, indartzea, babestea. Zaintzaileek behar dabe Aldundiak laguntzea eta babestea, indartzea, laguntzea eta indartzea, eta halan egiten dabil zaintzaileen Estatutuaren arau-garapeneagaz. Hori da oinarrizko lehenengo pausoa aitortzea zaintzaileak eta euren atsedenerako, prestakuntzarako, informazinarako eskubideak eraginkortasunez hedatuta, Bizkaia Egiten. Horreek dira Bizkaia beteten dabilen urratsak eta ekintzak. Pauso sendoak eta helburu argia eta ziburra daukienak bide horretan..

Gure Taldetik espero dogu gaurkoaren moduko adostasun gehiago egotea, elkarrizketaren eta proposamenak aurkeztearen bidez akordioak lortu ditugulako, erantzuteko mekanismo hobek sortzeko, zaintzaileen atsedenean aurrera egiteko bidean. Ziur gagoz Diputazio honek kontuan hartuko dituala aurrera egiten jarraitzeko. Urkaregi andrea, lehenengo txandan emon dituzun datuak dirala-ta, esan behar deusut egin diran eskaera guztiei erantzun jakela, eta emon dozuzan datuak atsedeen-zerbitzuari lotutako prestazioari buruzkoak dirala. Baina badagoz beste datu batzuk be, kasurako eguneko zentroetara doazenena, eta 1.300 dira, eta horreek ez dozuz kontuan hartu. Egoeraren mapa aurkeztuko da eta bertan ekarpenak egin ahal izango dira.

Hoy se avanza con la transaccional que hemos aprobado los diferentes grupos de esta cámara, pasando el descanso de 15 a 30 días naturales. Y además analizando alternativas dentro del marco actual del mapa de servicios sociales de Bizkaia, para garantizar más posibilidades de descanso, y cómo no, con el apoyo de los Presupuestos 2023. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor López De la Fuente jauna. La representante del Grupo Mixto no va a participar, la señora Martínez Fernández.

Por lo tanto, terminado el debate sometemos a votación la transaccional acordada. Votos a favor de la transaccional? ¿En contra? ¿Abstenciones?

Como estaba anunciado, se han emitido 48 votos, y los 48 han sido a favor. Por lo tanto, queda aprobada la transaccional.

A continuación el quinto punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000440](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Garantizar la transversalidad de las políticas de igualdad en el Sector Público Foral de Bizkaia.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0000440](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (53A)

Expediente: ([11/B/20/0003229](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000440SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Bizkaiko Foru Sektore Publikoan berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000440SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (53A)

Espediente: ([11/B/20/0003229](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra la señora Urkaregi Etxepare andrea.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias, señora presidenta, y buenos días de nuevo.

En la interpelación sustanciada en el Plano anterior se analizó la integración de las políticas de igualdad de manera transversal en las políticas impulsadas por el Sector Público Foral de Bizkaia.

La principal conclusión que extraíamos era que la implicación de los Departamentos de la Diputación en el desarrollo de las políticas de igualdad está siendo muy desigual.

Y la segunda conclusión era que teníamos por delante un largo camino hasta incorporar el impacto de género en las políticas de las diferentes instituciones del Sector Público Foral.

En este sentido, quiero recordar dos elementos del debate mantenido en el anterior Pleno con la Diputada, para el Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada Martínez:

- 1.- La manera de entender la transversalidad
- 2.- Que el feminismo es de todos y todas

Aurreko Plenoko eztabaidan uste dot igarri zala, eta nik halan adierazi neban, zeharkakotasuna ulertzeko moduan ezbardintasunak dagozala.

EH Bildu considera que la transversalidad exige necesariamente la integración de las políticas de igualdad en las políticas públicas de todos los ámbitos. Así podremos actuar en contra las diferencias existentes en los diferentes ámbitos.

Y reconocemos que no es una tarea fácil, que sabemos que muchas veces hay resistencias, pero, a juicio de EH Bildu, si no las afrontamos, no conseguiremos una nueva Bizkaia donde mujeres y hombres vivamos en igualdad.

Teresa Laespada Martínezek holan amaitu eban hitzaldia: «Feminismoa guztiona da». Eta, hain zuzen be, uste dot inork ezin dauela feminismoa patrimonializatu, eta ez dauela hori egin behar. Zeharkakotasunaz berba egitean esan dodan moduan, feminismoa ulertzeko modu asko dagoz, ez dago feminismo bat, feminismo asko baino, eta ez naz ni izango, ez da EH Bildu izango feminista izatearen edo ez izatearen etiketak jartzen hasiko dana. Zoritxarrez, batzuetan eztabaidek, eta zoritxarrez ikusten gabilz, bide horretara daroe, eta ez da, ezetara be, gure asmoa.

Feminismoa ulertzeko ditugun modu desbardinatetik abiatuta, batzen gaituenari buruzko akordioak lortzeko gai izatea da gure zeregina, eta halan izan behar dau.

Eta horixe da, hain zuzen be, mozino honen inguruan egin doguna, zuzenketa erdibideko bat adostuz. Uste dot zuek guztiok badaukazuela.

Teníamos diferentes puntos de partida:

En la moción planteábamos políticas de Igualdad como una línea transversal y equilibrada:

- revisión de responsables de las acciones del VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres impulsando responsabilidades compartidas.

- Desarrollo la planificación de la integración de políticas de igualdad en las políticas de las diferentes entidades del Sector Público de Bizkaia.

- dar cuenta del desarrollo de los dos puntos anteriores en la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Zuzenketaren abiapuntua eta EAJ eta PSE alderdiek aurkeztutako zuzenketa nahiko desbardinak ziran. Lehenengo puntuak holan inoan:

Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiei eskatzea urratsak egiten jarraitu dagiela bardintasun-politikak indartzeko helburuagaz, prestakuntza, sentsibilizazioa eta tresna barrien sorrera bultzatuz, erakunde honen zeharkakotasunaren kulturaren aurrera egin ahal izateko.

EH Bildu considera que seguir como hasta ahora conllevaría que el desequilibrio existente en la actualidad entre los distintos Departamentos de la Diputación fuera cada vez mayor. De hecho, creemos que debemos tomar la dirección contraria para reducir este desequilibrio.

Para EH Bildu era necesario adoptar compromisos concretos y así lo hemos reflejado en el primer punto de la transaccional:

- Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiei eskatzen deusie bardintasun-politikak indartu dagiezala, eta modu aktiboan parte har dagiela Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako VI. Foru Planean jasotako neurriak sustatzen.

No modificamos el VI Plan Foral para la Igualdad, pero nos comprometemos a impulsar activamente las medidas del mismo por parte de los distintos Departamentos.

Erdibideko zuzenketaren bigarren puntuan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu bardintasun-politikak foru-sektore publiko osoko politiketan zeharka zabaltzeko eta integratzeko.

Y por último, la Memoria Anual del Plan Foral para la Igualdad se ha considerado un instrumento para el seguimiento de los compromisos adquiridos.

A través de esta transaccional creemos haber sido capaces de determinar lo que nos une a pesar de tener diferentes puntos de partida. Y por eso retiramos nuestra moción y votaremos a favor de la transaccional.

Feminismoa guztiona da, bai, baina horrek esan nahi behar dau danok hartzen dogula feminismoa bultzatzeko konpromisoa, eta konpromisoa hartzen dogula bardintasun-politikak politikaren eremu guztietan bultzatzeko. Horregaitik, EH Bilduk azpimarratu gura dau beharrezkoa dala Aldundiko sail guztien eta Foru Sektorre Publikoa osatzen daben erakunde guztien inplikazioa bardintasun-politiketan.

Hoy reafirmamos nuestro compromiso con la incorporación de la igualdad de mujeres y hombres en todos los ámbitos, y damos un nuevo paso: que la incorporación del feminismo sea un compromiso de todas y todos y adquirimos el compromiso también de hacer seguimiento de su desarrollo, mediante la memoria del plan de igualdad. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. Los Grupos Socialistas Vascos y Euzko Abertzaleak presentaron una

moción. Por eso, tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, la señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Gaur EH Bilduk aurkeztu deuskun ekimenaren bidez bardintasunaren arloko zeharkako politikei buruz berbaz gabilz, edo 1995ean Bejingeko Konferentziatik genero-mainstream kontzeptua esaten jakonaz, ekintza politiko osoan txertatuz joan dana, eta gure herrialdean arau-babes zabala daukana.

Eta, beharbada, ona izango litzateke, ez erratzeko, danon artean definitzea eta partekatzea zer dan eta zer ez dan politika publiko guztietan bardintasun-politikak zeharkakoak izatea, noraino heltzen dan kontzeptua. Izan be, nahizta batzuk holan interpretatu, genero-mainstreaminga ez da emakumeei zuzendutako ekintzen batuketa hutsa politika publikoen arlo guztietan, ez.

Europako Kontseiluaren arabera, genero-zeharkakotasuna prozesu politikoak berrantolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea da, prozesuotan parte hartzen daberen eragileek genero-bardintasunaren ikuspegia txertatzeko maila, fase eta politika guztietan. Hau da, hori prozesu bat da, Urkaregi andreak aitortu dauen moduan, konplexua, eta ez da beti lineala. Horregaitik, inplikaturako hainbat eremuren eta eragileren artean erlazino bat dagoalako, argi eta garbi egitura- eta gizarte-balioen aldaketak lortu nahi dituen, genero-desbardintasunak ezabatzea eta benetako bardintasuna lortzea helburu daukana. Beraz, genero-zeharkakotasuneko edozein esperientziak genero-ikuspegia barneratu behar dau, desbardintasunak zuzentzeko jarduera zehatzak egin behar ditu, eragindako emakumeen eta gizonen parte-hartze zuzena sustatu behar dau, aldaketaren eragile diran aldetik.

Baina bide hori, hasieran esan dodanez, ez da bide erraza, bide konplexua da eta arazoak ditu. Izan be, arruntenak bost multzotan laburtu daitezke. Oztupo horreetako lehenengoa kontzeptu horrek zer esan gura dauen ez ulertzea da. Batzuek emakume gehiago sartzera mugatzen dabe.

Bigarrena, bardintasun-printzipioa betetzeko errezeloak, hau da, legezko betebeharretik konpromiso personalera igarotea.

Hirugarrena, generoaren kontuaren ikusezintasuna. Arlo horretan ez dago neutraltasunik, eta ez da aukera bat, neutraltasuna bardintasunaren arerioa dalako.

Laugarrena, genero-ikuspegi integratuan espezializatutako gaitasunik eta gaikuntzarik eza.

Eta bosgarrena, diskurtso publikoaren eta zeharkakotasunaren aplikazino errearen arteko inkoherentziak.

Eta hemen ez dau balio diskurtso politikoki zuzenagaz, gero lehen egiten zan gauza bera egiten jarraitzeko, aldaketa barik langileen etsipenean, baliabide ekonomikoetan, funtzinoetan, lantaldeen osaeran. Erabagiak hartzeko prozesuetan aldaketarik egon barik, ezer ez da aldatuko eta, beraz, ez da zeharkakotasunik egongo. Baina aitatu ditudan eragozpen horreek ez dira gaundituezinak. Eta sozialistok borondate sendoa daukagu, baita konpromiso irmoa be politika egiteko modu hori bultzatzen jarraitzeko. Izan be, argi eta garbi lortu gura doguna da benetako bardintasuna lortzea, genero-desbardintasunak ezabatzea, emaitzen bardintasuna zailtzen daberen mekanismoak eta lan-metodoak zuzentzea, eta baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko bardintasuneko birbanaketa-ereduak eta emakumeak aldaketaren eragile gisa ahalduntzeko erreduak bultzatzea.

Horregaitik, oso garrantzitsua da jakitea zertan gabilzan Foru Aldundian. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailean zer egiten dabilzan, Teresa Laespada buru dala, gure politika publiko guztietan genero-zeharkakotasuna aplikatzeko. Ba, errepasso telegrafiko bat egingo dot, ze, gainera, ikusten dot denpora barik geratzen nagoala. Baina zuek argazki bat euki daizuen, ze, gainera, Teresa Laespadak zoragarri egin eban aurreko Osoko Bilkuran.

Lehenengo eta behin, erakunde osoa kontzientziatzen dabilz zeinen garrantzitsua dan zeharkakotasuna gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna lortzeko estrategia eraginkor gisa, eta hori, besteak beste, oso baliotsuak diran tresna biren bidez egin ahal izan dogu: bata bardintasun-planen ebaluazioen bidez; besteak VI. Bardintasun Plana egin dogun moduan, eta aurrekontu guztietan generoaren zeharkakotasuna sartuta.

Bigarren, politikariak eta teknikariak aldaketarako eragile bihurtzeko prestatzen eta gaitzen hasita dagoz.

Hirugarren, genero-arrakalak igarten dabezan politikak neurtzeko tresnak ezartzea. Hori oinarritzkoa da gero zuzendu nahi badogu, eta horregaitik ditugu EPIGak, planen etenbako ebaluazioak, arauak, berariazko azterlanak.

Laugarren. Genero-ikuspegia politika guztietan sartzea, hasieratik bertatik. Eta horretan gabilz. Hitzaldietan hainbeste atera ez diran gai barrizailleagoak aitatzearen, une honetan diru-laguntzen gida edo kontratazino-gida prestatan gabilz.

Bosgarren, bardintasunerako programa zuzenak sustatzea, zuetako batzuek VI. Bardintasun Planaren bidez ezagutzen dituzuenak.

Seigarren. Herritar guztiak sentsibilizatzea bardintasuneko gizarteak eregi beharraz, gure ekintza politikoaren bidez, baina baita sentsibilizazino-ekintzen eta -kanpainen bidez be.

Zazpigarren. Bardintasunerako egitura teknikoak indartzea, politika horreek garatzeko. Eta horretan Bardintasunerako Foru Araua mugarria izan zan, aurrekoa eta ostekoa banatzeko. Tekniken kopurua eta tekniken maila bikoiztu egin dira. Eta zuzendaritza bakarria sortu da, bardintasuneko zuzendaritza bihurtu dana.

Zortzigarrena, eztabaidaguneetan eta erabagiguneetan partaidetza orekatua izan daiten zaintzea.

Bederatzigarrena. Emakumeak ahalduntzeko guneak sortzea, kasurako Bizkaiko Emakumeen Kontseilua eta Lurralde Sarea.

Hamargarrena. Koordinazino- eta baterako gobernantza-egiturak hobetzea. Ezagutzen dituzue hori bultzatzeko sortu diran egiturak, adibidez Sailarteko Batzordea edo bardintasun-batzordeak.

Hamaikagarrena. Baliabide ekonomikoak eskura jartzea bardintasuna indartzeko, halakoa da gure arauan daukagun %1eko benetako konpromisoa, bardintasunerako zuzeneko ekintzetara bideratua. Hau da, gure eguneroko zereginen genero-zeharkakotasunaren aldeko apustu garbia dago, eta bide luzea daukagu egiteko, egia da, baina aldaketa hori geratzeko etorri da. Eta esan geinke norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko zuzenketa transakzional bat egin dogula, Arantza Urkaregik azaldu dauena. Azken baten esaten dau akordio horrek barrero be erakusten dauela jokoan dagoana gizarte hobe, bardinago bat oinarritzeko balioak diranean, guztion artean alkar ulertzeko gai garala. Ze gizarte osasuntsu eta demokratikoki txukun batek, ezin ditu kideen erdiak kanporatu, ezta gitxietsi be genero-arazo

bategaitik, eta gure gaurko akordioagaz beste urrats bat egin dogu norabide onean. Espero dot gainerako taldeek bat egitea akordio honegaz. Eskerrik asko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Gil Llanos. Tienen la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, la señora Porto Gómez.

La Sra. **PORTO GÓMEZ** andreak: Gracias señora presidenta.

Joan dan martiaren 8a oraindik gogoan daukagula, EH Bilduren mozino bat daukagu esku artean, bardintasun-politiken kudeaketan eta gobernantzan pauso bat gehiago egitea sustatzen dauena, foru-sektore publikoaren ekitateari buruzko jardueren plangintzan aurrera egiteko eta jagokozan batzordeei horren barri emateko.

Es importante hacerlo después del esfuerzo y el trabajo realizado por todos los grupos políticos con representación en esta cámara y en el Parlamento Vasco, que nos han destinado a aprobar la modificación de la ley de igualdad. A pesar de la abstención de algunos grupos en el Parlamento, creo que este paso nos honra y nos acerca, poco a poco, hacia una sociedad más justa e igualitaria.

Joan dan martiaren 23an Urkaregi andreak Laespada andreari egindako galderan konfiantza-falta edo igarri zen, Laespada andreak zuzendutako sailak bardintasun-politiken hedapenean identifikatutako oztopoen inguruan. Galdera horri erantzun eutsan diputaduak ez ebalaz ezelako oztoporik aurkitu eta, aitzitik, bardintasuna bezalako zeharkako gai bat zabaltzeko aukera oso positiboa izan zala ingurune guztietan. Hau da, erakunde hau eta bere sail guztiak, diputaduen beraren berbetan, bardintasuna prestasunez, interesez eta borondatez lantzearen alde egozan. Nire ustez, horrek lan kualitatiboa nabarmentzen dau, edozein lan kuantitatiboren gainetik.

VI. Bardintasun Plana bete-betean garatzen dago, 21-24 denpora-esparruan. Lau jardun-arlo proposatzen ziran, eta Urkaregi andrearen proposamena, nire ustez, bigarren jarduera-eremuan aitatzen da, barne-koordinazinoko egituretan. Gogoratu esparru horrek berak 3 jarduera-ildo dituala: emakumeen eta gizonen Bardintasunerako Sailarteko Batzordea, Bardintasun Taldea Sailarteko Talde Teknikoa eta, azkenik, gizonen eta emakumeen bardintasunerako Sailarteko Batzordeak.

Sail arteko Batzordearen lehenengo eginkizuna foru-sailen arteko zubi lana egitea da, bardintasuna eta gai horretan indarrean dagoan araudiaren aplikazioa bultzatuz. Eta urtero koordinatzen dira sail bakoitxak hartu beharreko neurriak. Arinago ibili geintez? Ezarri geinkez iraungitze-datak lortu nahi ditugun helburuak lortzeko? Beharbada, baina garrantzitsuena da prozedura eta protokolo barriak barneratzea, beste edozein erreformak edo antolakuntza-barrikuntzak bezala, denporea eskatzen dabenak. Bigarren jarduketari jagoko, besteak beste, bardintasunaren arloan jarduteko proposamenak koordinatzea eta ezartzea, eta proposamenok Foru Aldundiko departamentu bakoitxari eta sektore publikoari eragingo deusie. Hori ez da egiten gauetik goizera, eta barriro be denporea behar dogu.

Zer gogoratu gura dot neurriokaz? Zer tresna daukaguz, baina barriro be aurrera eroateko denporea behar dogu, gizartean sartzeari behar dogulako. Ezin dogu datarik emon erakunde batek modu barri baten lan egin daian. Bardintasunagaz lotutako erreforma horren gako sakonera da, ez dau balio beste persona batzuei hainbeste gustatzen jaken inposizinoak. Horren orde fase batetik eregi behar da, eta zeharkakotasun-kultura bat indartu behar da, azken helburu argi baterantza doana, eta hemen gagozan guztiok partekatzen doguna. Genero Bardintasunaren Europako Institutuak, GEEak, genero-ikuspegia politikan eta administrazio publikoetan integratzeko ziklo bat proposatzen dau, etengabeko edozein

hobekuntzako PDFA ziklo bat besterik ez dana. Eta galdera honeei buruz hausnartzea gurako neuke:

- ¿Tiene definidos planes esta Administración? Yo creo que la respuesta es clara, y es que sí.

- ¿Esta Administración tiene planificado y calendarizado un plan de actuación? Respuesta: otra vez afirmativa.

- ¿Tiene esta Administración alguna actuación en marcha? Hemos hecho recientemente el presupuesto, para ejecutarlo en 2022. Por lo tanto, vuelve a ser afirmativa.

- ¿Se revisan las comisiones y se plantean nuevas posibilidades de actuación? ¿No es eso lo que estamos haciendo aquí?

Barriro be VI. Berdintasun Planera jota, talde sinatzaileek sinatutako zuzenketa transakzionala osatzen daberen 3 puntuek zuzenean balioesten dabe jarduera-plana bera. Gobernu onaren 1. ardatza hobetu geinke, eta, zalantza barik, 1. programa, Konpromiso politikoa handitzea 1.2 eta 1.3 helburuetan, funtsezkoa izango litzateke hemen onartutako eta babestutako proposamenetarako. Duda barik, 2. programa be, Langileen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzekoa, Aldundiak etengabe txertatzen joatea sustatzen dauena berdintasunaren alde administrazinoko teknikariengan. Edo 3. programa, lan-prozeduretan genero-ikuspegia sartuta. Administrazinotik kanporako ardatzak be aitatu daitezke, baina esku artean geunkan proposamenak kudeaketa eta barne-gobernua aitatzten zituan, eta horregaitik nabarmendu nahi ditut jarduera horreek beti barrutik eta beti aurrera.

Ez neuke ahaztu gura Euskadiren egoera, Eurostaten Female Achievement Index delakoaren esparruan. Horrek 69,9ko puntuazioagaz kokatzen gaitu bardintasunaren errealidadean, beste autonomia-erkidego batzukaz alderatuta. Estaduko bigarren erkidegoa gara Nafarroaren atzetik, 71.1 puntu dituana, eta Estaduko batez bestekoa 62,9 dala kontuan izan daigun. Europar Batasuna osatzen daberen 235 eskualdeetatik 31.a gara, hau da, hobetzeko tartea daukagu, jakina, baina bide onetik goaz, zalantza barik.

Aurrera egin behar dogula uste dot, ikuspegi horretara egokitzeke eta egoera hobea onartzeko eredu izan daitezkezen politikak aurkituz. Hurrengo hitzaldirako itxiko ditut, baina aitatu gura neuke onartu ditugun 3 akordioek literatura akademikoan erreferentzia askoren babesa daukiela. Bertan nabarmentzen da mantso eta esku artean ditugun lan-planak berraktibatzeke premineagaz konpromisoa, eta alkarregaz heldu geintezkezala puntu komun bateraino. Proposamen honek gizarte bardinzaleago, orekatuago eta ekitatiboago batera eroango gaituela esan gurako neuke, eta ez dala amaiera izango, bide onetik beste pauso bat baino. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Porto Gómez. Tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, la señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Azkenengotik hastearren, nik uste dot ekimen zehatz honek gizarte bardinago batera eroango gaituela esatea, errespetu osoz, gehiegizkoa dala. Egia da bardintasunerako bidean pausoak emoten joan behar dala, egia da pausoak, zoritxarrez, txikiak izan dirala, baina espero dogu, edo guztion artean lan egiten dogu ahalik eta sendoenak izan

daitezan. Egia da Foru Aldundiaren VI. Bardintasun Planaz gabilzala, hau da, ez gara hutsetik hasi. Zorionez, 2000. urtetik, eta legealdi bakoitzagaz batera, Foru Aldundiak bardintasun-plan bat onartu dau, eta egia da, oraindino be geratzen dirala, honezkero aitatu dau nire aurretik berba egin dauenak, ez naz errepikatzen ibiliko, gauza asko hobetu behar dira.

Baina egia da ekimen zehatz hau urrats bat gehiago dala, beste urrats bat, hau da, irakurten badogu, esaten dan gauza bakarra da bardintasun-politikak indartzeko, VI. Foru Planean jasotako neurrien sustapenean modu aktiboan parte hartuz. Esan gura dot, bai, sail guztien barruan, Foru Administrazioan parte hartzen daben persona guztien barruan, indartzen jarraitu beharko dala. Baina esan nahi dot neurri barritzailerik ez dagoala, beharbada gehiago da gogorazoteko lanean jarraitu behar dala, ze sarritan papelean edozer jarri daiteke, planak egin daitekez, eta, gero, izan daben eraginkortasun ikusten goazenean, askori behar baino gitxiago dala irudituko jaku. Jakina, Bizkaiko Batzar Nagusiek bardintasunaren aldeko konpromisoa berresten dogu, bai eta bardintasun-politikak zeharka integartzekoa be. Eta uste dot danok ados egongo garala, sailek neurri horreen inguruan egiten dabezan ekintzen bilakaeraren barri emoteko be.

Beraz, Talde Popularrak ekimen honen alde bozkatuko dau, barriro dinot, badakigu zoritxarrez oraindino erresistentzia asko aurkitu geinkezala, eta egia da, ez dakit nork esan dauen tribunan lan sakona dala, personatik personara, ekintzatik ekintzara, prestakuntza handikoa eta pazientzia handikoa. Egia da Foru Administrazioan 22 urte daroaguzala bardintasun-neurriak lantzen, 2000. urtetik. Eta espero daigun emon diran urrats horreek, azken 22 urteetan ezarri diran oinarri horreek, hemendik aurrera gero eta emaitza egokiagoak eta epe laburragokoak izatea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, la señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Barriro be agirian geratu da bardintasuna lehentasunezko ardatz gisa jarriko daben elementuetan aurrera egiteko beharra, baita diskriminazio mota guztiak desagerrarazoteko benetako bardintasuna beteten dala bermatuko daben tresnak ezarteko beharra be. Gaur, erdibideko mozinoa aztertzen gabilz, eta aurreratu egingo deusuet babestu egingo dogula, haren helburu nagusia Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauan legitimoki egiaztatu zana betearazotea dalako.

Urkaregi andreak azaldu dauenez, mozino honetan, eta laburpentxu bat egitearren, Aldundiari eskatzen jako Bardintasunerako VI. Planean jasotako neurrien sustapenean parte-hartze aktiboagoa izan daiala, foru-sektore publikoan bardintasun-politikak zeharka hedatzeko eta integartzeko, eta sailen bilakaeraren eta parte-hartzearen barri emoteko. Egia esan, neurriok zeozelan jasota dagozala Bardintasunerako Foru Arauan.

Genero-ikuspegia dala-ta, 26. artikulua zera dino: Bizkaiko sektore publiko guztiak sartu behar dau genero-ikuspegia aurrekontu-prozesuaren maila guztietan, eta diru-sarrerara eta -gastu publikoak egokitu behar dabez, gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna eraginkorra izan daiten dagozan oztopoak kentzeko helburua bete daien. 20. artikuluko 2. puntuak Bizkaiko Foru Aldundiko sail, erakunde autonomo, euri atxikitako enpresa-entidade publiko eta foru-merkataritzako sozietate guztiek txertatuko dabe genero-ikuspegia, jagokezan sektore-politikakaz. 50. artikuluan esaten da interseksionalidade-printzipioa kontuan hartuta txertatuko dala genero-ikuspegia diseinatzen, garatzen eta

inplementatzen dituan eta ebaluatzen dituan politika sektorial guztietan, eta bere eskumeneko eremuetan neurri berenberegikoak hartuko dituala emakumeen eta gizonen bardintasun eraginkorra eta erreala lortzeko, diskriminazioa kentzeko eta indarkeria matxistak desagerrarazteko.

Bestalde, EPIG txostenak be badaukaguz, aurrekontuakaz batera aurkeztu behar diranak, genero-ikuspegia daukien neurrien bilakaera eta neurrioi emoten jaken aurrekontua aztertu eta egiaztatu ahal izateko, sail bakoetak parte hartzeko daukan konpromisoa egiaztatuz. Ikusten denez, Bardintasunerako Foru Arauak gaur hemen lantzen gabiltzan mozinoaren ildo bereko neurri batzuk jasoten ditu. Halanda be, arazo nagusia da ez dogula beteten dala bermatzen dauen elementurik. Oin dala lau urte onartu genduan Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua, genero-ekitatea jardun politikoaren oinarritzko printzipioan jartzen ebana, araudian genero-ikuspegia sartuz zeregin publikoan, eta arau-mailan kokatuz genero-ikuspegia aplikatu beharra erakunde publiko eta pribaduetan. Foru Arau horrek, esan zanez, bardintasuna Lurraldeko agenda politikoaren lehenengo puntuan jartzen eban, betebeharrak historikoa andrentzat. Halanda be, ikusten denez, sail batzuen agendan bardintasuna apur bat alboratuta ei dago.

Gaur hemen darabilgun eztabaidak mahai gainean jarri dau gure taldeak 2018an, Foru Araua onartu zanean, adierazi ebana; hau da, Bardintasunerako Foru Arauan ez zala berme nahikorik ezartzen bete daiten, ez jakula nahikoa iruditzen Arauak jasoten dauen berme-araubidea, eta Arauak berak ezarri beharko leukezala beharrezko baliabideak, eta ez sailek eurek hartutako erabagiaren pentsudan itxi, euren lehenetsunaren pentsudan, ze ikusten dan moduan, beste lehenetsun batzuk daukiez.

EPIG txostenek emoten deuskuen argazkian egiaztatzen da egoera hori. Eta zer erakusten deuskue? Ba sail batzuek Bardintasunerako Foru Araua beteteko oinarritzko neurri batzuk jasoten dabezala, baina tramite huts moduan. Eta adibide batzuk emongo deusuedaz. Lau sailek izan ezik, gainerakoek ez dabe emakumeen eta gizonen bardintasunerako zuzeneko krediturik bideratzen euren programetako bakar baten be. Sail horreetan ez da egokitzen josten genero-ikuspegia sartzea programa garrantzitsuetan, kasurako adinekoren programetan, desgaitasunen bat daukien personaren programetan, zerga-kudeaketarako programetan edo zerga-politikako programetan. Izan be, hainbat urtez bardintasunari buruzko prestakuntza jaso eta ostean, sailen erdiak baino gehiagok oraindino ez dabe argi ikusten zer dan aurrekontua genero ikuspegiagaz egitea, eta horrek eragiten ditu gaur hona ekarri gaituen desorekak.

Eztabaida hau Elkarrekin Podemos-IUK urtero jartzen dau mahai gainean sail bakoetako aurrekontueta, data heltzen danean. Guk eztabaida hori batzordeotan aitatu dogu; izan be, emakumeen eta gizonen arteko desbardintasunak ezabatzeko proiektuak eta aurrekontuak diseinatzea, sail bakoetaren eskumeneko arlo nagusietan bardintasuna sustatzeko, Bardintasunerako Foru Arauaren agindu argia da, eta tamalez, ez da beteten. Bizitzako eremu guztietan bardintasun-baldintzetan parte hartzeko eskubidea gauzatzeak beragaz dakar aitorten teoriko bat ez eze, jarduteko modu bat be, eta aurrekontu publikoak dira lurralde bateko politika ekonomikoa eta soziala gauzatzen daben tresnak, eta hor hasi daitezke euren lehenetsunak eta emakumeentzako bardintasun substantiboaren konpromiso-mailak neurtzen.

Gaur mozinoaren alde bozkatuko dogu, esparru publikotik bardintasunean aurrera egiteko beharrezkoa dan konpromiso politikoa bultzatu ahal izateko itxaropenagaz, eta espero dogu mozino hau hildako dokumentutzat ez jaiotea. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias, señora presidenta.

Ni Begoña Gil Alderdi Sozialistako ordezkariak planteau dauen gai bategaz geratuko naz, ze uste dot hor dagoala giltza: feminismoaren integrazinoa zelan ulertu behar dogun, eta akordioak lortzeko eta etsipenik ez izateko zer egin geinken. Esaldia hau da: “bide konplexua da, zailtasunez bete”. Eta uste dot kontziente izan behar dogula, eta uste dot kontziente garala, nahizta askotan aitortu gura ez. Ze eremu batean edo bestean borroka feminista honetan denpora asko daroagunok, uste dot liburuak eta liburuak bete geinkezala pentsau bako momentuetan aurkitu ditugun arazoakaz, bardintasunean aurrera egin ahal izateko.

Orduan, uste dot Alderdi Sozialistako emakumeok, EH Bilduko emakumeok bizi izan dogula; ziur nago Alderdi Jeltzaleko emakumeok be, Podemoseko emakumeok... danok, gure erakundeetan edo, orokorrean, erakunde mistoetan aldarrikapen feministak planteau behar izan doguzanean Begoñak planteau dituan arazoakaz topo egin dogu. Ez ulertzea, paso egotea, ikusezintasuna, neutraltasuna, koherentziarik eza... eta jarraitu neike, askoz gehiago. Baina, nire ustez, zailtasunok onartu egin behar doguz, eta jakitun izan hor dagozala, errekonozimentu hori izango dalako horri aurre egiteko aukera emongo deuskuna. Eta, nire ustez, gaur erdibideko honetan, persona batzuek pentsauko dabe ez dala beharrezkoa, honezkero oso ondo goazelako; edo, tira, azkenean ez dau askorik esaten; edo, dagoeneko araua daukagu, egin diran interpretazino desbardinatarako. Ba nire ustez, erdibideko hau lurrean jartzen da, lurrean jartzen da ze bardintasunaz berba egin eta Foru Arau bat idatzi eta danok alde bozkatzea, azkenean papelean geratzen da.

Baina gero, papelean geratzen dana garatu egin behar da, eta garapen hori kosta egin jakula ikusten dogu. Ni ez nago Gobernuan, baina uste dot Gobernuan dagozan alderdi biek onartu behar dabela kostetan jakiera. Kostetan jakie, ze gaur esan deuskue kontratazinoarena, eta aurrekoan esan neban, orain egiten dabilzala, eta oin dala 3 urte egin behar zan. Eta batzuk oso astun jartzen gara denpora kontuagaz, baina, eta badakigu eragozpenak dagozana, baina tira, denporea zeozertarako da. Egin egingo da, eta pozten naz egingo dalako, baina benetan.

Entonces, yo creo que en ese sentido eso es lo que quiero poner en valor; que el camino no es fácil, que tenemos diferencias, y eso lo he dicho al principio, incluso diferencias cuando estamos en la oposición o en el Gobierno, pero que debemos ser capaces de subrayar lo que nos une. Y que en la transaccional se plantea eso. Y tomamos tierra en mi opinión, tomamos tierra porque la norma foral de igualdad está muy bien, pero cuando la ejecutamos tenemos dificultades. Y precisamente en la norma foral de igualdad tenemos el plan foral de igualdad como instrumento de planificación, y por eso en la transaccional, y también en la moción, planteamos cómo utilizar la norma foral de igualdad. Precisamente, para garantizar la implicación de todos los Departamentos de forma activa, y he planteado que hemos puesto en valor una herramienta de seguimiento, y es la memoria anual, que normalmente está ahí, pero a la que se le hace poco caso. Entendemos que debe ser una herramienta de seguimiento y evaluación, no sólo cuando se acaba el plan de igualdad para evaluarlo. Creo que hay que tener una evaluación continua y la memoria anual nos sirve para eso. Y entonces, yo quiero poner en ello el valor.

Para terminar, tenía que volver a ponerlo sobre la mesa, yo creo que se insiste mucho en las diferentes formas de entender la transversalidad. Puede ser una cuestión de matices, pero la representante del Partido Socialista, Begoña Gil, plantea qué cosas ha hecho el departamento de inserción social, igualdad y empleo, y yo insisto siempre en que los otros departamentos también lo hagan, porque creo que no sólo es lo que hace el Departamento que puede ser principal o tiene que impulsarlo, sino lo que hacen todos, y yo creo que es lo que tenemos que hacer, y es lo que tenemos que impulsar.

Y esperamos que lo que de verdad se plantea en esta transaccional sea capaz de materializarse entre todos y que sea realmente un paso firme para entender la igualdad como transversal en todas las políticas públicas de Bizkaia. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. A continuación tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, la señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Buenos días de nuevo. Gracias señora presidenta.

Urkaregi andrea hasi dan moduan hasiko naz, gaur lortu dogun akordioari balioa emonaz, eta egin behar doguna bide konplexua dala aitortuaz. Eta uste dot positiboa dala politikan akordioak lortzea, oro har, interes komun edo orokor baten aldeko jarrera maximalistei uko egitea esan gura dauelako zelanbait, eta bardintasunaren alde egiteak, nire ustez, merezi dau.

Nire lehenengo hitzaldian aurkitu geinkezan eragozpenak aitatu ditugu, izan be, gaur onartuko doguna, Fernandez andreak garrantzia kendu badeutso be, oso garrantzitsua da. Hemen kontua ez da bardintasunari buruzko ekintza zuzenen batuketea; kontua da politika egitea, politikan bardintasuna zeharkakotasunez gauzatzea, politika aplikatzea, aldaketarako kultura sortzea, balioak aldatzea, gauzak egiteko modua aldatzea, eta hori da nire ustez geroko geratzen dana.

Eta nik uste dot, gainera, garrantzi berezia daukala une honetan bardintasunaren arloan akordioak lortzeak, nire ustez ez diralako garai onak bardintasunerako. Ez dira garai onak bardintasunerako, hemendik kilometro batzuetara gertatzen jakunagaitik, Ukrainan. Asteotan, komunikabideetan emakumeen eta nesken mafien hazkundeaz ohartarazo gaitue. Ez dira garai onak bardintasunerako, genero-indarkeria ukatzen daben edo apur bat erlatibizatzen daben alderdi politikoak dagozanean, 2022an 44 emakume baino gehiago hil dabezanean, eta 1333 uste dot kontua eroaten danetik, 2003tik. Eta nik uste dot honelako tribuna bat izateko erantzukizuna daukagunok, egoera pribilegiatua daukagunok, gure ahotsa erabili behar dogula bardintasunaren alde jartzeko aukera daukagun guztietan.

Eta Urkaregi andreari zehaztasun egitearren, feminismoez pluralean berba egiten dodanean, nik ez dot uste feminismoak dagozala, nik uste dot feminismoa dagoala singularrean, ekologismoak eta antirrazismoak ez dagozan moduan. Eta, gainera, amorru apur bat emoten deust emakumeagaz zerikusia daukien gauzak zeozelan lausotzea. Feminismoa bat da, eta gizonen eta emakumeen arteko bardintasunaren aldeko borroka da, ze arriskua egon daiteke Arantza, dana feminismoa bada ezer be ez izatea feminismoa, eta, nire ustez, benetan mehatxu asko daukaguz une honetan.

Nire hitzaldiaren lehenengo zatian esan deusuet neutraltasuna ez dala aukera bat, neutraltasuna bardintasunaren arerioa dala, eta horregaitik, egiten gabilzan bidea, barriri dinot, bide korapilatsua da, baina ez ezinezkoa, eta borondate politikoa eta konpromiso instituzionala behar dira. Eta nik uste dot gaurko eztabaidak borondate politiko hori eta erakundeen konpromiso hori berresten dauela. Eta gauza bat adierazi gura dot gaur onartu dogun zuzenketari buruz. Zati bat dago, lehenengoa eta bigarrena garrantzitsuak dira bidean eta konpromisoan berresten garalako. Baina nik uste dot hirugarrena, ez dakit behar dan besteko arretaz irakurri dozuen, erabagigarria dala. Eta erabagigarria da, guztioi argazki bat egingo deuskulako, batez be lehenengo lerroan esertzen diranei, eurak diralako Batzarrotan hartzen diran konpromisoak aurrera eroan behar dabezanak. Eta nik uste dot ona dala geure burua erretratatea, politika honeek egingo doguzala esan ez eze, neurtu be egingo ditugula, eta,

gainera, sail bakotxak zeharkakotasunagaz eta bardintasunagaz daukan konpromisoa ikusi daitela. Nik uste dot akuilu bat dala Foru Gobernu honentzat, etxeko lanak ipintea. Eta benetan uste dot gaur une egokia dala akordio hau egiteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Gil Llanos. Tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, la señora Porto Gómez.

La Sra. **PORTO GÓMEZ** andreak: Gracias de nuevo.

Garrantzitsua da, dirudienetz danok bat gatzela urrats txiki bat izateagaz, Fernandez andreak esandako moduan. Guztiontzat benetan bardintasunezkoa izatea espero dogun azken puntu batera hurreritzen gaituan urrats bat dala esatean.

Baina aitatu barik itxi ditudan arazoetara jo gura do. Gil andreak aitatu dau, baina literatura zientifikoan aurkitzen diran gogoeta batzuk itxi ditut. Orduan, *Howlanden* iazko argitalpen bat topau neban, eta bertan esaten zan, jakina, administrazio publikoaren kudeaketa publikoa eta genero-ikuspegia gai gatxa dala 3 arrazoigaitik: lehenengoa, argazkian onena nor dan aurkitzeko, zure ingurura egokitzeko modukoak dan «One Size Fits All Policy» hori aurkitzeko. Lehen aitatu dodan *Fiveko* bigarren eskualdea Hovestaden da, eta ez dot uste ezer erakutsi ahal izango deuskunik. Ez dot uste ezer erakusteko dagoanik, bere sare publikoagaitik, bere maila anitzeko egitureagaitik, bere egitura kulturala gurearen aldean ezbardina dalako. Bakotxak bere bidea zehaztu eta bakarra egin behar dau. Orduan, jakin gurako neuke zein izango litzatekeen Bizkaiko errealidadea, Bizkaia moduko lurralde baten errealidadea *Five* indizearen barruan, baina ezinezkoa da hori eukitea. Beraz, Euskadiko errealidadea zein dan ikusi behar dogu, eta errealidade horrek bide onetik goazela esaten deusku.

2018. urtean, (...n) egileok ebaluazio sistemikoa egin eben Europar Batasuneko gobernuen esparruan bardintasun-politikakaz zer gertatzen zan jakiteko, eta zera ikusi eben: kasu askotan politikak aplikatzen ziran, baina gero ez ziran gauzatzen. Nire ustez, gaur aurkeztu dogun proposamenak lehenengo puntuan eta bigarren puntuan azpimarratzen dau beharrezkoa dala gauzatzea eta erabakitaz betetea, eta beti aurrera egitea, sail guztiei eskatuz eta Aldundi honen bardintasunaren aldeko konpromisoa berretsiz.

Eta, azkenik, Euskaditik, Deustuko Unibertsitateko ikertzaile batek, García Muñozek, bere artikuluan azpimarratzen eban zalantzan jartzen ebaluazio Europar Batasuneko erakundeen benetako konpromisoa, eta egiten eban lana interes normalean kontrajarrien aurrean, eta Batasuneko kide diran herrialdeek, politika diferentzialakaz. Uste dot honelako eztabaidek erakusten dabela errealidade hori, ikerlariak aztertutakoa kasu honetan, nahiko urrun dagoala Bizkaiko kasutik, ze guk onartzen dugu lan egin behar dogula, baina horretan gabilzala. Eta, nire ustez, izenpetuta egoan zuzenketaren hirugarren puntua nabarmenten da hemen, GEEaren PDFAk berak planteatzen dauen moduan, onartzeko, ebaluatzeko eta birkalifikatzeko behar horregaitik, aurrera eroango ditugun eta garatuko ditugun ekintzen eta euron bilakaeraren barri emonaz.

Por último, vamos por el buen camino y los pasos que damos hoy nos acercan poco a poco a una sociedad más igualitaria. Gracias a todos.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Porto Gómez. El Grupo Mixto-Partido Popular no tomará parte. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, la señora Cabornero.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias de nuevo señora presidenta.

Urkaregi andreagaz hasteko, nik ez dot esan gura jasota daukagunik, hau da, Foru Arauan jasota daukagulako, dana eginda dago, ez. Partekatzen ahalegindu naz, nahizta Foru Arauan jasota egon, arazoa dala ez dagoala beteko dala bermatzen dauen elementurik. Horixe erakutsi gura izan dot, eta uste dot gaur hemen onartuko dogun mozino honek be ez dauela egingo. Nola ziurtauko dau mozino honek Sailak inplikatzeara genero-ikuspegiaren zeharkakotasunean, aplikatzen dabezan politiketan, zelan ziurtauko da foru-zerbitzu publikora hedatzea? Eta ez daukat zalantzarik hemen gagoza talde askoren eta Sail batzuen konpromisoaz. Ez daukat zalantzarik, eta hemendik aprobetxau gura dot egin dan lanari, egin diran ahaleginei, batez be Bardintasun Sailari, balioa emoteko.

Foru Araua papelean geratzea, papelean geratzeko, eta espero dot papelean ez geratzea, baina horren itxura dauka. Nire aurreko hitzaldian esan dot eta barrero dinot, gaur transakzionatutako mozino hau aztertzen egoteak erakusten dau bardintasunaren arloko legeak egiten dirala, neurriak, planak eta proiektuak onartzen dirala, baina gero bete eta gauzatzea, hori beste kontu bat dala. Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak esan dau, beno, konpromisoa, geldotasuna, denporea behar dogula. Hamarkada bi joan dira 2003an unidadea eta lehenengo bardintasun-plana sortu ziranetik, hamarkada biotan bardintasun-organoa, foru-arau bat, bardintasunerako 6 foru-plan, sailetako eta sailen arteko unidadeak, koordinazino-egiturak, azterlanak, txostenak ezarri eta osotu ditugu. Gil andreak orain arte lurralde mailan egin dogun bidearen errebasoa egin dau. Bai, aurrerapausoak egin dira, bide bat egin da, jakina, baina Foru Araua bera martxan jarri eta garatzeko argi-ilunak egon dira, eta orain be badagoz. Eta horren ondorioz, gaur hemen eztabaidatzen gabiltz ia beharrezkoa dan zeharkako ekimenak sendotzen jarraitzea, eta hori baieztatzeraz dator.

Lau urte dira Foru Araua mahai gainean daukagula, eta, une honetan erdibidekoa behar dogi Foru Arauak 2018tik jasoten dauena gauzatzeko. Ez dot imajinatzen zer belaunaldi izango dan politika fiskala proposatu leikena. Politika fiskal bat zainduko ditutana justizia, orokortasuna eta bardintasun progresiboaren printzipioak, eta kargaren banaketa ekitatiboa, bizikidetzako ereduetan bardintasuna sustatuko dauena, personen zaintzagaz lotutako sektoreen balioa aitortuko dauena, Bardintasunerako Foru Arauko 58. artikulua adierazten dauen moduan Denporan oso urrun ikusten dot.

Laburtuta, gure ustez, gaur hemen onartuko dogunaren moduko ekimenak behar dirala ateraten da. Argi eta garbi erakutsi da hemen bultzatzen, eztabaidatzen eta onartzen dana bardintasunaren arloan, edo ez dan heltzen, edo denporan luzatzen dan, erabagi politikoak beteteko epeak eta betebeharrak alde batera itxita, gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna sendotzea eragozten daben jarrera aldaezinakaz. Begirada more horren inplikazinoa falta da oraindino, hainbat eta hainbat emakume eta neskatoren bizitza aldaratu leikena.

Gaurko mozinoaren helburuak ulertzen eta partekatzen ditugu. Halanda be, errealidadea da genero-ikuspegia daukien neurrien helburuak ez dirala gauzaten, aurrera egiteko benetako oztopoak aurkitzen jarraitzen dabelako, bardintasun-politika sail bakotxaren borondatearen pentsudan dagoalako. Gil andreak be hori aitatu dau, oztopo-sorta horreei buruz jardun dau, eta bildur naz ekimen hori ez ete dan izango patriarkatuaren erosotasun-egoerak sortzen dauen miopia ezabatzeko behar dan antidoto hori.

Esan dodan moduan, aldeko botoa emongo dogu, eta ia gaurkoa ez dan papelean geratzen. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Y terminado el debate, sometemos a votación la transaccional acordada por los grupos.

¿Votos a favor de la transaccional? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

Los votos emitidos han sido 48; y 48 han sido los votos a favor. Por tanto, la transaccional queda aprobada por unanimidad.

Sexto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2022/0000163](#))

Autor: Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

Asunto: Acuerdo entre la Iglesia Católica y el Gobierno de España en torno a los bienes inmatriculados.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000163](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (180A), [Enmiendas: No presentadas](#) (180B)

Expediente: ([11/B/26/0003110](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2022/0000163SE](#))

Egilea: Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

Gaia: Eliza katolikoak eta espainiar gobernuko immatrikulatutako ondasunen inguruan egindako akordioa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000163SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (180A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (180B)

Espediente: ([11/B/26/0003110](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Buenos días a todos, gracias señora presidenta.

En 1947, en la época preconstitucional, como sabrán, la Iglesia católica pudo inscribir bienes que sólo tenían un certificado eclesiástico. De esta forma, la Iglesia católica se equiparaba al Estado para facilitar su inmatriculación y poder inscribir bienes inmuebles no registrados anteriormente a nombre de la Iglesia católica sin tener que presentar ningún otro título además del certificado propio.

Hau da, Eleiza katolikoak diktadoreak zabaldu eutsan zirrikitua baliatu eban jarraian lapurren egiteko, gauekotasun barik eta munduko azpikeria guztiagaz. Esan dodan moduan, herriarena dan ondasun bat lapurtzea. Horregatik, erakunde publiko guztien konpromisoa eskatzen dogu, eta, kasu honetan, Bizkaiko Batzar Nagusia, eskandalu horren ondorioak atzera ekarteko, Bizkaiko Lurralde honeri be asko eragiten deutsezan ondorioak daukaz eta.

Quisiera recordar que, desde la aprobación de la Constitución Española, ninguna confesión religiosa debía tener carácter estatal, por lo que la división entre el Estado y la Iglesia católica debía producirse en todos los aspectos. Sería lógico pensar que seguir otorgando un privilegio a una determinada religión estaba fuera del ordenamiento jurídico, lo que no ocurrió porque en la práctica no se ha respetado esa distinción, violando la Constitución

(que algunos tanto defienden para otras materias) y vulnerando derechos garantizados por la Convención Europea. Y lo que acabo de decir, no lo decimos sólo nosotros, lo dice también el Tribunal Supremo, y en varias ocasiones también el Tribunal Europeo de Derechos Humanos.

Esta ley dictada al amparo de la dictadura quedó sin efecto, pero en 1998 Aznar suprimió el artículo 5 del Reglamento Hipotecario, que eximía de inscripción a los templos de culto. Ello llevó a la iglesia a inmatricular algunos elementos patrimoniales hasta entonces no matriculados, incluidos los construidos, adquiridos o pagados por la ciudadanía y los municipios.

Hau da, PPK, Alderdi Popularraren Gobernuak, baimen moduko bat emon eutsan Eleiza katolikoari ordura arte harrapatu ezin izan zituan higiezin guztiak harrapatzeko.

Ondoren, xedapen horreek indargabetu egin ziran, eta, aldi berean, Konstituzinoaren aurkakotzat jotea eragotzi zan, eta holan orain arte egindako immatrikulazioak legez blindatuta geratu ziran. Gehiago be, 2014an prerrogatiba hori indargabetuko zala iragarri zanean, Eleizeak immatrikulatzen jarraitu eban, hau da, lapurtzen, bidezkoa da gauzei beren izenez deitzea. Adibidez, Gordexolan edo Artzentalesen eta urte horretako azaroan indarrean sartu zan arte lege-erreformak izan eban *vacatio legis*-ean, eta Legebiltzarreko bozketaren ondorengo aldi horretan, Eleizeak Bizkaian be jabetza batzuk bereganatzen jarraitu eban, Elantxoben adibidez.

1998tik, Estaduan 100.000 inguru izan dira lurren, tenpluen, etxebizitzien eta beste ondasun batzuen immatrikulazioak, arlo horretan lan egiten daberen hainbat alkartek eta eragilek dokumentau dabezanak. Espainiako Gobernuak, ostera, Jabetza Erregistroek emondako informaziotik 35.000 aurkitu dituala adierazi dau.

Gotzain Batzarra prest agertu da orain ondasunotatik mila inguru bakarrik arautzeko. Prozedura penal arruntean, adibidez, aurreratzen dot lapurtutakoaren zati minino hori itzultzea ez litzatekeela aringarritzat joko, ustez egindako kaltea konpontzeko. Eta zer esanik ez Eleiza katolikoaren moduko erakunde batentzat, bere izatez, milioi askoko ondarearen jabe izanda. Eta zuzenbide kanonikoan ez dakit zer izango litzatekeen zazpigarren agindua ez betetea.

Dicho esto, la iglesia ha hecho suyos los bienes que pertenecen a otros, o de dudosa propiedad, y se ha mostrado ahora dispuesta a regularizar unos pocos de estos bienes. Así lo reconocen en el reciente acuerdo con el Estado. El presente acuerdo mantendrá tal como están los bienes de la Iglesia y los registrados a su nombre entre los años 1948 y 2018. Así pues, y en lo que a nosotros concierne, hemos propuesto, con esta Proposición No de Norma, unas medidas concretas, en la creencia de que la tarea de restituir a los vizcaínos muchos de los bienes que son propiedad de los vizcaínos debe ser realizada por esta Institución. Por lo tanto, proponemos que las Juntas Generales de Bizkaia insten a la Diputación Foral de Bizkaia a que, con la información hasta ahora documentada y obtenida, elabore un inventario de los bienes inmatriculados en Bizkaia, especificando su situación y plazo de inmatriculación. Entre otras cuestiones, para poder analizar el impacto que este acuerdo insuficiente puede tener sobre los bienes.

En segundo lugar, que las Juntas Generales de Bizkaia insten a la Diputación Foral de Bizkaia a que defienda los intereses de los habitantes de Bizkaia y que inicie los trabajos de estudio, en defensa de la propiedad de los bienes inmatriculados y que comience los trabajos de recuperación, garantizando la participación y colaboración de representantes de las Diputaciones Forales de Bizkaia, Álava y Gipuzkoa, representantes de Eudel, juristas e historiadores.

Y en tercer lugar, las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno del Estado a poner en marcha todas las actuaciones legales y judiciales para anular las inscripciones. Entre ellas, un proyecto de ley con el objetivo de articular una solución global, mediante la cual se anulen de oficio todos los asientos realizados con el certificado de la Iglesia. Gracias. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, el señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Eztabaida zaharrak arazo irrealerako. Barriro besete proposamen bat ekarri da Batzar honeetara Eleiza katolikoaren immatrikulazioei buruz, zuek guztiok dakizuenek honezkerok asko eztabaidatu izan dana. Eztabaida horreek, ezkerri hainbeste gustetan jakoz, eta Diputaduen Kongresuan eta Eusko Legebiltzarrean be behin eta barriro gauzatu izan dira. Halakoetan bere garaian, Batzar Nagusiek Bizkaiko udalakaz lankidetzan jarduteko konpromisoa hartu eben, Eleizeak behar ez bezala matrikulatutako ondasunak berreskuratzeko laguntza eskainiz, halakorik balego. Bide beretik, oin dala urtebete inguru, Elkarrekin Bizkaia taldeak araz besteko proposamen bat egin eban immatrikulazioen gaiari heltzeko, eta ganbera honek baztertu egin eban be.

Horixe ganbera honetan eta oraintsu eztabaidatu dana. Hori esanda, galdera hau egingo dozue: gertatu ete da Bizkaian ezer garrantzitsurik Batzar Nagusiok bere garaian hartu ebezan konpromisoak birplanteatzera eroan dauenik? Zentzu horretan, uste dozue benetan alarma soziala dagoala, Bizkaian une honetan daukagunagaz? Gaur eztabaidatzeko gai bat da, bizkaitarrak benetan kezkatzen dituan arazo bat? Eta, dakizuenek, gure lurraldean ez badago gizarte-alarmerik, ez eta herritarrak Batzar Nagusietako ateen aurrean agertu ez badira justizia eskatuz, argi dago zuen proposamenaren azpian kutsu ideologikoko eta alderdikeriakzko eztabaida baino ez dagoala, ikusi dogunez, askotan eta erakunde askotan gauzatu izan dana.

Azken baten, ez naz bueltaka ibiliko. Nire taldeak oso argi dauka, eta zuen proposamenarentzako botoa ezezkoa izango da. Arrazoi tekniko eta politikoetan oinarritutako botoa, baina batez be zuen planteamentuaren azpian zuen eta gure arteko oinarritzko alde dagoalako. Nire taldearentzat, zuen planteamentuagaz ezbardintasun nagusia da zuek Ganbera honetara etortzen zariela gu konbentzitzeko Eleizeak immatrikulatutako ondasun guztiak horretarako eskubiderik euki barik izan dirala, eta hori nire taldean ez dogu ziurtzat jotzen, ezta gitxiagorik be. Guk, zuek ez bezala, ez dogu aurrerexiakaz jokatzeko. Gure ustez, aurrez epaitzea, froga barik salatzea, frogatu beharreko informazio jakin batzuk ziurtzat jotea, ardurabakoa da. Presidentziako Ministerioak egindako azkenengo txosteneko datuen arabera, 31 immatrikulazio baino ez ziran egin Bizkaian 1998-2015 aldian.

Baina erreparatu deiogun zehatzago 31 immatrikulaziook zeri egiten deutsien erreferentzia. Ba, ez pentsau zerrenda horretan katedral edo meskita handiak aurkituko dituzuenik, ba ez, kontrakoa baino. Tenplu, ermita, kanposantu eta abarretarako eraikinak aurkituko dozuez, eta 3 etxebizitza edo lokal motakoak. Azken baten, Bizkaian hainbesteko historia daukan eta hain sustraitu dagoan erakunde baten, Eleiza katolikoan, ezer arrarorik ez.

Baina, halanda be, dana ez da perfektua, eta Eleizeak egindako azterketatik jakin dogunez, immatrikulazioen zerrendatik egiaztatu da Eleizeak berak hirugarren batenak dirala uste dauan ondasun-multzo bat dagoala, edo ez dakiela haren titulartasuna. Egia esan,

Espainia osoan 965 ondasun dira, ia mila, eta horreen datuak Espainiako Gobernuak udalei emon deustie honezkero, eta, holan, egoki diran erregularizazino-prozesuak hasi daitezke.

Beraz, Eleizeak immatrikulazino-akats gisa aitortzen dituan ondasun guztietatik bakarra dago Bizkaian, Leioan hain zuzen, eta misiolarien kongregazino baten larrelur bat da. Amaitzeko, Eusko Alderdi Jeltzaleko batzarkide batek Ganbera honetan egin zituan adierazpenak gogoratuko ditut, egokia dala uste dodalako, Jon Atutxak, honen antzeko eztabaida baten esan ebanean: «Ez daigun dana zaku berean sartu, baliteke gero zaku hutsik egotea-ta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Andrade Aurrecochea. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Buenos días. Beste ezer baino lehenago, gora Sahara librea.

Lehen esan danez, barria ez dan gaia eztabaidatzen gabilz, baina erreikatua izan arren ez dau esan gura garrantzitsua ez danik. Urrin joan barik, hainbeste denpora ez dala okupazinoaren gaia garrantzitsua zan, eta, hain zuzen be, kasu batzuetan okupazinoz gabilz berbaz. Beraz, koherentzia apur bat, mesedez.

Dana dala, kasuaren garrantzia azpimarratzearen, Estaduan 100.000 ondasun immatrikulatu inguru aitutzen dira, ez da edozer. Eta, urrin joan barik, batez bestekoa udalerrietan immatrikulatutako 12 ondasun inguru dira; hau da, udalerrri bakotzeko batez beste 12 ondasun immatrikulatu dira. Kalkulu hori egin dau hori ikertzea eskatu dauen alkarte-sareak. Baina, urrin joan barik, Nafarroan hori ikertu dabe eta udalerrri bakotzeko 11 ondasun immatrikulatu baino gehiago ateraten dira, udalerrri bakotzeko 11 ondasun immatrikulatu baino gehiago, udalerrri txikiak barruan dirala, batez bestekoa da. Hori, kontuan euki daigun zerern ganean gabilzan berbaz.

Urri joan barik, gaia izan liteke Juntetxe hau berau be Eleiza Katolikoarena izan eitekeala, bere garaian Gotzaindegiko ordezkari batek immatrikulatzea erabagi ebalako, bere izenean jartzea, bere garaian Eleizea izan zalako, nahiz eta Batzar Etxe bat be izan. Kasu honetan arazo hori ez da gertatu, baina bai bere garaian Bizkaiko udalerrri askotan udaletxe aurreko egoitza izandako eleizetan. Gogoratu daigun Bizkaiko udalerrri gehienak eleizateak dirala; herritarrak Eleizan batzen ziran, hain zuzen be, eta Eleizan eginkizun bi beteten ziran, kultu-zentroa, baina baita zentro publikoa be, hori kontuan hartzeko. Horrek esan gura dau, Bizkaian immatrikulatutako ondasunak gitxi izan arren, bakarra izanda be, onartu ezinekoa dala, ondasun publikoen usurpazinoa dalako.

EH Bilduk azaldu dauena, endredau orduko esan daidan ekimena babestuko dogula. Egia da ñabarduraren bat badaukagula azaldu danaz eta defendatzen danaz. Izan be, horretan oinarrituta, zalantzak argitzeko agerraldi bat eskatu dogu, 2016an Batzar-etxe honetan adostu zana be oinarri hartuta. Eta, esan nahi nebazan ñabardurak dira, hasteko, akordioak tranpatia dan gauza bat aitutzen dau; hau da, Eleiza katolikoaren eta Ministerioaren arteko akordio tranpatiaz dabil Erregistroa. Zergaitik? Alderdi Popularreko batzarkideak adierazi dauenez, immatrikulatutako ondasun batzuk ordurako ez zirala inmatrikulatu ebazanenak adostu da, eta hori da atzean dagoan tranpa, Eleizeak immatrikulatutako ondasun asko barriro saldu dirala. Hemen negozio aukera bat dago, eta hori be onartu ezina da. Horregaitik da garrantzitsua inmatrikulazinoakaz zer gertatzen dan ikertzea.

Beste ñabardura bat, immatrikulazioak urteetan zehar egin dira, eta ez 1998tik, Alderdi Sozialistak adierazi dauen moduan, eta arazoa da Eleiza katolikoak, beste kredo batzuek ez bezala, botereagaz euki dauen lotureari esker gertatu da. Mende asko dira botere politikoari lotuta, eta aldi berean botere politikoa izanda, eta horrek ekarri dau ez bakarrik frankismoak hori erraztu ebala, baita be, adibide moduan Nafarroako kasua aitatu dot; Nafarroan, gitxienez 146 ondasun higiezin immatrikulatu ziran XX. mendearen lehenengo herenean, ez da ezdozer gero.

Horregaitik, ekimenaren alde egingo dogu, bat gatozelako, alde batetik, Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erkidegoetan immatrikulatutako ondasunen inbentarioa egiteagaz.

Gero, titulartasun publikoaren defentsa sustatzea defendatzen dau, hatakotzat hartzen diran higiezin kasuan. Ez dakit lar zoroa eretxiko deutzazuen, baina niri logikoena egiten jat erakunde publiko batetik. Eta gero, azkenik, immatrikulazioak itzultzeko eskatu, eta tira, esan dodan moduan, detalle batzuk dagoz proposatutakoari buruz, baina esan dodanez, 3 puntu horreetan bat egiten dogu. Harritzekoa izango litzateke Gobernuari eusten deusien alderdiek 3 printzipio erraz eta oinarrizkookaz bat ez egitea. Egia da antzeko zeozer atzera bota izan zala Eusko Legebiltzarren, Gobernuari eutsen deusien alderdiek defendatu ebezanean antzeko gai apur bat zalantzazkoagoak. Orduan gitxi gorabehera esaten eben “Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen deutso Presidentzia eta Gorteakazko harremanetarako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari eskatu deion, ahalik eta arinen, Eleiza Katolikoak Euskal Autonomi Erkidegoan immatrikulatutako ondasunen zerrendea, eta horren ganeko informazioa, informazio hori Eusko Legebiltzarren, Foru Aldundien eta Eudelen esku jartzeko helburuagaz”.

Eta gero, “Eusko Legebiltzarrak (...), Eleiza katolikoak bidegabe immatrikulatu dituan ondasunak berreskuratzeko lege-aldaketa egokiak egin daizala”. Zer arazo daukagu? Ez dakigula erreklamaziorik egin danik, ze hemen, ezin da aurrera egin. Udalek, batez be udalerrri txikietan, ez dakie zelan erreklamau, eta immatrikulatutako ondasunen behin betiko zerrendarik be ez daukie. Gitxienez, immatrikulatutako ondasunen 4 zerrenda dagoz, eta ez dira kontrastatu, ez dira egiaztatu.

Etxe honetan 2016an adostu zana zehatz islatu beharko litzateke, eta gehiago Eusko Legebiltzarrean onartu zana kontuan hartuta. Beraz, ekimena babestuko dogu zentzu horretan doala uste dogulako, eta kontrakoa interesagaz eta titulartasun publikoagaz errespetu barik jokatzera izango litzateke.

Eta ez naz gehiago enredauko, uste dot ekimen hau guztiz defendagarria dala, eta horren aurka bozkatzea titulartasun publikokoa izan beharko litzatekeenaren errespetua galtzea litzatekeela uste dot, eta, gitxienez, ikertu daitela dadila. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Escalante Mesón. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, el señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora presidenta, señoras y señores, buenos días.

Ekimen honen bidez, iazko apirilaren 14ko eztabaidara egin dogu atzera, ia leku berera. Beraz, orduko hartan aurkeztutakoen antzeko gogoetak egiteko eskatzen jaku: Bizkaiko Foru Aldundiari behar ez bezala immatrikulatutako ondasunen inbentario bat egiteko eskatzea, euron egoera eta immatrikulazio-epea adierazita; halangoak berreskuratzeko lanei

ekitea; eta Estaduko Gobernuari inmatriculazino horreek baliogabetzeko behar diran legezko ekintza guztiak egin daizan eskatzea. Horregaitik, orduan azaldu nebazan argumentuetako asko errepikatu egingo dodaz.

Argi itxi behar inmatriculazinoztat zer ulertzen dan: ondasun baten Jabetza Erregistroan lehenengoz egiten dan inskripzioa, hau da, lehen ez egoala inolako jabetza-titulurik. Hori argitu dot Arauz Besteko Proposamen honetan ibilbide historiko luzeko gai konplexu baten aurrean kokatzen garalako barriro, eta hori behar bezala ulertzeko, hainbat elementu kontuan hartu beharko geunkez: Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren artean 1737tik 1979ra izenpetutako Konkordatuak, 1994ko azken aldaketa partziala barne; XIX. mendeko eleiz ondasunen 8 desamortizazioak; 1861ean Jabetza Erregistroa sortzea; Hipoteka Lege ezberdinak, 1861ekoa, 1869ko, 1946koa eta 1981ekoa, 2007ko aldaketa eta guzti; gure gaur eguneko Zergei buruzko Lege Orokorra, IBIakaz, errealidade hori dala-ta salbuespenakaz edo hobariakaz zerikusia daukien guztiaren ganean.

Horrek danak galdera batera garoaz, eta hori da giltza: zein da gure papela 2022ko Bizkaiko Batzar Nagusi gisa nahaste-borraste honetan? Izan be, gai honek aitatu ditudan elementu guzti-guztiei eragiten deustie, eta, nahizta lortu nahi dana formulatzeko hain erraza da: zelan definitu eta berreskuratu behar diran behar ez dan moduan matrikulatutako propietadeak, eta, ondorioz, ekimen honetan berenberegi adierazten ez dan arren, hori dala-ta Eleiza katolikoaren alde egindako salbuespenak. Baina hori dana egitea lan nekoso da.

Gai honetan argitasun apur bat emotearren, lehenengo eta behin gogoratu behar da hierarkia katolikoak Espainian beti euki dauela poderea eta ondarea, Estatuaren parte izan zan bitartean. Halanda be, badakigu hainbat erregek, bai gaztelarrenak bai aragoiarrenak, mesfidantza euki ebela, eta horregaitik emon ebezala hainbat agindu eta kontraagindu Eleizeari dohaintzak debekatu edo ezeztatzeke.

Jose Bonapartek nazionalizau zituan 1810ean Eleiza katolikoak eukazan ondasun guztiak, Frantziako Iraultzaren postulatu ilustraduei jarraituz. Horrek azaltzen dau kleroak Cadizeko 1812ko Konstituzinoa babestu izana, Espainiako erlijinoa katolikoa, apostolikoa eta erromatarra, bakarra eta egiazkoa, izatearen truke. Esan gabe doa eleizako hierarkia horrek ez ebala bape sinesten konstituzionalismoan, eta Fernando VII.a 1814an itzuli bezain laster absolutismoari heldu eutsala, bere poderea eta ondarea babestearen truke. Une horretan, krisi soziala eta ekonomikoa areagotu ahala, ilustraduek esku hilen kalifikazioagaz, hau da, egoera ez-produktiboan eukazan Eleizaren ondasunak estatuarentzat berreskuratzeko premia aldarrikatu eben, herriak gosea eukalako. Hori izan zan lehenengo desamortizazioak eragin zituan errazioa. Eta, defendatzen eben helburu sozialean porrot egin baeben be, burgesia hasibarra bereganatu zitualako eta ez nekazariak, garrantzitsuena da Estaduak ez eutsala horregaitik Eleizeari kalte-ordainik emon, argi eta garbi itxiz beti ondasun publikotzat hartu zirala.

Erreakzino konserbadorea 1851. urtean Vatikanogaz Konkordatua sinatzea izan zan. Espainiako historian lehenengoz banatu ziran Eleizea eta Estadua baina ondare-ondorioetarako bakarrik, Eleizeari ondasunak bere kabuz eskuratu ahal izateko aukera emonaz. Baina horregaz, Estatuaren porrot ekonomikoa ez arintzeaz ganera, 1855. urtean Pascual Madoz Ogasun ministroak barriro erlijio-ondasunen desamortizaziora jo behar izan eban. Eta, bere izaera publikoa argi egon arren, Eleizeari zor tituluak emon eutsazan, Estaduak frankismo garaian be ordaintzen jarraitu ebazana.

Eta hemen hasten da ogien eta arrainen miraria, Eleiza katolikoari erabilten ebanaren jabe bihurtzen itxi deustana. Izan be, lehen Hipoteka Legeari esker, Eleizeak 1860ko apirilaren 4aren ostean eskuratu ebanaren jabetza inskribatu ahal izan eban, baina bakarrik data hori baino lehenagoko gainerako ondasunak, desamortizatuak ziralako, ezelan bez kulturako tenpluak.

Bigarren Errepublikan, Eleizea eta Estadia banandu egin ziran ondorio guztietarako, eta beharrezkoa da bere ondasunen araubide juridikoa arautzea, Frantziako Estadaren aurrekariari jarraituz. Gero, harrigarria emoten badau be, diktadura frankistak arau hori indargabetu egin eban, baina ondasun erlijiosoez ez eben titulartasuna aldatu eta publikoak izaten jarraitu eban, Eleizea be Estadia zala ulertzen zalako.

Beraz, 1946ko Hipoteka Legeagaz, jabetza administrazio publikoa balitz moduan inskribatzeko pribilegioa emon jakon Eleizeari, bere gotzainak notarioakaz parekatuz. Pribilegio neurritz kanpokoan zan, lehendik ez eukana, eta Francoren diktaduraren oparia izan zana, estadi-kolpea babestu ebalako. Arau hori Konstituzinoaren aurkakoa bihurtu zan 1978. urtean, Estaduaren akonfesionaltasun-printzipioa urratzeagaitik, nahizta inor ez eban hartu berenberegi indargabetzeko ardurarik.

Aznar presidentea izan zan 1998an, historian lehenengoz, pribatizau zituana. Ordutik aurrera, Eleizeak modu masiboan immatrikulatzen jarraitzen dau kultu-tenpluak eta inork bere izenean ez eukan edozein motatako ondasunak, harik eta, herritarren presinoari eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bateri esker, Gobernuak pribilegio frankista hori indargabetu behar izan eban arte, baina immatrikulatutakoa balio bakoizat deklarau barik.

Bigarren zatian jarraituko dot, kontakizun apur bat gehiago geratzen da-ta. Baina esan gura dodana da, ezin dala egoera konplexurik ebatzi planteamentu sinpleakaz edo errazegiakaz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: gracias señor Otermin Eraso. Tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, el señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Gracias señora presidenta, y buenos días a todos y todas.

Honezkerok azaldu da Arauz Bestekeko Proposamena, proposamenaren edukia, eta ez dogu errepikatuko. Beharbada kontu bat bakarrik, azalpen-zatian, justifikazioan, berariaz aitatzen dana, Estaduaren eta Eleizearen, Espainiako Gobernuaren eta Eleizearen artean lortu daben akordioa. Akordio horrek esan gurako leuke milaka ondasun oingo egoera berean geratuko liratekeela erregistroaren ikuspegitik. Kontu hori, gitxi gorabehera begi-bistakoa da, Eleizeak onartu dauenean zalantza daukala gitxi gorabehera 1.000 ondasunen titulartasunari buruz. Izan be, egia da Estaduaren dokumentazioan jasoten da, Estadi mailan, eta 1998tik, uste dot ordukoa dala ikerketa, ia 35.000 ondasun immatrikulau zirala Eleiza katolikoaren izenean.. Ondorioz, akordio horren arabera ondasun asko une honetan dagozan erregistro-egoera berean dagozala edo egon beharko leukiela.

Bueno, lo primero que tengo que explicar por nuestra parte es que no vamos a apoyar esta Proposición No de Norma que se ha presentado y que vamos a votar en contra. Sobre todo porque no estamos de acuerdo con el contenido, no compartimos porque creemos que no sirve para nada, o que no va a ser útil, y porque surgen muchas dudas con el contenido concreto o con esos puntos a acordar.

Xedapen-zatiko puntu bakoitzean puntu gisa jartzearen, zalantza asko daukaguz. Adibide batzuk jartzeko, horreetako baten eskatzen da Foru Aldundiak lan batzuk egin daizala immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeko. Egia esan, ez da zehazten zelango lanak izan behar daben, baina bada gauza bat garrantzitsuagoa. Puntu horretan bertan, berenberegi aitatzen da Bizkaiko herritarren interesak defendatzeko eskatzea Aldundiari.

Y, a nuestro entender, sólo eso, a nuestro juicio, sería suficiente para votar en contra de la propuesta presentada. Digo que no debería haber ninguna duda al respecto. ¿Creemos, o no está claro que la Diputación Foral de Bizkaia defiende los intereses de los vizcaínos? No debería haber ninguna duda al respecto y no la hay en nuestra opinión.

Defendatzen dira, Foru Aldundiak benetan defendatzen ditu Bizkaiko herritar guztien interesak, holan izan da beti, Foru Aldundiak, bai Foru Gobernu honek, bai honen aurrekoek. Benetan ez dogu erreferentzia ulertzen, baina badira beste adibide batzuk be. Xedapen-zatian be, aitatzen da Estaduko Gobernuari lege-proiektu bat egiteko eskatzea, ondasunak berreskuratzeko aukera emongo dauen neurri gisa, eta oinarrian hori zehazten da Eleizearen ziurtagiriagaz egindako erregistro-idazkun guztiak ofizios deuseztatzeko erreferentziakaz. Eta beste alde batetik, ondorioz, ondasunak jatorrizko erregistro-egoerara itzultzera, Eleizeak immatrikulatu aurretik. Eta guri zalantza asko sortzen jakuz, ze horrek segurtasun juridiko falta handia sortzen dau. Adibideren bat jarri da, nire aurrekoren batek, bozeramaileren batek airatu dau fede oneko hirugarren batek gero ondasunetako bat eskuratu izana, adibidez, bururatzen jat.

Beste alde batetik, ofizios immatrikulazino guztiak, immatrikulazinoei buruzko erregistro guztiak deuseztatzea. Galdera egin daiteke: zergaitik guztiak, ze zalantza barik, ondasun batzuk modu bidegabean immatrikulatu izan dira Eleizearen izenean, baina beste batzuk zuzen egin dira, edo Eleizeak jabetzarako eskubide bidezkoa euki leiken eta daukan ondasunak dira.

Baina puntu honetan garrantzitsuena zera da, ez dagoala argi zertan laguntzen dauen immatrikulazino guztiak balio gabetako leukezan lege-proiektu honek, zertan laguntzen deusan benetako helburuari, hau da, higiezin jakin baten jabetza frogatzeko eskubide legitimoa daukanari jabetza hori eskuratzeko aukerea emoteari.

Gero, ondasunen beste inbentario bat sortzea be aitatu da, eta argitara emon dan Estaduaren eta Eleizearen arteko akordioak ondasunotan daukan eragina aztertzea. Egia esan, ez da oso ondo ulertzen eragina esaten danean zer esan nahi dauen, eta, nire ustez, ez da onartzen akordioa lehenengo urratsa dala, edo behintzat halaxe azaldu dau Ministerioak, Estaduko Gobernuak berak, Gotzainen Biltzarragaz sortutako lan-batzordeak aktibo jarraitzen dauela eta egindako zerrendan ageri diran 35.000 higiezinen egoera juridikoa berrikusten jarraitzen dauela aitatuz.

Ondorioz, ez gagoz ados zerrenda gehigarri bat, inbentario gehigarri bat egin behar izateagaz, eta, batez be, ez gagoz ados ez dakit ze datatik immatrikulatutako ondasunen inbentarioa beste zerrenda honegaz alderatu behar izateagaz. Izan be, zerrenda horrek 1.000 ondasun baino ez ditu, eta Eleizeak horreei buruz zalantzak azaldu ditu, eta uste dau ez dirala berarenak. Hortik ez da inolako informaziorik aterako.

Azken baten, gure ustez, proposamenak hainbat alderdi sartzen ditu eztabaidan, ez dabenak ekarpen handirik egiten, edo ez dabenak balio azken helbururantz aurrera egiteko; partikularrei edo administrazino publikoei, udalei adibidez, higiezin jakin batzuen jabetza-eskubide legitimoa daukienei, eurok eskuratu ahal izatea edo bidea erraztea da gure helburua.

Gure ustez, egokiena da zorionez beste erakunde batzuetan akordioen bat lortu dogun bideari jarraitzea, nahizta aitortu behar dan agian motela izan daitekeela edo urrats txikiak dirala, baina uste dot segurtasun handiz egindako urratsak dirala. Eta lehenago be aitatu izan da, ez da eztabaida bat, ezpada uste dot Gasteizko Legebiltzarrak iazko azaroan hartutako erabagi bat dala. Han ados egon gina eta onartu zan: Eusko Jaurlaritzari eskatzea Estaduko Presidentziaren Ministerioari eskatu deiola Autonomia Erkidegoan immatrikulatutako ondasunak, interesdun izan leitekezanei horren barri emoteko; eta Espainiako Gobernuari

eskatzea behar diran lege aldaketak aztertzeko, Eleiza Katolikoak behar ez dan moduan immatrikulatutako ondasunen berreskurapena errazteko. Hori aztertzea funtsezkoa da, eta, nire ustez, gaur, martxoaren 23an, ezin dogu Batzar Nagusi gisa eretxi bat emon beste azterketa juridikorik egin barik, adibidez, lege-proiektu horrek inskribatutako immatrikulazino guztien deuseztapena ofizioz jaso behar dauela. Uste dot alderdi horreek oso zalantzazkoak dirala, eta azken helburua lortzeko zer lege-aldaketa egin behar diran juridikoki aztertu behar dala. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Lerma Mentxaka. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Gracias señora presidenta.

Otermin jauna, zein dan gure zeregina Batzar Nagusietan aztertzen gabilzan gaiari buruz? Gure ondarea defendatzea, jagokon erakunde guztiek defendatu daiela eskatzea, zer bestela. Eta gai konplexuak planteamentu konplexuakaz konpontzen dira, jakina, baina konpondu egiten dira eta ez dira adabakiak jartzen, ze izan ez eze, itxura emon be egin behar da.

Ez dira planteatzen, ez da zehazten gure proposamenean, gure ekimenean, baina ez zarie gugaz harremanetan jarri ebatzi ahal izateko, argitu ahal izateko, eta, ahal bada, erdibidera ekarri ahal izateko ustez ados egon geinteken zeozer.

Beitu, itxidazue esaten zer dan benetan segurtasun juridikorik eza. Segurtasun juridikorik eza da Errege Dekretu batek, Aznar jaunaren gobernuak 1998an onartu ebanak, Eleiza katolikoari gaitasuna emotea, jagokon eleizbarrutiko gotzainaren sinadureagaz bakarrik, Eleiza katolikoak bere izenean jabetzak erregistrau ahal izan daizala. Gaitasun hori emoteak garrantzi handiko barrikuntza dakar ordena juridikoan, jakingo dozunez. Eleiza katolikoari emondako ahalmen hori ez dator 1979ko Estaduaren eta Eleiza Katolikoaren arteko akordioetatik, eta ez dauka bere oinarria Gorte Nagusiek onartutako lege baten be. Erregelamentu-mailako araua da, ez dauka arau-mailarik egin ebana egiteko, eta hori bai da zorakeria juridikoa, eta horrek bai sortzen dau segurtasun juridikorik eza; izan be, Gorte Nagusiek bakarrik euki eben ordenamentu juridikoa barriztetako eskumena.

Beraz, segurtasun juridikoko arazorik ez dogu ikusten eskatzen doguna eskatzean, adibidez. Esaterako, ondasunak erregistratzeko eragiketa guztiak erabat deuseztat joteko eskatzea, kasuan kasuko Eleizbarrutiko gotzainaren sinaduran bakarrik oinarrituta, eta ondasun horreek 1998ko Dekretua baino lehen euken egoerara bihurtzea.

Ez naz gai honetan luzatuko; izan be, gure ondarea babestu gura badogu, hasi egin behar dogu, Otermin jauna, bai, pausoak emonez, urratsak eginez, ekimenakaz. Zure alderdiari entzun gurako neuskio zer motatako ekimenak egin dituan. Zuek Eleiza katolikoaren milaka immatrikulazino irregular aitutzen dituzue, baina ez dakit zeintzuk izan diran zure alderdiaren ekimenak. Eta kasu honetan Bizkaiko Batzar Nagusietara joko dot, gure lurraldeko ondarrera, jakin gurako neuke zer ekimen egin dozuen hemen edo han.

Eta Otermini esan deusadan gauza bera esango deusut, izan ez eze, itxura emon be egin behar da. Hau, lege kontua baino gehiago, justizia kontua da, legitimidadea eta duintasuna, azken finean. Eleiza katolikoak egindako espolioa gure historiaren kontakizunean jaso behar da, herri honen eta lurralde honen historiaren kontakizunean.

Eta amaitzeko, esango dot memoria historikoak puzzle pieza asko dituala lotzeko, baina hau izango da pieza horreetako bat, eta bakotzak bere burua erakutsiko dau zein piezatan jartzeko prest dagoan egoera horreiei buelta emoteko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Iardia Olangua. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular no va a participar. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Escalante Mesón .

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Buenos días de nuevo.

Uste dot garrantzitsua izango litzatekeela kontuan hartzea, hau da, aurreko aldian egin zan moduan historikoa egin da, baina ibilbide historikoan kontuan hartu beharreko zehaztasun bat. Jabetzaren Erregistroa XIX. mendearen erdialdean hasi zan, eta hori ez da automatikoa; hau da, hurrengo egunean ez dago jente guztia bere jabetzakoa dala uste dauena erregistratzeko leihatilan. Orduetik hona jente asko dago, zuzenean alfabetatu barik egoana, idazten be ez ekiana, eta ezin ebena, ez eukien horretarako gaitasunik, edo erregistratzeko astirik ez eukana, edo dana dalakoa.

Gero, beste alde batetik, aitatu dala uste dot, baina azpimarratu beharrekotzat daukat, edozeinek ez eukala Eleiza katolikoak herri honetan euki dauen notario-gaitasuna, eta horrek esan gura dau, urrin joan barik, nire ustez nire aurretik berba egin dauenak goiak eta beheak joko leukezala 35.000 eta 100.000 ondasun higiezin artean immatrikulau izan balitu, adibidez, erlijio islamiarraren ordezkari batek. Baina ez da hori kasua, oingoan kontrakoa da. Kasu honetan, okupak edo okupa posibleak legitimoak dira.

Zergatik egin dodan grazia hori? Ba azkenean sakoneko eztabaida da, zuek, gainerako taldeak, ia zagozien publikoaren alde edo Eleiza katolikoaren eta haren irabazteko asmoaren alde. Zergaitik? Guk aitortzen dogu kasu askotan Eleiza katolikoak immatrikulatu ebala jabe legitimoa zalako, baina beste batzuetan notario-gaitasun hori eukalako egin eban, jabe legitimoa izan barik. Usufektuarioa izango zan beharbada, adibidez, herriko abadeak eskoletan eskolak emoten ebaan leku publiko batzuetan, eta hori gero arratsaldean erabili egiten zan, edo parrokia-etxea zan, adibidez. Baina funtzio bikoitz hori eukan, publikoa zen? pribatua zan? Hori gatxagoa da, baina kasu gehienetan, ikertu ezkerro, ikusten da ondasun publikoak zirala, hori da arazoa, ez dala ikertzen, eta hori da hemen defendatzen diran gauzetako bat. Nik behintzat uste dot oso argi dagoala puntu hori ikertu beharko litzatekeela.

Gero, beste alde batetik, beste arazo bat be badago: Eleizeak berak, lehen esan dodan moduan, ondasun higiezin bat ondo ez jatorronean, beharbada hor ikusten dauelako diru txiki freskoa dagoala gero beste eleiza batzuetan inbertitzeko, birsaldu egin dau, eta hori da 100 higiezin ingururen erregistro okerra eragiten dauen arazoetako bat. Arazoa ez da Eleizeak aitortu dauela “sentitzen dot, ez dot barriro egingo”, ezpada 1.000 kasu horreetako askotan Eleizeak ondasun higiezin hori birsaldu ebala, eta horixe da deigarriena.

Gero, horri gehitu behar jako 2016tik hona Foru Aldundiaren milioi bat euro baino gehiago zirala, Diputazioarenak bakarrik, Eleiza katolikoaren ondasun eta higiezinetan inbertidu zirala. Hori ez da egiten beste kredo bategaz, eta nik uste dot ez litzatekeela egin behar Eleiza katolikoagaz be. Baina, tira, egia da bere ondarea eta hori kontuan hartu behar dala, baina hemen dagoan arazoa da, hain zuzen be, Eleizeak bereganatu egin dauela, eta gero, ostera, ez dauela finantzaketarik bereganatu dituan ondasun horreek guztiak mantentzeko. A ze arazoa, ezta?

Gure aldetik, egia dala esan, egia da, suposatzen da Estaduan aurrerapenak egon dirala gai horreetan, baina hemen ez da zehaztapenik egiten. Eta akordioak egon dira,

baina ez dira zehazten, ez da zehaztu nahi, eta esan lei Gobernuari eusten deutsien taldeek ezer egin barik dagozala bertan gozo. Hemen badagoz gauzak, neurri batzuk aurrera eroan ahal izateko modukoak, eta agerraldian galdetuko dogu. Baina ez dakigu zer lege-aholkularitza emon deutsien Aldundiak Bizkaiko udalerri; ez dakigu, behintzat, ministeriotik zer ondasun immatrikulau diran kontrastau dan, gero udalerriaz konparatzeko. Nire ustez, gai horreek guztiz defendatu daitezke, eta, urrunago joan barik, hori ikertu ahal izatea aurrerapausoa dala uste dot, eta arlo publikoa defendatzen dogunok gitxienez horren ganean berba egin beharko geunke.

Ez naz gehiago luzatuko, argi dago ze aldetan dagoan bakotxa, eta bakotzak bereari erantzun daiola. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, el señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ze aldetan dagoan bakotxa, eta bakotzak bereari erantzun daiola. 1998. urtea, Alderdi Sozialistak, Espainiako Parlamentuan, Diputaduen Kongresuan, ekimen bat aurkeztu dau, Legez Besteko Proposamen bat, hori guztia ikertzeko. Ikerketa hasten da, 2018an amaitzen da, eta 34.961 ondasun azaleratzen dira. Beraz, bidegabeki immatrikulautu egoan guztiaren errealdadea sakon ikertu da.

Bigarren, 2018an, Alderdi Sozialistak jabetza-zerrenda helduarazo eutsien autonomiei eta erakunde publiko guztiei, eurek baloratzeko ea administrazio horren jabetzakoa dan zerbaitek, Aldundiarenak esaterako, ondasunen zerrenda horren eraginik daukan. Hori da Batzarrek kontrolau leikiena, Aldundiaren ondarea badago, bizkaitar guztiena, eraginda, eta ez dago. Udalerri batzuk dagoz, eta hemen daukazu zerrendea, esaten danez, bidegabe immatrikulau diran 35 jabetza. Beraz, Alderdi Sozialistak egin dau.

Are gehiago, zenbatekoak erreklamatzeko eta ondare izan daitekeen guztia erreklamatzeko prozedura bat ezartzen da, ia salbuespenak edo bidegabeko ekarpenak egon diran, eta, batez be, ondasunak berreskuratzeko prozedura. Esaten danez, erreklamau gura dauenak bere jabetza edo berea zala justifikatzen dauen zerbait egiaztatu beharko dau, eta Eleizeak gauza bera. Ez gagoz Eleizeak gauzak inmatrikulatzearen aurka, baina frogatu egin behar dau ez egoala inolako ondasun kalteturik edo inolako titulartasunik.

Prozedura ezarri da, nork eta zelan egin behar dan ezarri da, hori da Alderdi Sozialistak egin dauena. Eta gai hori Espainiako Senaduan eztabaidatzen da azkenengoz, iazko otsailaren 10ean. Ordutik hona ez da barririk egon, hori bai, mezu hau ekarri deuskueze barriri: «Ezkerrak, edo ezkerraren zati batek, edo Gobernuari eusten deutsienek beste alde batera begiratzen dabe injustizia historiko baten». Eta esan dot abusu bat egon dala, bai, ez da ahaztu behar abusu hori zergaitik gertatu dan; bai, Eleizeak behar ez dan moduan immatrikulau ditu gauzak? Bai.

Baina Batzar Nagusiok, zer egin behar dogu?, horri buruz antolatu dan prozedura errespetatzea, jardutea, errespetatzea eta, batez be, Batzar Nagusien edo Aldundiaren laguntza eskatzen dauenari laguntzea. Baina baten batek udalerrri bateko ondarea ezagutzen badau, Udala bera da. Zinegotzi izan garenok badakigu zelan jagoten eta zaintzen dan herriaren berezko ondarea ez aldatzea. Eta hemen daukazu zerrenda osoa.

Eta ez dozue proposatu zein dan Batzarren zeregina, ezta zergaitik sartu behar dogun Batzarrok nahaste horretan. Lagundu egin behar dogu, bai, lagun egin bai, baina dagoeneko egiten dan zeozer egitea alperrekoa egiten jat, alperrekoa, ez dakarrelako ezer barririk. Eta hemen patina hori botatea, esatea 'ezker hau, sozialistak, ezkerrekoak ei diranak',

hori faltsukeria eta falazia da. 1998tik 2018ra, ikertzen gabiliz, eta lehendik ez egoan ondasunen zerrenda bat dago, eta jarduteko protokolo eta prozedura bat jarri da. Zer gehiago egin daiteke? Ofizioz ezin da esan "hau hemendik aurrera, guk gehiengoz esaten dogulako, leheneratu". Ez da ez legezkoa ez bidezkoa, are gehiago, intelektualki be ez da osasuntsua. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Otermin Eraso. Y tiene la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, el señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Gracias otra vez.

Nik apal-apal berba egin dot segurtasun juridikorik ezaz, jurista ez nazelako, baina adibide argia jarri dot. Gertatu daiteke Eleiza katolikoak ondasun bat inmatrikulatu ostean hirugarren batek eskuratu izana. Zalantzan jartzen dot edo planteatzen dot segurtasun juridikorik eza sortuko litzatekeela ofizioz inmatrikulazio guztiak automatikoki baliogabetzen badira. Hori holan dala pentsetan dot, hori holan izateko arrisku handia dago.

Argi geratu daitela ni ez nabilela hemen Eleiza katolikoaren jokabidea defendatzen, gehiago be, uste dot guztiz egiaztatuta dagoala inmatrikulazino batzuk behar ez dan moduan egin dirala, hori ez dau inork zalantzan jartzen, hori guztiz argia da. Nik planteatzen dodana da akordio jakin batzuk badagozala, honezkero erakundeetan lortu diranak, eta iruditzen jataz egokienak aurrera egiten jarraitzeko, eta azken helburua lortzeko, hau da, herritarrek edo administrazioek, beren izenean ez dagoan ondasun baten gaineko eskubide legitimoa daukiela ulertzen dabenek, eskubide hori bete ahal izatea.

Zer ez zan onartu? Azaroan Gasteizko Legebiltzarrean hori onartu zan moduan, beste alderdi batzuk ez ziran onartu. Zer ez zan onartu? Ba adibidez, Eusko Jaurlaritzari eskatzea 1946ko Hipoteka Legea aplikatuz inmatrikulatutako ondasunen zerrenda barriro egiteko, Estaduak 1998tik egin ebana osatzeko. Ez zan onartu, adibidez, Espainiako Gobernuari eskatzea inmatrikulazinoak ofizioz ezeztatuko dituan lege-proiektu bat egiteko; hori be ez zan onartu Gasteizko Legebiltzarrean. Ez zan onartu, era berean, adibidez, Eusko Jaurlaritzari eskatzea inmatrikulatutako ondasunak aztertzeke eta berreskuratzeko batzorde bat sortzeko, aldundiak eta Batzar Nagusiak eta Eudel parte hartuta uste dot esaten zala, ez daukat xehetasuna. Hori da onartu ez zana, eta zer ez da onartu oraintsuago, oso oraintsu, martian bertan izandako eztabaida baten? Ba legez besteko proposamen baten edukia, orain proposamen gisa eztabaidatzen gabilzanaren oso oso antzekoa, Arauz Besteko Proposamen moduan, ez-arauzko proposamen gisa.

Beraz, zuek eskubide osoa daukazue gura beste bider planteatzeko nahi dituzuen eztabaida guztiak, baita eduki oso bardintsukoak be, aurkeztu nahi dituzuen erakunde guztietan. Baina gero, onartzen ez badira, beste erakunde batzuetan be eztabaidatu diralako, onartzen ez badira, erakutsi nahi dozuen harridura erakutsiko dozue, haserrea be erakutsi zeinkie, teatralizatu, baina zuek zarie eztabaidatuta dagozan gaiak, eztabaidatzen dabilzan gaiak, eztabaidara ekartearen erantzule bakarrak. Eta, ondorioz, nekez onartuko dira behin eta barriro aztertu eta onartu diranean eztabaidatu nahi ziranak baino zuzenagoak emoten eben gauzak.

Barriro dinot, badakit gitxi dirudiela, pausoz pauso joatea da, oso astiro, astiro, baina eresten deusat modu seguruan joatea dala. Jarduteko modurik zuzenena Gasteizko Legebiltzarrak honezkero onartuta daukana da: Estaduko Gobernuari informazioa bialtzeko eskatzea, dagoeneko eginda dagoala uste dot; eta azken helburua hain karu egiten ez dabenean legebildaketak aztertzeke eskatzea, edozein personak, administrazio publikoa izan edo partikularra

izan, bere izenean ez dagoan ondasun baten gainean eskubide legitimoa daukala uste badau, Eleizeak immatrikulatu badau, egin ahal izan daian. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA** / **LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Finalizado el debate, sometemos a votación la Proposición No de Norma.

¿Votos a favor? ¿votos en contra?, no hay abstenciones.

El resultado es el siguiente: un total de 48 votos emitidos; 14 votos a favor, 34 en contra, no hay abstenciones. Por tanto, no se acepta la Proposición No de Norma.

Una vez terminado el orden del día, se da por finalizada la Sesión Plenaria. Que tengan todos un buen día.

Batzarra 13:58an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:58 horas.